





DMTX



AITA GUREA



# AITA GUREA

---

J. L. Señeri Paul Aba'ren

Gogoareu *mana* deritxon italerazko idaztitik

J. L. Zugatzaga'tar Pilipa Abak euskeraldua



JAUNGOIKO-ZALE'REN IRARKOLAN

Zoñnotza. – (Bizkaya)

1927

1871

AMERICAN

LIBRARY

of the

University of California



San Francisco

1871



# IRAKURLEARI

Gogoaren *Mana* (Goitiko yakia) izentzat ezañita, urte guztiko egun bakotxerako ta yai aldakoñetarako gogañtedun idazti edeñ bat italeraz argitaratu eban Jesus'en Lagundiko Señeri Aba agurñañiak XVII-gizaldian.

Berau erderetara bein baño geyagotan aldatua dakust, baña iñoz bez euskerara. Euskeralduteko asmuz lana auñera daroat, baña guztia argitaldu baño lenago, urñatikiko amalau gogañte euskeldunai auñez eskeñiten dautsedaz, *Aita gure'*ko otoyau zein gauza edeñak dagozan ikasi dagiezan.


Emon begit Jaunak guztia amaituteko laguntasuna.

**Euskeraltzaleak.**





# AITA GUREA



## I—GOGARTEA

Aozko otoyá ondo egiteko erea

1. Otoi-egitean, biotzak aoari lagundu beikeo, itzen indaña ta esan-gurea adimenaz aitu gurarik. 2. Gogartutea zer dan.—Zeinbat eratan gogartu leiten.—Batez-be biotza obetuteko izan beite. 3. Ikuspen-otoya gogartea baño erazagoa ta onuratsuagoa dala baderitxozu, uts-egingo zeunke.—Ikuspen-otoyak, onuratsua izateko, otoigaya lendik, gogarte-bidez, aituta euki beař dau. 4. Terese deunak egitez eta itzez orixe erakutsi eban.

«Elai-kumea lez dedař egin eta usoa lez gogartuko dot (Isa. 38, 14)

*I—atala*— Begira zein leyatsu aoa idegiten dauan abiyān, amiaren auñian, elaiikumetxuak, eta yaten emon dagiyon daukazan gurari ta beař aundia bere intziriz aitu-erazoten dautsazan. Egaztiño guztien artean, bere esterian eztauala bestek geyago idegiten dirudi. Ořegaitik, benetan, guztiz ondo antzeztuten dau, zuk egunero Jaungoikoari otoi-egitean, euki beař dozun guraria, aozko otoi-bidez beař dozuna eskatuten dautsazunean, batez-be zeure gogoaren onerako; zure yakirik gozoena auxe izan beař da-ta: *Elaikume baten antzera dedař egingo dot.*—Baña ęzertarako gauza izango yatzu, eske-ta-eske, miña bakařik nekatutea? Miñari biyotzak lagun egin beař dautso, gogoak miñak diñoana gogařtuten dauala: min utsaz, ba, otoi egiten ba'da, adimenaz ořetan oldoztu bari-rik, otoi ori aize apuř bat izango da, ta eztau onik gogoak aterako (I. Cor. 14, 14).—Beraz, Jaungoikoari, elaikume goseak lez, miñaz dedař egiten dautsazun bitařtean, uřumak biotz bařutik ateraten dauzan uso arduratsuak lez, gogařtu beař dozu.

Baña ęgogařtuteak emen zer esan gura

dau? Esan gura dau: Jaungoikoari eskatuten dautsazuna gogotan erabili, bañendu ondo diñozuzan itzen esan-gurea, dauken indaía, zetarako esaten diran, eta zure eskabidea beroagoa ta eragileagoa izan daiten lagunduten dauan guztia. Benetan, ainbeste urtean *Aita gurea* esanik, beañ-ba etzareala oindiño eldu esan gura dauana ondo aituten, asko lotsatutekoa da. ¿Badakizu ori nondik datoíen? Otoí-egitean elaikumeak lez, dedaí eta intziri egin bai, baña usoak lez gogaítuten eztozulako.

*II—atala—* Begira gogaíte (berarizkora yatsi barik) adikunez oldoítutea baño besterik eztala. Eta ortik datoí nozbait alde txaíetik be aítuten dala. *Deungakeria bere lotokian gogaítu eban* (Ps. 35,5).

Oíaitiño be, *gogaíte* itz au guraítean gauza onetarako bakaírik aítu daroagu. Irutara, ba, esaterako, egunero aotan daukazun *Aita gure*'ko eskarietan, gogaítu edo oldoítu zeinke. Oldoítu zeinke diñozun otoíyan, itzen esan-gurean adikunik arean-be ipinten eztozula. Eta ori oldoítute utsa da. Oldoítu zeinke esan-gurean adikuna ezaírik; baña gogapen burutsuren bat atera-

teko, esakun deunak eztiranetan be egiten dan lez. Au bañiz ikaste utsa da. Eta oldoztu zeinke esan-gurean adikuna ezañirik, baña ez yakin guraz, zeure biotzean zirkin eta erabagi onak biztuleko baño. Eta auxe da gauñ gogañtutea deritxona.

¿Oañtu ete dozu zeure baratz loratsuan yazoten dana? Lili berberen ganean dabilz egaz euliak, eñauliak eta eñliak; baña euliak eztabe lili batetik bestera egaz ibili baño egiten; eta beraz, eurakaitik ezin besterik esan leite egaz egiten dabela baño. Ta orixe da oldoztute utsa. — Eñauliak egaz-egin eta lili ganean geldituten dira, baña euren eguneroko yakia bakañik aterateko. Eta orixe da ikaste utsa. — Eñliak egaz-egiten dabe eta bañdin lili-ganean geratuten dira, baña ezta egiteko dan ezkotasun bigun ta gozoa aterateko bakañik. Begitandu zaite, ba, orixe dala gogañtea.

Beraz, gogañtea be ikastea da; baña ez adimenekoa bakañik, adimen eta gura-menekoa batera baño. Auxe da *Aita-gurea* esatean egin beañ dozuna; Jaungoikori dagiozuzan eskarien esan-gure zakona, al dozun ondoen, aituten alegindu zaite;

baña zeure gogoari obeto lagunduteko biozketaz, eta uste-onezko, garbaizko ta maitasunezko zirkin-bidez; onerazpena deritxon ezti bikaña onexek eraldu daroe-ta. Entzun dozun eran, Jaungoikoagaz iñardozauna, adimen eta guramena erabatera ezañirik, dagizunian, orduantxe egiz esango da gogañtuten dozula. Alantxe usoagaitik gogañtuten dauala esan oi da, erabatera oldoztu ta urumatuten dauanean: *Usoak lez gogañturik, inzirikatuko gara* (Isa. 59, 11).

*III—atala.* Begira, ikaste au, zeure gogoaren auñerapenera bakañik zuzendua izanañen, beañ-ba, astuna irudituko yatzula, eta, beraz, esango dozula eztala gogañtuten nekatu biañ, askoz obeto dala ikuspen-otoya: emendik onura bañdiña edo aundiagoa ta neke barik ateraten dalako; ta gogoari, gogañtea sañi neketsu egin daroen legoñtasun eta adigakuntzaren eretik etxakolako emoten. Baña alan uste bazendu, otoi-ikastetxean gitxi ibilia ta gitxi oañikastuna zariala agertuko zeunke, bere lenengo gayetan uts - egingo zeunke-ta.

¿Zein da gogaítearen eta beintzat maizeko ikuspen-otoyaren alde edo baírdingea? Guztien eretxiz alde auxe dago: ikuspen-otoya be gogaítea dala, baña gogaíte asko azi ta auíeratu dana; lenago lez gogaltze luzez egiten eztana, begirakune batez baño, ta ez nekerik emon, gogo-atsegin aundia baño, aundiagoa ala txikiagoa, eldu dan maitasun-malen neuriz.

¿Zelan gura dozu, ba, begirakun uts bategaz guztia erabatera uleítu, lenago bere atalak bana-banaka aituten alegindu ezpazara? Abestietako Ezkonari guztia gozotasunez urtzeko, bere Ezkonaren izena entzutea asko yako. *Neure maitia guztia da opagaña* (Cant. 5,16). Baña ¿zergaitik ori? Lenago, bere Ezkonaren azpegi edeñak ezagututen eta azteítuten, euretariko bakotxian berarizko atsegiña aítuten ebala, astiro egon alako. *Bere burua, ure edeñ-edeña: bere adatsa palmondo aldaska langoa. Bere begiak, usoarenak langoak*, eta abar (Cant. 5,11). ¿Zuk, bañiz, maitasunaren gozotasunik aundienak gura dozuz otoyen, lenago irabaztearen, gogaíte-bidez ondo nekatu barik?



¡Ai zein atzipetuta bizi zarean!—Ikuspen-otoyan, ezin ukatu leite, ain biguna dan Jaun-maitasunaren suaz pozaítzen da; bañā su au geyenetan gogaítean ixiotuten da. (Ps. 38, 4). Eta, beraz, etzaite zu belotsatu arako ziñoanak lez egiten: *Elai-kumetxuak lez dedaít egingo dot, eta usoak lez gogaítuko dot*».—Osterantsian, zeure burua goitu beaít dozun aldie-tan, ikusiko dozu arako zure ikuspen-otoyak, zugatz oíitsu ta loratsua irudi-aíen, igalirik, garaurik eztauala emoten, zeugan zusteít zakonik bota eztaualako.

*IV—atala.*—Begira, emen entzun dozun irakaspēna, otoi-irakastola goratuan ain entzute ondun irakasle Terese deunak erakutsi ebanetik ataria dala. Bera agertu zan Doibatzan (Elizan), udabaía iragaítēn dauan elaya lez; Karmengo lekaidi aundia, aldi luzeak, negu leidunak baratz loratsu bat lez, zimeldu ei ebana, baíiro bere ardura ta lan eta zuzenbidez bizkoítu ta loratuteko. Deun aundi onek, ba, otoyaren edozein maílerako irakasbideak emon ebazan lez, berak ber-beragan beti erabili ebazan, eta

emen irakatsi yatzuna, ikuspen-otoi goratura ez igon gura izateko, gogañte-bidez lenago egoak yayo ta azi ezpadira. Berak bere abitik, elaikume apal batek lez, beti dedañ egin eban, bere ezer-eza autoñtu ta Jaungoiko-eñukia eskaturik; eta usoak lez be gogañtu eban; geyenetan, ba, bere otoy asten eban Nekaldiko gairen bat gogañturik, gizon yakitun baten onua yañaituaz, eta gero bere gogoa izten eban Jaunaren eskuetan, esku-indañez itxas-lodiratu ondoan, aizeak eroaten izten dan ontsi bat lez.—Gero bere alabai euki legikien otoi-erarik onena erakusteko, *gogozko Bidean* erakutsi eutsen *Aita gurea*, gogañte eran, lenago ainbeste Irakasle deunak egin eben lez, eta beste askok Beronen ondoren. Deun au bitañtekoztat añtu egizu, zeregin ain onuratsu biak bete dagizuzan: elaikumetxuarena, gogoz dedañ egin eta Jaunari dei egiñik, eta usoarena, erabatera arduraz gogañtuaz. Bañiz au *Aita gure* otoy an baño obeto ezin egin leitelako, egun askotarako emen ipiñi gura dautzut, egile askogandik atera al izan dodazan ikuñpen eta esan-gura onuratsu

ta bikañenak ipiñirik; auñerantzian otoi ori diñozunian, ondo esateko bea' diran gauza bi gomutau dagizuzan: gurari bizia ta biotzeko adikuna.

## II — G O G A R T E A

«Aita-gurea» gan-ganetik begiratuta

1. «Aita gurea» edo «Goiko gure Aita» deritxon otoyá, Kristo Jaungoikoaren Semiak, gure Bitar'teko maitatsuak bere aoz irakatsita, Aita Jaungoiko ta Bakaldun ain aundiari agertuten yakon eskari ede'ra da. 2. Otoyá Jaunaren auñean eragileá izateko, lenengo eskatuten danazuzena, egokia ta bidezkoa izan bea' da; ta baldintasun au dauko «Aita gurea» deritxon otoyak. 3. Bigar'engo, otoyá eragileá izateko, eraz ta arauz egiña izan bia' da. 4. Oñezaz ganera, uste osoaz egin bea' da, adorez, biotzez ta labur'ki Jaungoikoari eskatuten yakola. 5. Uste osoa ez gure irabazietan, Jaungoikoaren ontasunian baño.

«Zuek, ba, olantxe otoi - dagikezue:

*Goiko gure Aita eta abar*» (Mat. 6, 9).

*I—atala.*—Begira, aitak bakaldeñiko (ereñuko) zuzenbidia emon dautson bakaldun - semiak berberak, bere aita bakaldunari (eregiari) eroan bear zeuntson otoi edo eskabidea bere aoz esango baleuskizu, gura dozuna bakaldunagandik yadesteko, etziñake egiz beste egokiagoren baten-bila yoango. Olakoxia da, ba, *Aita gurea* deritxon eta zure onerako gogañte-gaitzat orain azalduko dautzudan otoi ospatsua. Bera da Aita Jaungoikoari agertzen yakon otoi bat, eta Kristok bere aoz irakatsiriko otoi bat. Kristo, bañiz, Bakaldun ain aundiaren Semia ta bakaldeñiko zuzenbide ureko guztia daukan Semia izan ez-eze, bere Aitagandiko gure Bitañtekoaren zeregiña daukana da. Otoikerarik onena eztauskula erakutsi gura izan, ezin bilduñ izan geintezan Bitañteko maitatsua, ta, erakutsi gura izanik, eztauala egiten yakin ezelanbe ziñistu ezin geinken Bitañteko yakintsua. ¡Begira, ba, beste otoi eragile-agorik iñolaz auñkitu ete zeinken! ¡Eta au olan izanik, ainbeste bideñ besteren bila ta zalez zabilzala, beste guztiak goituten

dauzan au, itxasoak ibai guztiak (atsegin-baratzatik urtenikoak izan-añen) goituten dauzan lez! Oñelan egiten badozu, Kristok parixetari esautsena esan dagizun, ondo irabazi dozu: yaramon geyago egiten dautsezula zeure askitzai, Jaungoikoaren irakaspen eta aginduai baño (Mat. 15, 6).

Erabili egikezu, ba, otoi au eten barik, eta biar dan lez erabilteko, bere aldin eta bikaintasuna ondo uleñtuten alegindu zaite, lenengo guztiari begirada gan-ganetik eta askoka emonaz, yauregi edeñ bateri lenengo sañkunean emoten yakon lez, gero banan-banan eta zeatz alde guztiak arakattuten eta ezagutzen ibilirik.

*II—atala.*— Begira, otoi bat Jaungoikoagandik yadesteko eragilea izan daiten, añenengo bere eskakizuna zuzena ta bidezkoa izan biar dala. Bada, ludiko bakaldunai be zuzen eta bidezkoa eztan eskaririk eroaten ezpayake ¿zeinbat gitxiago olakoak Goiko Bakaldunari eroan beañ ete yakoz? Baldintasun au *Aita - gureak* ba dauko, otoi zuzen-zuzena da-ta.— Zuzenbidez Jaunari eskatu leikiozanak bi dira. Benetan ona dana emon dagigula, oña

bata, eta berau da otoyā egokiro deritxona: bestia da benetan gatxa edo kaltia daretik yagon gaizala, eta au egokiago da negar-otoyā. Emen, ba, biyok Jaunari eskatuten dautsaguz: baña ona dan aldetik, ezkara geure ona eskatuaz naikotzen, berea be, ta geyago berea, gurea baño, eskatuten dautsagu. Eta bere ona, atetiko bere aintzalbena baño besterik ezin izan leitekkelako, orixe da auñenengo eskatuten dautsaguna, esanaz: «*Donetsi bedi zure izena.*» Onen uñengo gure ona irutarikoa da: on goitaña, on gogokoña, on luditaña.— Goitaña osoro eskatu beañ dogu, ta orixe egiten dogu esanaz: *Zure ala belkigu* (edo *zure eñeñua betoñkigu*). Gogokoña eskatu beañ dogu, goitaña yadesteko geyen lagunduten dauan neñian, eta orixe egin daroagu diñogunean: *Zure gurea egin bedi* eta abañ. Luditaña eskatu biañ dogu gogokoñari yañkiten etxakon eta bai uñgazten dautson neñian: ta auxe da egiten doguna esatean: *Emoiguzu gauñ geure eguneroko ogia.*— Gero gatxari dagokionez, Jaunari eskatu biañ dautsagu, orain aitatu dogun on guztiari yañkiten ya-

kon guztitik yagon gaizala. Orain ba, lenengo aitatu dogun Jaungoikoaren onak yañkileren bildurik eztauka, iñok ezin gixitu legikio-ta (Job. 35, 6). Jaungoikoak, autetsiak egiten dautsoezan adigurietatik aintza ateraten dauan lez, bañdin zorigaiztokoak dagioezan irañetatik be ateraten dau; erabatera ta almenaren agerpen eta aintza bañdiñaz lenengoak sariztuten dauzan lez, bigañenak zigoñkatuten dauz-eta.

Oñegaitik, Berari dagokionez, eztautsagu eskatuten gatxetik azke egon daitela, beañ lañi oñetik berez ain azke dagolako. Geure onari yañkiten yakon gatxetik azkatu gagizala bakañik eskatuten dautsagu. Eta on goitañari, betiko zoriona yadesteari, obena bakañik yañkiten yakolako, oñegaitik azketsi dagigula eskatzen dautsagu, diñogunean: *Geure zoñak azketsi eiguzuz.* — Eta on gogokoñari berez ziltza yañkiten yakolako, oñegaitik diñogu: «*Ziltzaldian ezkaizuz itxi.*» — Eta on ludañari berez edozein gaitz yañkiten yakolako, oñegaitik diñogu: *Gatxetik yagon baño.* — Beraz, ondo gogañtuten badozu, emen aurkituten dozu eskarietan zu-

zentasun guztizkoa. Eta au olan izanik ¿zelan gurozu Jaunak ez entzutea? (Prov. 16, 13).

*III—atala.* Begira, otoya, eragilea izateko, zuzena ez-eze, eraz ta arauz egiña be izan bea' dala; otoya gurarien uler'tarazlea, iragar'lea, da-ta. ¿Eta zelan gogonez entzungo dautso Jaungoikoak, gitxiago gura izan bia' dana geyago gura dauanari? Begira, ba, otoi onetan eskariak zein ondo ipiñi dauzan Kristo'k. Geure gurarietan euki bia' dogun era ta mañan ipiñi dauz, bakotxari geyago gura dauana lenengo eskatutea berezkoa yakon-ezkerro. Ikusi egizu, ba: onari yagokonez, lenengo on Jainkotia ta gero geuria eskatu eragiten dausku. Bañiz, geure onari yagokonez, lenengo on goita'ra, gero on gogoko'ra, ta azkenez aldiko'ra eskatu eragiten dausku. Goita'ra geure azken elburua da; au da, bere bakalde'ria (ereñua), ta o'regaitik lenengo tokia dauko. Gogoko'ra, elburu ori yadesteko bidiak dira, ta o'regaitik biga'ren tokian ipinten da. Aldiko'ra, bideok e'raztuteko laguntasunak dira, au da, geure egunoroko ogia, ta o'regaitik iruga'r-



en tokian ipinten da.— Baírdin gaxari yagokonez, on goitaíari yaíkiten yakon obenetik (eíutik) azkatu gagizala eskatu eragiten dausku; gero on gogokoíari yaíkiten yakozan ziltzetatik, eta azkenez on aldikoíari yaíkiten yakozan gatxetatik yagon gaizala. Eta au olan izanik ¿ez ete dozu euki biaí entzungo dautzun uste osoa, era ain edeían otoi egiten dozunian? Zeure gurarietan ez bakaík zuzena, baita arautua zariala be ikusten dau Jaungoikoak. ¿Zeren bilduí zara, ba? *Zuzenari Jaunak bere guraria emongo dautso* (Prov. 10, 24). ¿Eta gura izan biaí dana gura izan ez-eze, gura izan biaí dan eran gura dauana baño zein zuzenagorik? Auxeda goimaitasuna ondo arautua eukitia (Cant. 2, 4). Auxeda gixonagan Jaunari berak eskiñiten dautson eresindasunik samuñen eta gozoena: gurarien erakidetasuna. ¿Eta otoi arautuaz zer besterik aitu ten dogu?

*IV—atala.* Begira, otoya, eragilea izan daiten, esanaz ganera, uste osoaz egiña izan biaí dala. Geurez dakigu, eskari zuzenak entzutera zeinbat zirkinduten gau-

zan, egiten dauzanak gure maitasunean uste aundia daukala dakusgunian, eta oregaitik adorez, biotzez eta laburki agertuten dauzala. Bañiz, bestera egiten dabeni- an, on-egiteko gogoa kenduten dauskue. Oraitiño be, guztiok enda ain gilberakoak gariala, ori yazoten bayaku; izer izango da, ba, guztiok baño geyago on-egiten zalea izatea bere aintza aunditzat daukan Jaungoikoagan? *Gaizkatuko zara, neugan uste osoa euki dozulako* (Jer. 39, 18).

Begira, ba, zelan eskariok Jaunari egiten yakozan adorez, biotzez eta laburki; eskari ustetsuak daukazan iru baldintasunak eurok dira. Lenengo, adorez egiten dauz, oregaitik darabilzan itzak onexek dira: *Donetsi bedi, Betoř, Egin bedi, Emoigu- zu, Azketsi, Ez itxi, Jabon gaizuz.*

Lotsa gitxidunak eta aginte lařegikoak irudi leitez, Kristo'k irakatsi ezpaleuskuz, obeto uleřtu gengian gauza zuzenak Jaungoikoari eskatuten dautsazanak eztauala zalantzaz ta bildurřez, gizonai eskatuten yakenian lez, eskatu biar (Jac. 1, 6). Biotzez egiten yakoz, biozkuntza au Jainkoaganako ta geideaganako maitasunaren

eztitasunetik urteten dau-ta: ona emen Jaungoikoaganako maitasuna iragar-teko *Aita* deituten dautsagu, eta geideaganako maitasuna iragar-teko, *geure aita* deituten dautsagu. Eta ez baka-rik eskatuten dautsagu *geure zora azketsi* (parkatu) *dagigula*, geuk azkesten dogun lez, baita be geuretzat eskatuten doguna erabatera guztientzat, beti piloan, askok abesten daunian lez. Azkenez, laburki egiten dira; ezin leite, ba, eskatuten dogun guztia esakera ta itz laburagoz eskatu; onenbestez uste osoa agertuten dogula. Ludiko bakal-dunekaz egiten dirian lango itz-biribilketak uste laburaren ezaugarriak izan doyaz.

Kristo'k bein gai onetzaz itz-egitean, ziñoan: *Otoi dagizuenean, ez egizue asko itz-egin* (Mat. 6). Ez eban esan: *ez egizue asko otoi-egin, asko eskatu; ez egizue asko itz-egin* baño; asko itz-egin ziñiste bakoak lez, euren Jainko-aizunak itz-indarez emotera bultzatuko dirala uste dabelako. Jaungoikoa guri entzutera daka-ře ez itzak, gurari biziak baño. *Txiroen guraria entzun eban Jaunak* (Ps. 10, 17). Eta gurari onek guraña iraun

lei, ta beti iraun bea' dau, beti otoi egin bea' dogu-ta, Kristo'k erakutsi euskun lez.

*V—Atala.* Begira, otoyau euki bea' dan uste ona eztala gure irabazietan eutsin bea', Jaunaren ontasunean baka'rik ba'no. Eta, beraz, otoyau, eragilea izateko, apaltasun-gogoz beteriko biotzetik yayo bea' da. *Apalduten danaren otoyau odehyak ba'unduten dauz* (Eccli. 35, 21). Gure ule'keran, ba, Goikoaren ostenderak au'kitua'ite ibili doya. Apaltasun au a'riga'iro agiri da Kristo'k guri irakatsiriko otoi onetan. Egizko apaltasuna noberagandik ustea guztiz kenduta, on guztia Jaungoikoagandik itxarrotean dago.

Eta otoi au darabilenak alantxe agertu daroa: Jaunagandik al dan on guztia itxaron ez-eze, Jainkoak yagon ezik, apaltasunez lotua dagola uste dauan igazitako, au'eko ta geroko gaitz guztitik azkatua izango dala be, agertuten dau. Guztiz a'itez, ba, esan eban Kristo'k: *Olantxe otoi egingo dozue*: Jaunak guri entzuteko otoi-bidea auxe da-ta. Ez eban esan: *Itz onekaz otoi egingo dozue*, Doibatzak (Elizak), zi'istedunen gogoa askotariko erabi-

dez arinduteko, egunero esan daroazan beste otoi batzuek ez baztertutearen. Esan eban: *olantxe*, oartuerazoteko, beste otoiak guztiak otoi-egiteko ta Jaungandik yadesteko onak izan daitezcan, guztiak onen erakoak izan biar diriala, bai eskarien zeindasunian, bai mailan, bai eskaria egitean uste onean eta apaltasunian. Oregaitik gura izan eban Austin deunak beste otoi guztiak, onak izango badira, onetan sartu bear dirala. Baña au euki biar da onentzat, beste guztien eredu da-ta. *Olantxe otoi egingo dozue*. Jaungoikoa onesteko ta goresteko ezta erabiderik izentatzen, zor yakozan gorespenak neuririk eztaukelako.

Baña, eskatuteko ta otoi-egiteko, izentatzen da, eztira eskariak emen Kristo'k ipiniriko neuritik aldendu biar-ta: oregaitik esan eban: *Olan otoi egingo dozue*, baña ez euskun emen ez inon esan inoz: *Olan goresiko dozue*.

---

### III—GOGARTEA

#### Aita

1. Gizonak otoi-egiten Jaunari Aita deitutea arigarria da, baña Kristo'ren aginduz alan eginbioř dau. 2. Gizon guztiak izen ori emon leyoe, baña kista-řok berariz. 3. Lagi zařean deunak be otseñen izena baño ez eben artuten. Lagi bařian Jainkoaren semiak izan eta deřu eta izan be bai. 4. Aita ain goratuaren semiak eztira ludiko gauzetara yatsi bi-ař. 5. «Aitaren» izenak beraganako bost egin-beař gomutarazo beař dauz. 6. «Ai-taren izenak uste osoa gugan sořtuera-zoten dau.

*I—atala.* Begira, gizon ziztrin batek, Jaungoikoari bere eskariak egitian, Aita egiz deitu al eta beař izatea, zein izukari aundia dan. Au ain aundia da-ta ezinkořa lirudike Kristok olantxe agindu ezpaleus-ku. Ořegaitik yaupariak (abadiak), eřia-ren aldekoa lez, eřiagaz batera Aita gurea ondian (altaran) esan gura dauanian, itz-

auré auxe egin daroa: «Kristo'ren aginduz oarturik eta Jainko-irakaspenez irakatsita, esaten azartuten gara». *Aita...*—Orenbestez aituerazorik esakera ori darabilela, ez arokeriz, olantxe aginduta daukagulako baño. Jaungoikoari, ba, aita deituteko miña erabili baño lenago, lotsea baruan biztu egikezu, Jaungoikoaren aldean nor ete zarian gogoraturik: zu, a' zantá bat; zu, itxusia; zu lokatza; zu, obendi bat, *¡Ai! Jauna, zu gure Aita zara, baña gu lokatza*, iñoan Isaias Iragarleak, (Isa.64,8)

*II—atala.*—Begira, Jaunari Aitaren izena gizon guztiak emon leyoela, berak irazanak, bere eskuetako lana, bere antzera egiñak, berak yagonak, orniduak eta egunero maitasun aitako'ez alikatuak dira-ta. (Malach. 2, 10).

Baña kristarak, Jaungoikoari aita deitutean, begirakun goragoa daukagu. Olan deituten dautsogu, eska'ezko geure izakeran daukagun goitiko semetzakotasun aundian. Beraz, Jaungoikoa esangura zabalagoan aita oroka'ia izan-a'ren, *Pater omnium*, beste lu'aren-ganeko gizonai eztautsez ondasun ziztriñak baño emoten;

Abran'ek, Ismaelen aita ta aita aberatsa izan-añen, seme oñeri, etxetik bota ebanian, ez eutsan beste biderakorik emon, soñbaldan ipiñi eutsan ogidun zarantxua ta urdun zaragia baño. Jarauntzia, ondorea, Abran'ek Isak seme maitiagaz egin eban lez, kristañoi berezi ta erdibanatuten dausku.

Begira, ba, itz ori zelango biozketaz oguzi beañ dozun Jaungoikoari *Aita* diñotsazunian. Bitariko biozketaz esan biañ dozu: seme-biozketaz izatezko mañan, eta eskañ-maño seme-biozketaz. Izatezko maño semia lez, zeure izate guztia zoñ dautsazu, ta guztiori dagizun eta oldoztuten dozun guztiaz, beria izaten, zugatza, ipiñi ebanaren onerako, bere oñi, lora ta igaliakaz dagon baño, beañtuagoa zagoz. Eskañ maño semea lez, bañiz, zoñ dautsazu, ez bakañik zeure izate guztia, baita *bere* izate guztia be; emoten asi yatzuta, eskañ-bidez bere antzeko egiten zaituala, egunen baten zorionean guztiz bere antzekoa egiteko asmuz. Begira, ba, zelangoa izan biañ ete dan zure biotza, Jaungoikoari *Aita* diñotsazunian.



*III—atala.* Begira, Lagi zaíean, geulez, Jaungoikoaren semetzat aíturiko gizon deun batzuk ba egozala, orduan etoíkizun zan Kristo'ren etoíkundean ziñisten eben guztiai, ludiaren askalditik emon izan yaken eskaíaren bidez. Oraitiño be, Jaungoikoari guztiz gitxitan aitaren izena emoten eutsen, Egílea zan aldetik izan ezik. Eta ori zan, eurak be semetzat egiz aítuak izan-aíen, aintzat deituten azaítuten etziralakoko; oindiño otseñen egoeran aurkituten ziran-eta, oindiño txikiak diralakoko azle edo aitorde gogoí baten menpian dagozan semiak lez (eta olakoa yaken lagia) (Gal. 4, 1). Kristo'ren etoíkundeaz, aldiyaren betetasuna eldutean, otseintasunetik urten gara. Oregaitik orain, Jainko-semetzakoak, arek ziran lez, izan ez-eze, baita aintzakotzat deitu be egiten gara. (Rom.9,26). Eta augaitik, eskaíaren bidez, Jaungoikoaren semiak azaíkuntzaz deituten garian lez, azaíkuntza baídiñaz Jaungoikoari *Aita* deitu dagiyogun gura izan dau Kristo'k. Auxe aitu eban Paul Bialduak be, iñoanian: «Semiak zarielako, Jaungoikoak zuen biotzetara *Aba, Aita,*

dedaŕ dagian bere semiaren Gogoa bialdu dau» (Gal. 4,6). ¿Zer deritxazu zeure izakera oneri? ¿Onespen aundia zoŕ yakola ezteritxozu? Jesus'en maŕa berberian zagoz; bera, bai, izatez da Jainko-semia; zu, baŕiz, Jaungoikoaren semia zara, baŕa aintzakotzat eskaŕez aŕtua, osterantzian, Jaungoikoaren egizko semia zara zeu be, ta seme adintsua (Ps. 81, 6).

*IV—atala.*—Begira, oŕegaitik Kristo'k auŕenengo gura izan dauala emen otoi aundiŕogunian Aita deitu dayogun, aitatu dogun era gorenian, geure goratasun bikaŕa gomutarik; eta semiak bagara, ezkaitezan lotsagaŕiro endakatu, ez kristaŕak ez etxe-koak ezpagiŕa lez, arako daroen kristaŕizenaren gai eztiran askok dagienez. ¿Jaungoikoaren semiak diran eta deritxenak, Maoma'ren ala Melanton'en semiak bai-lira, ludiko ondasun kaskaŕen atzian galdurik ibiltia bidezkoa ete deritxazu? (Is. 32, 8). Lotsagaŕiagoa da zuretzat, Jaungoikoaren seme goratua zarian ezkerro, irabazi kaskaŕ, andikeri uts eta atsegin loyetara beratzia, bakaldun (eŕege) aundi baten semia zimauŕ-korotz batzen

edo sastegien agintaritza gura izan eta koroztegiko loi-arztean iraulka ibiltia baño.

Eta, oraitiño be, ¡zeinbat bideí, onura ain lotsagaíriak eta loyak yadestearen, Jainko-semiaren goratasuna itxita, gokaiztoaren otsein eta yopu izatera eldu zarean! Onek bere guzúezko eskeintzaz eskiñiten dautzuz, eta Jaungoikoaren Seme-Bakarari esautsana diñotzu: *Guztiyok emongo dautzudaz, belaunikoturik guítuten banozu.* ¿Zergaitik, ba, eztautsozu zeuk be erantzuten, Kristok egin eban lez: *Kenakit Satanas.* ¿Zer? ¿Jainko-seme bat Satanas'en otsein egin? ¡Au arítutekoa! ¡Au zorakeria! ¡Astakeriaren aundia! ¿Ori seme ondatzaleagaz txari-zain yoatea baño, besterik ete da? Benetan ezin euki zeinke begiak goratuteko arpegirik *Aita gurea* esateko, lenago garbaiturik Aitaren oñetan auzpeztuten ezpazara ta negar samíñez ezpadiñotsazu: *¡Aita, oben egin dot goi-aurkez ta zeure aúrean; ezin ge-yago zure semea egokiro deitu neinteke* (Luc. 15.21),

*V—atala.* Begira, otoi au esan daroagun bakotxian Jaungoikoaren izena emon



dagiogun gura izan dauala Kristo'k, olan, esan dogun lez, geure goratasunaz gomuta gaitezán, eta baita, ume onak lez, Jainkoaganako daukaguzan egin bea'ak gogoratu dagiguzan be. Gure bete-bea'ok bost dira: Bera maitatu ta goretsi, bere esana egin edo berari men-egin, berari ya'aitu ta bere irakaskintza aitako'aren bian egon. (Eccli. 3,2).—*Lenengo* egin-bia'á Bera maite izatia da, ta au batezbe biotzaz beteten da: *Egin zinduzana, indarguztiaz maitatu egizu* (Eccl. 7.32). Egia da, eztala betetan, edozelan maite izan - da. Jaungoikoa Jaungoikoagaitik maitatuaz betetan da: auxe da maitasun seme'koa. Jaungoikoa, beragandik itxaroten doguzan onakaitik maitatuta, ezta betetan: au otseñen maitasuna da.—*Bigaren* egin-bia'á Bera govestea da (Malach. 1.6). Au, batez-be, itzakaz betetan da; au da, Jaungoikoa'ganako itz gorespondun, gu'ga'ri ta ospaga'riz (Ps. 49,23). Egia da, Jaungoikoari ede' yakon gorespenna, min utsaz emoten yakona eztala, aoz ta biotzez batera baño. Osterantzian ¿zelango omena litzake? Eleiteke semearen aita

laztana'ganakoa izango, bakalduna'ganako bakaltseñarena baño (Mat. 15,18). *Iru-gařen* egin-beaía Berari men - egitea da (Eccli. 4,11). Zoí au, bere aginduak zeatz egitian dago-ta, egintza-bidez ordainduten da. (Tob. 5.1). Egia da, eztala beteten Jaunari edozelan men-egiñik, maitasunez men-eginda baño; zigoíaren bilduéz men-dagianak, eztau semia lez men-egiten, otseña lez baño.—*Laugařen* egin beaía Berari yaíaitutea da. (Jer. 3.19) Zoí au ezin ordaindu leite gizon osoagaz baño: egiten dan guztia Jainko - maitasunařen, al dan osotasunik aundienaz, egitean dago. *Boskařen* egin-beaía, azkenik, bere zigoí ta irakaskintza aitatiaí - pian yartzia da. (Hebr. 12, 7). Au betetan da, Jaungoikoak bialduten dauskuzan nekiak, txirotasuna, irañak eta ziltzak eroapenez artuten dirala, geure onura geyagorako bialduten dauskuzala ziñisten dogularik. (Eccli. 30,1).

Olan egitea, seme onaren egipidea da: musin-egin eta marmar-egotea seme deungearena (Jer. 2,30). Auxe da Kristo'k, Aita deitu dayozun guztian, gomuta dagi-

zun gura izan dauana. Gura izan dau bere semiaren izenak ezaŕten dautzuzan egin-beaŕ guztiak, eta batez-be geyagotan uts-egiten dozun axe, gomutarazo dagizuzan. ¿Eta zelango Jaungoiko-semia izango zeintekez, zoritxaŕez egin-beaŕ guztietan uts-egin daroazula ezagutuko bazendu?

*VI—atala.*—Begira, azkenik, Jaungoikoari aitaren izen laztana otoi onetan emon dayogun gura izan dauala Kristok, bertan ain gauza aundiak, gero ikusiko dogun lez, eskatutian, onenbestez gure biotza yaritxiko doguzalako uste osora zirikatu gura izan daualako. Eta ¿zein da, ludikoen aŕtean be, zuzen dan gauzetan semiai atsegin emon gura eztautsen aita? ¿Zer egingo dau, ba, Goiko aitak, bere ondoan beste iñori Aitaren izena emon beaŕ etxakon añan aundiagoa ta obia dalarik? (Mat. 23,9). Onek, batez-be, Jaungoianako uste bete-betia emon beaŕ dautzu, Berea zatxakozala, egiña egileari lez, yakiteak (Is. 64,8). Antzezki edo irudi batek, ezagumenik baleuka, on guztia eratu eban egileagandik; jauregi batek eregi eban irateŕkariagandik, edozein

margok bere margolariagandik; ta edozein tresnak bere egileagandik itxarongo leuken lez; olantxe guk be askoz geyago Jaungoikoagandik on guztia biziro itxaron geinke (Jer. 18, 6).—*Askoz geyago diñot*; beste egileak, ba, euren egintzak asko maite izan-añen, eurakan aurkituten diran akatz batzuk dirala-ta, laguntza barik guztiz itxi legikiez. Baña ez ori Jaungoikoak, akatzik eztauko-ta. Eztauka eziñik, bere eskuak guztia goituten daualako: *Jaunaren eskua*, diño Isaias'ek, *eztago laburtua*, elbaritu ala okeñ batena lez, *ni yagon ezin izateko* (Is. 59,1). Eztago yakingetasunaren menpian, bere adimenak guztia dakus-eta: *Guztiak bere begientzat biloizik eta agirian dagoz* (Hebr. 4, 13). *Bilozik*, azaletiko edo agiriko guztiak ikusten dauzalako. *Idegita*, barutiko guztiak ikusten dauzalako; gorputz edo soin bat bilozik ez-eze, baita baru-zatiak ezagututeko idegita lez. *Guramen* on-ona be bai-dauka, bere biotzak guztiak maite gauz ta. *Eztau*, diño Jakitunak, *eratu dauan ezer goñotatzen*, asmuzkoa deritxon erabagiz, *ez egin dauan ezer*, egi-

kunezko erabagiz. — Benetan Jaungoikoak, eskatu barik be, onegin biar ba-dausku, gure Egilea dalako bakañik ¿zeinbat geyago on egin beañko dausku, otoi beroz eskatuten dautsagulako? Oñañi onetan eutsin beañ da lotsatuten eztauan itxopena edo ustea; Jaungoikoa ainbeste aldetik zeure Aita dala yakitean. Eta augaitik *Aitaren* izen au otoi onetan guztiaren eta zati bakotxaren oñañitzat ipinten dala dirudi; eskari bakotxian bañiro ba'giño lez: *Aita, onetsi bedi zure izena; Aita, betoñkigu zure ala; Aita, egin bedi zure gurea, eta abañ. Aita* itz au, berau dala diñot emen guztia zuzenduten dauana (eskari bakotxian bañiro ba'giño lez).

#### IV — G O G A Ñ T E A

##### Gurea (Aita)

1. *Aita gurea esanaz, ene aita esanaz baño gogo obiaz entzungo dautzu.* 2. *Ori aginduten dau Kristok anayak gariala gomutau gaitez an. Bestien aldez be otoi egitean, Jaungoikoaren antzekoagoa zareala agertuten dozu.* 3. *Otoi onen bidez*



*erandu txarrek kendu ta donokirako esku-  
bidea emoten yaku. Olan Kristo'ganako  
begirakuna darabilgu. Bakañeko otoyen,  
Kristoren bayetzaz, ene aita esan zeinke.*

*I—atala.* Begira, aitaren seme bakañ  
batek beragandik askoz geyago yadestia  
itxaroten dauala, anai asko daukazanak  
baño. Baña oartu beañ dozu, ori ludiko  
aitai yagoken aldetik yazoten bada, ezin  
Goiko Aitari yagokonetik yazo leitela.  
Jaungoikoaren semiak itxasoko ondañak  
baño ugariagoak izatera eidunten badira  
be, eztau oraitiño bakotxak, bakaña balitz  
baño gitxiago beretzat itxaron diañ: Jaun-  
goikoa guztientzat ugari daukan aita da-ta  
(Rom. 9, 27). Beraz, etzara gogoauldu ta  
ta biozgetu biañ, entzun-añen eztautsozula  
Jaungoikoari otoi onetan *Ene Aita*, seme  
bakaña baziña lez, deitu biañ, *Aita gurea*  
baño, anai asko daukazan semiak lez,  
bera, ba, zuri entzuteko ta adi egoteko,  
beste semerik ezpaleuko-baxen zur dago.

Ara geyago, *gure aita* deituten badau-  
tsazu, *ene aita* baziñotsa baño gogotsuago  
entzungo dautzu; orñenbestez ain aita

aundia lez guztiai on egiteko daukan al gustian itxoten dozulako, zeuri egiñaren: baita oñenbestez agertu daroazu ziñistuten dozula gure Jaunak guztiekan oldozten dauala, guztien ardurea daukala, guztiak yanarituden dauzala ta guztiak bañdin yagoten dauzala (Sap. 6,8). Auxegaitik gura izan dau Kristok emen *Aita gurea* ta ez *ene Aita* esan daigun, oñenbestez geure aitaren onespina aitu erazo dagigun, ibayak itxasoaren omenez *gure aita* esanaz, al baleukie, erakutsiko leukien lez. Uste ain goratu au zuk agertu ete dozu, Jaungoikoak erabatera beste asko yagon beañ dauzalako, zeure biotzean, beañ-ba, zeure ardurarik eztaukala uste izan dozunian? ¿Au zer da Jaungoikoak, itxasoak baño, biotz estuagoa daukala uste izatia baño besterik? Itxasoari, ba, bañdin dautso beragandik yayoten diran ezin zeinbatu ala ibai guztien nai bat bakañaren ardurea eukitia.

*II—atala—*Begira, oñezaz ostian gura izan dauala Kristok *gure Aita* ta ez *ene Aita* deitu dayogun, anayak gariala gomuta gaitezcan, eta alkañ aintzat arñtu biañ

dogula, bakotxak bestien ona, leyaka lez, bilatzen dogula. Zuk, otoi-egiten asten zarianean, zeuretzat bakañik, zeuretzat eta bestiarentzat batera baño, gogo obiaz eskatu daroazu. Zeuretzat bakañik otoi-dagizunian, biotz guztiaz ta beroago egiten dozu; zeuretzat eta bestientzat be dagizunian, epel eta gogo otzez dagizula dirudi. Baña au uts aundia da! ¿Arean galduten dozula deritxazu, erabatera bestien alde be, ta ez zeuretzat bakañik otoi eginda? Bestera, orduantxe da zeuretzat irabazi aundiagoa. Bada, zeuretzat bakañik otoi-dagizunian, buru-maitakeriak oretara zirkindu ziñeikez; baña bestien aldez be otoi-egitean, eta batez-be kristañ-anaitasuna baño beste lokañirik eurakaz eztaukazunen aldez, ori egiten zirkinduten zaituana egiz goimaitasun utsa da, ta, beraz, Jaungoikoari maiteago zatxakoz, ta zeuretzat eskatuten dozuna be yadesteko obeto gertuten zara.

Oregaitik eromañai ziñez zirautsen Paul deunak bere otoyetan euren aldez beti eskatuten ebala (Rom. 1, 9). Begira zein ardura aundia eukan Bialduak, zin egite-

raño eldu zan-da. Zin egin ebala esan gura ezpadogu bestien alde otoi gogo beroz egitia, gizonen artean gauza ain bana-banakoia dala-ta, zin-egiten ezpadau, ezin iñori ziñistu leikeola. Orezaz ganera, bestien alde be otoi egiñik, zeugaitik bakañik otoi-egitian baño geyago Jaungoikoa maite dozula agertuten dozu, bere otseñak asko izan daitezcan guraria agertuten dozulako. Geyago goresten dozu, ez bakañik bere onespina, baita bere antzezkiak diran guztiena be biñatuten dozula erakusten dozu-ta. Geyago men-dagiozu, berak aginduta daukazan lagun guztien ardurea daukazula agertzen dozu-ta. Bere antzekoagoa egiten zara, berearen antzeko maitasuna guztientzat agertuten dozulako; berea urrezko euria lez guztiakana ixuriten da-ta. Beraz askozaz be geyago irabazten dozu, ez bakañik zeuretzat baita erabatera bestien alde be otoi dagizunian. Orixe da Jaungoikoaren benetako semia zu agertzia, bere yañaitzale ta bere maitea (Eph. 5, 1).

Etzaite, ba, añitu Kristok ez gura izatea *Ene Aita* esan geinken, *Geure Aita*

baño. Olan agindu dau, orenbestez bako-  
txa, erabatera egiñiko ainbeste onoimen  
edeñen bitartez, donoki-lufun gozoa lez  
batuta Jaunari eskiñirik, beretzat eskatu-  
ten dauana Jaungoikoagandik yadesteko  
gertuago egon leiten.

*III—atala*—Begira, olan guztien alde  
egiñiko otoi onen bidez arokeria gizonai  
kendu dautsela Kristok: ¿zein notin bikain,  
ba, zein lendakari ludian aurkituko da  
beste inor aurerantzian ezetsiko dauanik,  
guztiok aita baten semiak gareala gomu-  
tetan ba-da? (Malach. 2, 10). Bekaizkeria,  
bariz, kendu dautse; bakotxak bestien  
ona, beria lez bilatuten daualako. Baita  
bardingetasuna be; beretzat ana on besti-  
entzat bilatuten daualako. Areriotasunak  
kendu dauz; ¿zelan, ba, bere geidea anai-  
tzat artzen eztauana yoango da Jaungoi-  
koaren añera aren alde gauza ain aundiak  
eskatuteko, ta eztau Jaunak yaurtingo  
guzurtizat eta baita lotsabakotzat, miñean  
eztia erakusten dautselako, bictzean ede-  
na, lupua, eukirik? (Ps. 61, 5). Azkenik,  
eskubide arigaría emon dautse donoki  
osoa yadesteko, bere kristaen indaí guz-

tiak bat egiñik. Gudari asko argalak, bakotxak bakañik gudakatzen badau, bañ-egari dira; bañiz guztiak batera batzanduta ikaragañiak dira (Judit.15, 4). Oregaitik gura izan dau Kristok kristañak, egunero otoi egitean, bakotxak bere alde bakañik otoi egin eztagian, guztiak bakotxentzat eta bakotxak guztientzat baño (Jac.5, 16), donokiari egiten yakon indañketa, oñenbestez, indañ aundikoa izan daiten (Eccles. 4, 10). Eta jotoikera ain edeñ au eztozula zuk onesten eta sañi eztarabilzula! (Judit. 5, 23).

*IV—atala*—Begira, era ain edeñian alkañi damotsogun laguntzak Goiko Aita-gandik gura dogun edozein on yadesteko gauza asko bada-be; baña askoz geyago dala Jesukristo gure anai nausiagandik yatoñkun laguntasun aundia, geure aldezkari maitatsu egiñik, gure aldez Aitari otoi-egitea on yakonian, guztiak batera baño berak bakañik geyago al dau-ta. Eta Jesukristoren laguntasun au be, otoi onetan Jaungoikoari *geure Aita* deituaz, irabazten dogu. ¿Eta zergaitik? Olantxe esanaz Jesukristo-ganako lotson, begirakun eta

adiguria agertuten doguzalako, Beretzat babañik Jaungoikoari *ene Aita* esateko aintza izten dogula. Au bide zuzenez Kristori bakañik yagoko (Math. 26, 42).

Egiz Jaungoikoari *ene Aita* deitutea Semakañaren eskubidea da. Etxe baten seme bakaña dana bakañik ibili leike bertan egun guztian esaten *ene Aita*. Baña, anai asko diran etxean, beañ lez itz-egiteko, ta batez-be guztiak batera itz-egiten badabe, ezin *gure Aita* baño besterik esan leikie. Kristo da Aitaren Semakaña, eta, beraz, ain lez itz-egiten Berari bakañik yagoko (Ps. 88, 27). Ezkara gu ez bigañen, ez irugañen ez laugañen, ez boskañen semeak be: Austin deunak iñoanez, ezkara senduak edo soñtuak, irazanak baño, eta irazanak lez, beste irazanakaz batera, itz-egin bíañ dogu, geure Egileari diñotsagula, *gure Aita*. Egia bada-be, onezaz ostian, kristañena dan beste semetasunera be añtuak gareala, baña Kristoren bitañtez aintzat añtuak gara. Bera izan da, yañaipide añigañiz, bera Aita Jaungoikoaren bakaldeñian bakaña izanik, bakaldeñi oñen yaubegailagun anai asko euki gura izan dauzan

arako seme aundia: eta augaitik gu seme-  
tzat artu gengizala bere Aitagandik ya-  
detsi dau, geu be bere bakaulkian beragaz  
ipiñi geinkezan. Onek, ba, beartu biar  
gaitu, bakotxak ain anai onari eskar-ona  
erakutsirik, Jaungoikoari *ene Aita* deitu-  
tea soñtzez zoñ yakon aintza berari bakañ-  
ik itxi *dagiyon*, eskañez be ostu gura  
eztautsogula; ainbat geyago eskar-malan  
be seme bakañak lez, ainbeste izanik, itz-  
egin ezin dogun ezkerro. Onek eztau esan  
gura, zuk zeure bakañean eta bakañaldian  
otoi egitean, zeure maitasuna zelanbait  
asazkatuteko, ezin zeinkiola zeure Jaun-  
goikoari *ene Aita* esan, edozein semek,  
beste anai batzuk eukiañen eta bakaña  
ez izan-añen, egin leiken lez. Baña aldi  
oñretan uleñtu ta ziñistu bear dozu, ez ego-  
kiro itz-dagizula, Jesukristori zoñ yakon  
itzal aundiari begiraturik: Onek, ba, Jaun-  
goikoagaz itz egitean, beti iñoan *ene Aita*,  
eta Jaungoiko onetzaz gizonakin itz-egi-  
tean, *ene Aita* edo *zuen Aita* iñoan, iñoz  
be etziñoan *gure Aita*. Oñegaitik zuk, añ  
zantañ oñek, Jaungoikoari *ene Aita* esan  
gura dautsazunian, Kristok lez, dirauke-



tzut olan egiterako bakotxian bayetza eskatu dagiozula, Beragaz olango begirune ta adiguria eukiteko ta berari bakañik aintza ain aundi ori soñtzez yagokala agertuteko, Semakaña dalako (Ps. 2, 7).

## V — G O G A Ñ T E A

«Donokian (goyetan) zagozana»

1. «Aita-gurea»ri zergaitik «goyetan zagozana» ezarten yakon. — Gogozko onak eskatu egiozuz, onerako bayatzuz ludikoak be emongo dautzuz - eta.—
2. Kristok «goikoa» baño «goyetan zagozana» otoi onetan gurago izan dau, gogoa beintzat yaso daigun.—
3. Baita geure itxaropena biztuteko be, Jauna an goyan guztiok yagoten begira dago -ta—
4. Otoikera onen bidez maitasuna be ixiotuten da.

*I—atala.* — Begira auñeko gogañtietan ezautuerazo dogun Aita ain argia, egiz ezin luditaña izan leitekeala; baña obeto ta argiroago ludikoakandik berezitzeko, *Aita gurea* esandakoan, bereala *goyetan*

(*donokian*) *zagozana* geitu beaŕ dogula. ¿Eta zetarako? ¿Beaŕ ba, alako asikera ain argitsu-bidez, ondogurea irabasteko ete da? Ez beintzat; aitagaz izketan diñaŕdugunian, itz-edeŕkayok eztira beaŕ. Egin beaŕ dogu donoki-aitagaz itz-dagigun gomutia geugan biztuteko, ta, beraz, eztautsaguz, beintzat geure gurarien azken-elburutzat, eskatu biar, Aita ain bikain ta aundiari eskatuteko egokiak diran gauzak baño (Col. 3,1). ¿Eguzkiari, adimena baleuka, basamatsak, ziriak, eŕatzak ala abaŕ ziztriñak eskatuko bazeunskioz, ez ete zeunskio irain aundia egingo? Egia da gizonai onen bat dakaŕkioen gauzok berak soŕtuerazoak dirala ezagutu beaŕ dozula; baña eguzkiari zeure eskariak erakutsi beaŕ bazeunskioz, lorak, garia, uŕea, altiste ta aŕi-edeŕ onenak eskatuko zeunskioz, bere emokairik egokienak onexek dira-ta.

Baŕdin, ba, ludiko igazkoŕ guztiak Jaungoikoagandik bayatoŕkuz be, Bera dan lez erabili gura badozu, eztautsazuz, zaldiak eta txakuŕak, itz-egingo baleuskioe, eskatuko leuskioezan onak

eskatu bear; Berak emon gura dautzuzanak bakañik, gogoaren on guztiak eskatu bear dautsazuz; bestiak, onerako bayatzuz, eskatu barik be emongo dautzuz-eta (Mat. 6,33).

Zeure Aita ain aundiari egin daroatsozuzan eskabidietan ¿zelango itzeikera darabilzu? ¿Bera dana lez, goiko Aita lez, arñtu daroazu? ¡Zein lotsagañia Aita ain aundiari ezerezkeriak eskatutea, ziñiste bakoa baziña lez! ¡Aita ain yakintsuari gauza ain txaldan eta zoroak! ¡Aita ain deunari gauza txañak eskatu! Irain aundiagoa egiten dautsazu, bakaldun aundi bati kolkoa satzez ta zaramaz bete leizula eske-ta-eske baziñoakioz egingo zeunskiona baño.

*II—atala.*—Begira Donokiko Aitari bere aunditasunari yagokozan onak baño eztautsaguzala eskatu biar gomutarazoteko, naikoa izango zala, dei-egitean, esan gengiola: *Gure Aita* ta beriala geitu gengiala *goikoa*; geyeneian daroan izena orixe da-ta (Mat. 6,26). Baña Kristok *goikoaren* ordez, *goyetan zagozana* esan gengian gura izan dau. ¿Eta zergaitik?

Bizi garean ludi-zati onetatik gogoa bizi-roago, egazka baten lez, bereala igaro dagigun, Jaungoikoa bizi dala irudituten garian yauregia dagon donoki goratuaren zati gorenera. (Ps. 122, 1). Eztago iñor Jaungoikoa edonon baidin dagoala ezta-kianik: «Bera dago zelayetan, mendietan, itxasoetan eta baita ludi-baúko leizetan be» (Ps. 138,8), baña egokiago esan daroagu goyetan, donokian dagoala (Ps. 2, 4). Gure gogoa, ba, bizirik dagon gorputzaren zatirik txikienian egonañen, berarizko eran buru ta biotzean dagola esaten dan lez, euretan bere egikun berezienak eragin daroazalako; biotzean bizitzaren askunean lez, eta buruan adimenaren askunean lez; olantxe Jaungoikoa ludiaren edozein zatirik txikienian be guztia egonañen, oraitiño be egokiago esaten da goyetan dagoala, ortzean eta donokian; bere egikun berezienak antxe dagizalako: ortze-goyetan, ludi-izatezko mañaren yabe lez; eta donokigoyetan, gizazganetiko mañaren yaube lez (Deut. 33,27). Baña gure gogoa gorputz-baúan, bere etxian lez, saítuta dago,

Jaungoikoa, bañiz, ludi bañuan sañtuta eztago. Ara baña, ezin esan leiteken eraz, gu, geure aitukera kazkañean, euren bañuan sañtuta dagoala irudituten garean une zabal-zabalak, beragan daukaz ta guztiak neurñgeki goitu ta igaroten dauz (Ps. 8,2).

Auxe da, ba, auñenengo egin beañ dozuna, otoi-egiterakoan, luditik zeure gogoa, ziñiste biziaz, al dozun goren yaso: au da, ez bakañik goi izañaturaño, zure Aita aundiak, ludi-oñtzetako Jauna lez, laguntzarik garbienak eta onenak luñera bialduten dauzan izañetaraño, baita ainbeste gotzon eta gongotzon eta autetsi deunen osteak zorion dagiazan eta Bera donoki-Jauna lez laguntzen donoki-goyetaraño be: orixe da, ba, zuretzat be gerturik daukan bizitokia, obenez, eñuz, galduten ezpadozu.—Augaitik Kristok, otoi-egitean, begiak gora yaso eroazan (Jo. 17, 2), guri erakusteko zeinbat geyago gu eñukañiok iruditu beañ garean, gure Aita donoki-goitik entzuten daukagula; egiten dautsaguzan eskarietan, gure gogoa luditik aldendu dagigun, gorputza orain ezin dogun - ezkerro. Augaitik auñenengo ez

eban Kristok gura izan *Gure aita goikoa* emen esan gengian, *Goyetan* edo *donokian zagozan gure aita baño*, tokiaren aurrean egoteaz gure ziñismena bizkoitu gengian, *otoyaren* asterakoan Jaungoikoa dagola ta an goyan dagola ziñistuteko, bere bakaulkitik, Aita maitatsua lez, guri entzuteko (Ps. 10, 5).

*III—atala.* Begira, Kristok *Goyetan zagozan gure Aita* esan daiten, *Aita goikoa* baño gurago izan dauala, ez bakañik ziñispena biziroago iratzaítuteko, esan danez, baita ziñispenaz batera, otoyen ain beaña dan itxopena bizkoítuteko be. Egia da itxopena berez beti doyala gauza zail, goratu ta goyenetara; eztira, ba, gauza maiz ta eñazak itxaroten, eukitzat dagoz-ta (Rom. 8,34). Otoi onetan Jaunari gauza ain aundiak eskatu beañ dautsazuzanez-kero, guztiz asko indartuten zaitu donoki goyenean iruditutiak; oñenbestez eskua emonaz bakañik tokirik goratuenetara beragaz eroan zeinkezala uste dozu-ta (Ps. 17-19).

Bañiz, ez egidazu esan, *biañ-ba*, Bera an goyan eta zu emen bian egonik,

bere ikusbegitik aldenduko zatxakozala, ainbeste lagun zeu baño obien artean bizi, zariala-ta. Orixegaitik, ba, itxaron bialdozu etzaituala bere ikusbegitik galduko, Bera ain goyan dagoalako. Eguzkia ain goyan dagoalako, eztago ludian inor bere on eta zirargiak artu al izatia uste eztabenik. Eguzkia ludian bakara izan-aren, ezta ardura, bakotxak bere zatia izango dau; andik ardura bardiñaz begiratuten dauz ezin esan-ala palmondo, albo nekosta eta abar, nai euren artean, eraldoi askoren artean gizon epo edo txikar bat lez, ain gitxi agiri dan lora txiki bat (Eccli. 42, 16).

¿Zergaitik, ba, erukari ori, gizon begiragarri ta aundien neurgetasun ain aundi oretan Jaungoikoak begiratu ta ikusiko ez ete zaituen bildur zara? Askoz obeto begiztatuten zaitu, arako loratxua, ainbeste zugatz aundiren artean, eguzkiak baño. Ara geyago, eguzkiak ainbeste zugatzeri bere laguntasuna emon-aren, lortxu ari, ludian bere indar ta zirargiak ezariteko, beste ezer ez bai-leuka, guztia emon barik izten eztauan lez; alantxe zeugaz egingo dau Jaungoikoak, zeuk,

zeure aldetik, galazopenen bak ipinten ezpadautsozu. Oregaitik, *goyetan zagozana* diñotsazunian, uste ona euki biar dozu; eztau ba alpeñik gura, zuk an donokian iruditu dagizun eta ez txadonan *elizan* itxita lez, yudeatañen artean oste zeak uste eben lez, otoi egiteko beti txadonera bere bila yoan beañ zala.—Ezta ori beaña: goyetan daukazu, toki agirian, zabalían eta ondo goratuan, bertatik entzungo dautzu, gura dozun tokitik, nai zelayetatik nai mendietatik, nai arainosinetatik, nai itxasoetatik, nai baratzetatik, nai basoetatik: asko da andixek dei-egitea (Ps. 56, 3). Bera, ba, ez bakañik eguzkian, baita eguzki ganetik amaibarik gorago be egonik, edozein aldetik aurrean eukiko etzaituan bilduñik eztago, eguzkiak zaukazan baño askoz obeto (Ps. 32, 13).

Oraindiño geyago be badago. Ain goyan dagolako, gura dauan guztia azke ikusi daroan lez, guk toki goi-goitik egiten dogun antzera; bañdin guztia dagike. ¿Eta zegaitik? Bera baño goragokorik eztalako. Zure Aita goyetan dago, ta an guztia zuzenduten dago. ¿Zegaitik, ba,



zingeak lez, ain zorakeri aundiz uste izango dozuz izařen arpegikera kaltekořak? —Oso bestera (Jer. 10, 2). Zure aita ain aundia toki ain goratuan dago-ta, bigařen egikariak deritxoenak, adimen guztiak, izař guztiak, beragoko almen guztiak bere eskuan eta menpian daukaz: ĩzein onetarikok bere asmo ta erabagia galarazo legikeoz, berak zoriondu gura bazaitu? Iñok bez. *Guztiak dagoz, Jauna, zure agindupian, eta Ixařel gaizkatzea erabagi badozu* (iñoan Mardokeok), *ezingo dautzu iñok galarazo, ez zure gureari eutsin dagikeo* (Esther. 13, 9). Eta auxe da, itz gitxitan, Jaungoikoari diñotsazuna, *Aita gurea, donokian zagozana*, diñozun bakotxian.

*IV—atala.*—Begira esakera onek, ziñispen eta itxopenaz batera, goimaitasuna biztuteko indařa be bai-daukala: zuk, ba, oarpen apur bat az zein dan zure Aita aundia bizi dan tokia emen aitaturik, bere zoriontasun zuzenaren atsegin guztizkoa biotzian ez sořtutea, ezin izan leite. Ezta iñoz esaten bakaldun bat ez-ezauna dan urian bizi dala: bakaldurian lez dagoala,

erri adiguritsuak ezautua, maitatua ta onetsia dan aretan bakarrik esan doya. Jakiña da zure aita aundia gaudi guztiko bakalduna dala, ta ludian donokian lez bizi dala; baña ludian ez-ezauna lez dagola esan leite, bere yabetasunari zor yakozan adiguri ain gitxi artu daroa-ta. Eta oregaitik emen eztala bizi iya esan leite. ¡Donokian, bai, ezaututen dabela, Bera dana lez! (Jer. 31, 34). Eta, beraz, *donokian, goyetan zagozana* diñotsazunian, aitu beari dozu diñotsazula: *ezautua, maitatua, goretsia, goraldua, ta aintzaldua zagozana*. Eta ori esatean jai zein aundia izango dan zeure poza be! Egia da, seme atzeriratua lez, bizi zarian luditik dagon bitarte aundia neuriturik, uso-egoak eukiteko gurea etoriko yatzula, ara gora egaz egin eta Aita laztanagaz itz-egiteko; baña eztozuz eukiko. ¿Zer dagikezu orduan, atsekabetu baño ta zeure baiuan leyatsu esar: *¡Ai nok emon legikedan nik bera ondo ezagutzea ta idorotea, ta bere aulkiraño eldutea!* (Job. 23, 3). Baña, ezta ardura; au be maitasunaren egintza izango da-ta; berau izango da zure otoyá

ondo entzutera Jauna biartuko dauana.

Bere aita bakaulki goratuan dakusan bakaldunaren seme txikitxoak, maña aretatik beingoan aulki atara igo gura leuke, bere besoetan yartzeko, baña oretarako indarik eztaukalako zer egin daroa? Negarez asi, ta onenbestez gura dauana yadesten dau ta pozik geratuten da: negar-egiñaz aita, laztan-emotera, yatzierazo dau-ta. Bardin egingo dautzu Jaungoikoak. Zure Aita ain goyan eta zeu ain beyan ikusteaz ixuriko dozuzan negaren bidez, maitasunez yatzi ta makuñtu dakizun ta, beragana batuta, laztan bat emon dagizun, ariketa, seme azia zariala bere aulkian yezarteko ta beragaz bakaldun izateko aldia elduten dan arte.

## VI—GOGARTEA

Donetsi bedi zure izena

1. *Aitari on yakona eskatu bear dozu: «bere izena donetsi daitela», ta eskari au beste guztien elburu izan bedi. Egintza guztietan otoi labur au biotz barutik esaizu.—2. Jaunak on guztiak ber-be-*

*ragan daukaz; baña atetiko ona, bere aintza, gugandik gura dau, eta gogoken deuntasuna yako.—3. Bera ez-eze baita bere izena be goralduta ikusi gura dogu, eta bere izen guztietan.—4. Seme onak bere aita iñok baño geyago goraldugura leuke, baña guztiak goretsi dagien oindiño geyago gura izan biar dau, bestiak goستن dabelako pozturik. Baña Jaunak gugandik, geu barik, eztau ezer gura.*

*I—atala.* — Begira, Jaungoikoari otoi onetan Aita deituten dautsozun-etzkeron, egiten dozuzan eskari guztietan, seme ona lez zabilzala agertuten beartua zagozala. Aurenengo, ba, Aita biotzez maitetan dauan seme on eta yakintsuak, bere aita-ren onerako dana baño zer besterik gura izan legike? Oregaitik, Goiko Aitari bere onerako dana baño lenago, eztautsozu ezer eskatu biar: au da *bere izena donetsi daitela*. Otoi oso onetan Jaunari egiten dautsogun eskaririk onena auxe da. Emen, ba, geure onari yaramonik egin barik, Jaungoikoa ber-beragaitik maite dogu, eztoгу maitatzetik etori leikigun onagaitik

maitetuten. Baña eskari au auñenengo ipinten da, gero datoza beste eskarien elburua be berau izan beař dala uleřtu dagigun. Jaungoikoari eskatuten badautsogu bere ala (eñeña) datořkigula, bere gurea egin dedila, egunoroko ogia emon dagigula, gure zořak azketsi (parkatu) dagiguzala ta abař, ĩzergaitik eskatu biař dautsagu au guztiau, azken elburua lez? ĩGeure onagaitik ete da? Ez beintzat, bereagaitik baño. Auxe da seme ona lez ibiltea.

Ez egin itxasotik yayota, beragandik ařtuten daben ur guztia loikiro eusten daben aintzirak lez; ordañez lez biuřtuten dautsen ibayak lez baño. Begira, ba, beař dan ontasunez eskari au egiteko, gař-gotzon (serafin) baten biotza beař izango leitekela: onek, ba, Jaungoikoa Jaungoikoaren maite dau, ta maitatzean ezta bestegaitik poztuten, maitatze ořek, azkenez, Jaungoikoaren aintzari on dagiolako baño. Etzara gař-gotzona, baña orixe gura izan beař dozu; eta ĩzelan? eskari ořetako otoi labuř ori egun osoko egintza guztietan biotz-bařutik yauřtiten dozula: *Donetsi*

*bedi zure izena.* Maitasunezko gezi onen indaréz eskiñiten dautsozun edozer Jaunari bañdin gogoko yako, naiz aldintsuena naiz onespen gitxikoena izan. — *Ene ez-kona,* (diñotso Abestietan) *biotza zauritu daustazu zeure begi batatz* (ori da onesgarriena) *ta zeure ule bategaz* (ori da onespen gitxikoena) (Cant. 4,9).

*II—atala.*—Begira, eztala Jaungoikoa gai Beragan onik arean geituteko, Bera guztietan aberats da-ta. Beragandik-ate bakañik zelanbait artu legike. Au, bañiz, bere aintza bakañik da. Guztiz zuzen, ba, elburu onetarako ludian ipiñi gauz, Berak esan eban lez: *Ene aintzarako irazan dot, eraldu dot eta egin dot* (Is. 43, 7): *irazan dot* gogoari yagokon aldetik, *eraldu dot* gorputzari yagokonez, eta *egin dot* gorputz eta gogoaren batzatic datoñen osotasun bikañari yagokonez; eta bañdin gura dau dagiguzan lankizun guztien elburua bere aintza izan daiten: edozein egilek bere lanakin bestiai egiten dautsen on guztiaren elburua bere aintza izan daiten zuzen gura dauan lez. ¿Geure omen eta aintzarako ezer guk egitea on-

do ete legoke? Ez beintzat: guzti-guztia Jaungoikoaren aintzarako ta aintzarik gorenerako. *Zuretzat, Jauna, zuzentasuna* (aintza esan gura dau) *eta guretzat arpegiko lotsakizuna* iñoan Daniel iragarliak (Dan. 9, 7). Beti zuzenez zoñ yakon aintza au (augaitik deritxo zuzentasuna) da emen Berari eskatuten dautsaguna, bear lez emon dagiogun Berak egin dagike-ta.

Baña eztautsogu (egin geinken lez) goralpenaren izenaz, deuntasunaren izenaz baño eskatuten, gogokoen yakon aintza auxe dalako. *Deuna, Deuna, Deuna da gudarostien Jauna*, gar-gotzonak batera deadañ egiten eben; eta arek Donokian goresten dabena, ludian guztiak bañdin deadañ dagienian, ezta besterik bear ludi guztia Jaunaren aintzaz beterik egoteko (Is. 6, 3). Bitarñtean *donetsi* itz onek Idazti deunean ikuñ edo esangura bi daukazala yakin egikezu. Lenengoan, Jaungoikoak larunbat - eguna donetsi ebala esan doya (Gen. 2. 3), beretzat berezi ta yagon ebalako. Bigarñen esangurean Jau-nak egun ori donetsi leitela agindu ebala

esan doya (Exod. 20, 8), bere eguna lez ta deuntzat erabili ta begiratuerao ebalako. Orain ba, Jaungoikoaren izena ezin donetsi leite lenengo ikuŕpenean, berez dan baño deunagoa ezin izan leitekkelako; amai-barik deuna da-ta (Luc. 1, 49). Bigarren ikuŕ edo esangurean bakarik donetsi leite. ¿Eta zelan? Len larunbata, ta orain igandia ta beste edozein egun Jaungoikoari opalduriko donetsi daiten gura dauan lez. Egunok donesten dira, aurenengo, esku-lanez ala ez-egokiz ala obenezkoz loitutetik alde-egiñaz: ori da donekuntza ezezko utsa (Is. 56, 2). Orezaz ganera donesten dira uskuŕtz-egintza batzuen bidez, ta ori egizko donekuntza da. Bardin, Jaungoikoari bere izena donetsi daitela eskatuten dautsogunian, lenengo eskatuten dautsagu eztagiala bere izen deuna loituten laketu edo itxi; au da, irainduten eta isekatuten itxi, ainbeste zinne-bakok egin daroenez, Jainko-izena ariyai, ta enboŕai ta gaiztokiko (*inpernuko*) gokaiztorik (diabrurik) loyenai emoten dautsela; eta kristaŕ artean be ainbestek egin daroenez, gokaiztoak lez biraotuten



dabenian. Órezaz ostian, baita eskatuten dautsagu uskuítz - egintzaz egiz onetsia izan daitela, batez-be guípen eta maitasun eta gorespen gorenez.

Begira, ba, zeinbat obeto diñotsagun: *donetsi bedi* esanaz, *goretsi*, ala *aguítu*, ala *andietsi*, ala *goraldu* esanaz baño. Itz bakañian guzti ori diñotsagu, ta órezaz ostian Jaunaren gogokoenak diran itzakaz. *Abestu egiozuz Jaunari gorespenak*, diño Dabid-ek, eta *ospatu*, batez-be, bere *deuntasunaren gomutapenak*; ez bere *almenarenak*, ez bere *arduratasunarenak*, bere *deuntasunarenak* baño (Ps. 29, 5).

*III—atala.*—Begira, zer-dala-ta eztautsagun emen Jaungoikoari eskatuten Bera donetsia izan daitela, ta bai bere izena. ¿Ez ete da gura izan bíañ, aitatu doguzan era gustietan goraldua izan daiten Jaungoikoa ber-beragan, eta bere izenian baño geyago? Bai beintzat (Is. 5, 16). Baña augaitik, Jaungoikoa bere izenian goraldua izan daiten ainbeste gura dauanak, ber-beragan goretsia izan daiten gurea askoz geyago agertuten dau. Óraitño be, eztogu, *donetsia izan zaite* esaten, *Zure*



*izena donetsi bedi* baño; seme on batek ez bakarrik ezin eroan legike bere aita irainduta ikustia ber-beragan, ezta bere izenian be (Ps. 85, 12). Baitz notin bati emoten yakozan gorespenak geyenetan bere izen eta entzuteari yagokozanak izan doyaz. Aundi ta emolearen izena badauko, bere esku zabala gaitik gores-ten da; otzanaren izena badaroa, bere otzantasuna dala-ta goresten da, eta abar: oregaitik Jaungoikoari gura dautsagunian bere izena Beragan goraldua izan daiten, edo Bera bere izenian, eztogu gura edo-ze lan goraldua izan daiten, berak dauka-zan izen ain bikain guztien erabidez ba-ño, altsua, arduratsua, zuzen, ona, eruki-tsua, deuna ta abar dalako (Ps. 82, 19). Augaitik etzan Dabid asetu esanaz: *Jaun-ari aintza emon egiozue*, ta ezañi eu-tsan; *bere izenari aintza emon egiozue*: baliño lez, bere izenari zor yakon aintza emoyozue (Ps. 28, 2).

Egia da eztautsagula oregaitik esan bial, donetsi bedi zure izen altsua, zure izen zuzena, zure izen yakintsua; bakarrik *zure izena* baño. ¿Eta zegaitik? Bere

izena dala yakitea, edozein dala, asko izan bear' yaku, goretsia izan daiten gura izateko ta eskatuteko. Jaungoikoa goraldua izan daiten gura dozunian, bere izen altsu ala arduratsu ala emolea dan era bidez, izan daiteke aintzat goraldua izan daiten zuk gura izatea, ain lez egin dautzuzan onurari begiratuta. Baña eskari onetan, zeure burua osoro aztu bear' dozu, eta, beraz, bere izena donetsi daitela esan bear' dautsazu; au da, bere izena, berea danez, ezer geituteko ardurarik euki barik.

Auxe da bere aita ta beronen izena be, bear' dan lez, maitatuten dakian seme ona lez ibiltea. *Zugan pozartuko dira, diño Dabid'ek, zure izena maite daben guztiak: zeugan, ez zure emoitzetan.* (Ps. 5, 12).

*IV—atala.*—Begira, seme maitaleak ez bakarik gura dabela gaitsu euren aitaren izena goraldua izan daiten, baita eurak, iñok baño geyago, goralduten dabenak be izan gura dabela (Ps. 21, 23). Beraz, zuk emen, zeure aita aundiari dautsazun maitasuna agertuteko, etzeunkiala esan

biar dirudi *donetsi bedi*, *zure izena*, *neuk donetsi dagidala*, *baño*; edo-ta geyenez, guztien izenian eskatu biar dan-ezkero, *zure izena donetsi dagigula*. Baña guztiz okei zagoz. Beti esan biar dozu *donetsi bedi*. ¿Zergaitik? Olantxe seme maitalea lez agertuko zarialako. Egia da seme maitaleak, berak iñok baño geyago, aitari aintza emon gura izan beai dautsala; baña ezta ori geyen gura izan beai dauana. Geyen gura izan biar dauana da, bere aita berak edo bestiak goraldu dagiela: lenengo berak, oretarako bururik badauka; osterantxian, beintzat bestiak. Eta, beraz, eztozu esan biar, *donetsi dagidala*, ez dagigula, eta bai bakarrik emen esan doyan lez, *donetsi bedi*, emen eskatuten dozuna geyen gura dozuna dala erakusteko. ¿Ez ete dakizu ezin zeinkiola Jaungoikoari aintza emon erabide berarizkoan, zeuri be omen aundia oitrik etxatoitzula? (Eccli. 3,13).

¿Zein eiaz, ba, zeure buruaren maitakeriak atzipetuta, zeure aitaren aintza bilatze oretan, zeurea bilatu zeinken! ¿zeinbat bidei Jaungoikoaren aintza-

ren biā zabilzala, zeure burua biā tuten dozun! Gura zeunke Jaungoikoa goraldueyan bakaía izan ludian, auñenengoa obendiak Jaunagana ekañten, lenengoa izkintzetan, lenengoa zeu irakasten, lenengoa zeu zuzentza-bidean, eta alde onetan bakaía garaipenez burua esituten, arako Kristoren ikasle ondiño yakingeak leze giñik, bere izenari aintza emoten bakaíak izan gura ebenian, beste batzuk izen oñen indaíez gokaiztoak (*diabruak*) gorputzetatik botatea txarñtat eroyela (Luc. 9, 49).

Eztozu olan egin biar, Kristok ikasleai beingoan agiraka egin eutsela gomutau baño. Egun guztian Jaunari esaten yañdun zaite: *Zure izena donetsi bedi*. Auxe da auñenengo gura izan biar dozuna, ez zeu izatea iñok baño geyago govesten dauana, bere izena guztiak goralduey dagiela baño, eta, beraz, orixe da batez-be eskatu biar dozuna. Emendik yayoten da zuk, biarba, zeure buruz ta indaíez Jaunari aintza emoteko al dozun guztia eginda, gura zeunken leze yazoten ezpayatzu, etzariala oñegaitik iñundu ta lotsatu bear, poztu zaite ludian

beste askok, zu baño gazteagoak izana-  
en, zure ordea egingo dabena badago-  
zalako, ta ordeztu zagiezan gura egikezu:  
Goretsi egizue Jauna gazteok, goretsi  
egizue Jaunaren izena (Ps. 112,1). Auxe  
da egiz Jaungoikoaren aintza bilatutea.

Bakañik dirudi Jaunari lenago esan bial-  
geunskiola: *Zure izena donetsi* egizu, ta  
*ez donetsi bedi*; Jaungoikoak bakañik zor-  
yakon aintza bere izenari emon legiyo-ta.  
Baña orixe be elegoke obeto esanda;  
Jaungoikoak goraldia izan gura badau,  
erabatera geure bidez izan gura dau, eta  
ez berez bakañik. Oregaitik ba, esan beañ  
dautsagu: *Donetsi bedi*; esakun oretan  
Bera ta geu sartuten gareala aiturik. Guk  
Bera barik ezer ezin geinke bere aintzara-  
ko, eta Jaungoikoak geure aldetik eztau,  
geu barik, ezer gura.

## VII — G O G A Ñ T E A

Zure ala (ereñua) betoñkigu

- 1 Alaren edo bakaldeñiaren (ereñua-  
ren) izenak zer adierazoten dauskun.—
2. Aitaren onaren ondoren seme onak

*yarauntsia edo etorkia bilatu beař dau.*

—3. *Jarauntsi ori bakaldeři izenez eskatu beař da. Eskatzen dogun bakaldeřia-  
ren ondoan luditafa ezereza da. — 4.*

*Etořkia ta gurea be izan-ařen, «zure ala  
betorkigu» esaten dogu, aitarena lez gura  
dogulako. — Geugan guztia Jaunaren*

*bakaldeři biurtu daitenian, Bera bakal-  
dun yakulako, geu bakaldun garealako  
baño lenago poztuko gara. — 5. Zelango*

*lagunak «Zure ala betorkigu» ezin arpe-  
gi onez esan leyoen. — 6. Dana dala, Aita  
gurea beti esan biař dozu. Otoi ori guz-*

*tien izenian egiten da-ta, maitasun-egin-  
tza dagizu, ta, uskurtz-egintza danez,  
Jainko-eřukia irabaziko dozu.*

*I—atala. (1) Begira, Jesukristok, «Zure  
ala (bakaldeřia) betorkigu» eskabidearen  
bidez, Jaungoikoaren aintza eragiteko bi-  
derik argiena ta orokařena eskatuten ira-  
katsi dauskula. Gauza guztien yaube go-  
rena dan Jaungoikoak bere bakaldeři (eře-  
ñu) irastea, eratutea, erabagi eban. Izan  
be, bakaldeři onen iraskundea lenengo*

---

(1) I atal au euskeraztu daunak geitu dautso.

atsegin - baratzan agiri ta erdi-ikusten da, arako ikuspen zoriontzuz Jaunaren pozean sartzeko eskubidea gizonari emoten eutsan gizaz-ganetiko goratasunian. Gerroago, bañiz, agiri da Abran'en eta Ixarengo eñiaren autespenean, alatzetan, Mesias'i yagokozan iragarpenetan, urtzikalean edo yaupari-yaurbidean; eta osotasun geyagora ekañten da Kristoren Doibatzen (*Elizan*), ludi-donokiak beragan artuten dauzan bakaldeñian, eta atzenez betikotasun zoriontsuan osotuten da. Jaungoikoa-gazko batze goitikoñera gizon bakotxa eldu daiten, gizakundeari erabidea emote-ko, guretzat ain ongañia ta Jainko-aintzarako guztiz egokia dan Jaunaren erabagia, orixe da, ba, Jaungoikoaren bakaldeñia (eñeñua). Beraz, Jaungoikoaren ala datoñkigula eskatuten dogunian, aintxiñako ziñalbenian (testamentuan) antziruditu, iragarpenetan agindu ta ospatu, eta Jesukristok era goragokoan bañizturiko bakaldeñi au geyago ta geyago geitu ta neuñi-barik azi ta zabaldu daiten gura dogu. Ludi guztja Jainko - bakaldeñiaren ezagutza biziro agertuten dauan antz eta



irudira arztezu daiten, au da, Jaungoikoak berak Idazti deunean iragari euskun bere bakaldeñiaren ezagutza ageri daiten, eragozpen guztiak kendu daitezala eskatuten dogu. Eskabide au, ba, guztiz zabal da, ta bertan erabatera non eta zelan Jaunaren izena egiz ta osoro donetsi doyan erakusten da. Eta Idazki deunean agiri dan Jainko - bakaldeñiaren adirazpen onen bidez, arako azalpen berezi ta bana batzuk eñaz alkar lotuten eta batera ekañten dira.

Batzuk, ba, Jainko-bakaldeña Jaungoikoa geugan onoinenen bitartez bakaldun dala, emen uleñtu daroe; beste batzuk, bañiz, Jesukristoren Doibatza (eliza) dala; beste batzuk, ludiaren amaya ta Kristoren bigañen etorkundia, une atantxe Jainko-bakaldeña osoro eralduteko. Badira batzuk (Krisostomo deunagaz) donokia ta betiko zoriona aituten dabena; eta beste batzuk (Jeronima deunagaz batera) ludi guztizat artuten dabe, bertan goteungiak *diabruak* agindu eztagian, edo Jaungoikoak, ez deungakeriak, gizon - artean agindu dagian.— Jainko-bakaldeñiaren ezagutza

osorako guztiok beařak ez ete dira? Guk, ba, *Zure ala betořkigu* esanaz, guztiok eta bakotxa uleřtuten doguz, otoi-dagianaren asmua, aldiaren eta gogaketaren erara, batera ala bestera geyago makuřtu-aren.

Azkenez, Jaungoikoari zoř yakon aintza gura izan dagiogun, eta geu bakaldeři ořetatik yausi ezkaitezana eta bai bařiz geyago ta geyago indařtu ta zabaldu daiten, otoi au saři egin beař da.

*II—atala.* Begira edozein seme onek, bere aitaren onaren uřengo, beria bilatu legikela ta biař dauala, ta, beste ezer baño lenago, onespene geyen zoř yakon yarauntsi edo etořkia, au da, semiari semia dalako zoř yakona (Rom. 8, 17). Auřenengo, edozein semek alegiñez yagon beař dauana auxe da. Augaitik, ba, Goiko Aitari bere izen deuna goraldua izan daitela esan-da, gero bereala «*zure ala betořkigu*» geitu geinken gura izan dau Jesukristo'k. Geure Aitaren goralpena bilatu ondoan, geure obarietan be oldoztu dagigula gauza zuzena izanik, eztoogu ezer gurari geyagoz ta ben-be-

nago bilatu biar geure yarauntsia edo etorkia yagotea baño; orixe da aitaren etxian elburutzat lez gura dana.

Etzaitez aritu olako etorkia Jaungoikoari ain sañi eskatuten dautsogulako. Goiko etorkia beste etorkien antzekoa ezta. Emen seme batek aitak geñtu dautson etorkia leyatsuegi gura baleu, bera gaitik elixakeo zoñ izango; ori aitaren eriotza gura izatea izango leiteke-ta. Baña gure Aita aundiak guretzat gertuta daukan goiko yarauntsia, olakoa ezta; au Jaungoikoa pozañtu ta ikustean, Beragaz bizitean dago-ta, etorkia emon dagigula eskatutea ta Beragaz betikotasunean egotea emon daigula eskatutea, bañdin da.

¿Eta etzara etorki ain bikañaz zaletuko? ¡Etoñkiaren aberatsa! (Ps. 15, 6). ¿Ezteritxazu benetan gaya dala beti eske egon zaitezcan? Baña eztogu eskatu biar geu bakaldeñi oñetara goyazala, berori datoñkigula baño. Etoñkiari yagokon aldetik ba, olantxe ibili gaitezcan; ez gatxakiozan auñeratu, bera etoñi ta eldu dakigun itxaron dagigun.

*III—atala.* Begira, izatez etorkia dan

ori, emen eskatu geinken gura izanik Kristok, erabatera bakaldeñiaren izenaz eskatu geinkean gura izan dauala, etoñki oñen bidezko onespina egin gengian. Etzaitez iruditu, ba, Jaungoikoaren ikuspen argia etoñkiz añtuten dogunian, ardura gixiko gauza bat añtuko dogunik; bañdiñik eztaukan bakaldeñi bat añtuko dogu, Jaungoikoarena berena dana; au da, betiko zoriona (Jac. 2,5). Ezin ludi onetan bakaldunaren zoriona baño aundiagorik begitandu dogu. Bakaldun izatea beste on guztiak pilotuten dauzan bizibidea deritxogu. Bakaldun danak gura dauan guztia dauka: txindia edo uñe ta zidaña gura izanezkero, txindia dauka: laguntza gura badau, laguntza dauka: opariak gura izanik, opariak daukaz: eresi ta abestiak gura dauzala, oñ daukaz eresi ta abestiak; eta beste gauza guztietan be bañdin. Eta olantxe Jaungoikoak bere aoz iragañi eban bakaldeña, Jeroboan'i ziñotsanian: *Bakaldeñira goratuko zaitudaz, eta bakaldun izango zara, opa ta gura dozun guztia daukazula* (3. Rog. 11, 37). Baña, batez be, bakaldunaren zorionik aundientzat

daukagu eři ta uri guztien yaun ta yabe izan eta eurok bere guraz erabiltea.

Oraitño be, -ludiko zorion au, ondo begiratu ezkerro, uts aundiduna da; ¿zein da, ba, gura leukezan guztiak daukazan bakalduna? ¿zeñek eztauz atseka-  
biak artuten, bere menpeko ta otseñen saldukero, yańkipen, matxiñada, agintza-  
uspen, estalikoak beintzat, dirala-ta? Benetako bakalduntza donokian bakańik idoroten da. Ludi onetan, ba, Jaungoikoa be-  
ra be, guztien benetako bakalduna izanañen, agintzauspen ez txikiak ikusi beañean auńkituten da. ¿Zeinbat guda, zeinbat ostetasun eztautsoe egiten bere semiak be, Satanas ilundien lenenkoyaz baturik? Donokian bakańik benetan bakaldun dala esan leite, bertan zorioneko guztiak emoten dautselako, beste aldetan zuzenak eurak be emoten eztautsen menpetze edo yoputz oso-osoa. Eta oindiño-  
kañen obeto bakaldun izango da, goteungearen (diabruaren) bakaldeńia guztiz su-  
zituta, bere arerio guztiak oinpian ipinten dauzanean, orduantxe bere semiakaz batera gentza osoan, betiko narotasunian

bakaldun izango da - ta (Isa. 52, 7).

Eta auxe da, batez - be, Jaungoikoari eskatuten dautsoguna *Zure ala betořkigu* diñotsagunian: Beragaz batera betiko egunetan, izařez-goitik, bakaldun izan eragingo dauskun arako zorion gorena eskatuten dautsogu; bertan, Jaungoikoa eukiaz, gura izan leitezana on guztiak eukiko doguz, eta gentza osoaren yaube izango gara, geure beko griña ta gurariak oinpian daukaguzala, ta bařdin go-teunge (diabru) ta sulezetařak be, Kristo, Epale gorenak, epaikunde egunian gure oinpian ipiņiko dauzalako, gure alde oguzi (esan) dagiazanian azken epaiko itzok: *Erduze, ene Aitaren onetsiok, eta ludia- ren askalditik gertu izan yatzuen bakaldeřia arřtu egizue.* (Mat. 25, 34).

*IV—atala.* Begira, aitatu dogun bakaldeřia Jaungoikoari eskatutean, *Betořkigu geure bakaldeřia*, dirudianez, esan giņeyola; bakaldeři ori, ba, Jainkoaren semeai lez yagokun etořkia bada, geurea lez eskatu giņeyola dirudi-ta. Baña, eztau Kristok olan gura izan: *Zure ala betořkigu* ta ez *geure ala betořkigu*, esan da-

giogun gura izan dau. Donokia Aita goikoaren bakaldeía ez-eze, baita seme-tzakoak gareanoena be izan-aíen, oíai-tiño be deuntasun eta osotasun geyagoz ibilteko, eztoгу geure bakaldeía lez, beria lez baño, gura izan biar. Auxe da, Aita obeto goresteko batez-be, ta ez norberen onura ta ogasunakaitik etoíkia gura daben seme zindoak lez ibiltea.

Emendik ateraten da Jaungoikoari *Zure ala betoíkigu* diñotsazunian, zeure itua, zeure begikuna, ipiñi biar dozula arako Jaungoikoa zeugan azke bakaldun izango dan bakaldeíi atan: au da, zeugan Jaunari yaíkiten yakon ezer geldituten eztanian, menpetu bagako ezer geratzen etxakonian, guztia berea zatxakozanian, beria miñagaz, berea guramenaz, berea adimenaz, ta, azkenik, berea zeure edozein zati txikienaz be (Mich. 4, 7).

Auxe da zorionekoak donokian dauken atsegiña, eurak bakaldun diran baño geyago Jaungoikoa eurakan bakaldun dalako. Eta augaitik Jesukristori bere odolaren bidez irabazi eutsen zorionaren eskeñak egiten dautsoezanian, guztiak batera diño-

tsoe: *Zeure odolaren bidez beñerosi ginduzuzan eta geure Jaungoikoarentzat bakaldeñi ta yaupari egin ginduzuzan, eta ludi-ganean bakaldun izango gara.* (Apoc. 5, 10). Lenengo eskañak dagioez, Jaungoikoarentzat bakaldeñi egin dauzalako; au da, eurakan Jaungoikoa bakaldun osoro izango dalako, eta gero bakaldun yaupariak, eñi autuaren bakaldun guztiak ziran lez; au da, urzko kedats-ontzietan betiko gorespennen kedatsa beti eskiñiko dautsoen bakaldunak, ludian bakaldun izango diran yaupariak; au da, Jaungoikoagaz batera betiko egunetan oinpian eukiko daben guztiaren bakaldun.

Ikusten dozu, ba, zorionekoak lenengo poztuten dirala Jaungoikoaren bakaldeñi diralako, eta gero bigañen mañan poztuten dirala Jaunagaz batera bakaldun diralako. Donokian eurak yagoten daben bide ori, ludian zuk yagon beañ dozu. Arek askoz geyago atseginduten dira Jaungoikoaren bakaldeñi diralako, bakaldunak diralako baño, eta oñegaitik Jaungoikoari eskari au daroakozun bakotxian eta *Zure ala betoñkigu* diñotsazunian, askosaz ge-



yago gura izan bear dozu, zeugan guztiz agindutera eldu daiten Jauna, zeu Beragaz bakaldun izatera eldutia baño.

*V—atala.* Begira, ludi onetan era bitako lagunak ezin leyoela, bestiak lez, arpegi onez Jaungoikoari esan: *Zure ala betorkigu.* Lenengo obendi setatsuak, ta gero maitasun lařegiz bizitz ilkor au maite daben zuzen ez-osoak.

Itzok ezin esan legikiez obendi setatsuak, ęzer besterik eskatuten dautsoe, ba, bere bakaldeřia etori daitela eskatutean, euren azken eta betiko galpena baño? Egi utza da Jaungoikoa bakaldun izango dala betiko egunetan, ez bakarrik zuzenena, baita obendiena be (Ps. 46, 9). Baņa ez era bařdiņez. Zuzenen bakaldun donokian izango da, deungiena, bařiz, gaiztokian, sulezean. Olan, ba, zuzenak Jaungoikoaren bakaldeřia izango dira, bakaldun maitatsua lez eurakan aginduko daualako, beragandik artuko burestunak bere bakaulki - auřean alkařen leyan, yaurtiten dabezan ainbeste bakaldungan lez. Deungak, bařiz, Jaungoikoaren bakaldeřia izango dira, eurakan bakaldun guztiz zor-

otza lez aginduko daualako: Betiko espe-  
txera, sulezera, beste ainbeste yopu lez,  
epaipeturik, suzko lokañi ta estuntzak  
astinduten alpeñik indañ - dagie, aika ta  
amuñuz bizia kendu gura, ta ezingo dabela.

Begira, ba, deunga setatsuak Jaungoi-  
koari *Zure ala betoñkigu* esatean, eurak  
oañtu barik, eurentzat zer eskatu daroen.  
Eskatuten dabe, ondo irabazita dauken  
betiko yoputza gogoña, gaiztokiko leiza  
sakonetan, etoñi dakiyoela (Amos. 5, 18).

Bigañengo, itzok ezin esan legikiez bizitz  
ilkoñ au zalekeriz maite daben lagun zu-  
zen ez-osoak. ¿Zelango arpegiz Jaunari  
eskatu leyoe bere bakaldeña etoñi dai-  
tela, euren biotza ain txañto gertua euki-  
ta, iya esan leitekela donokia pozik itxi-  
ko leukiela, baldin ludi ziztrin onetan be-  
tiko egunetan biotz onez geldituten, Jau-  
nak laketuko baleutsoe?

Beraz, *Aita gurea* esatean, zeure bañ-  
uan apuñ bat gogañtu egizu zein egokeran  
idoroten ete zarian, Jaungoikoari bere  
bakaldeña datoñela diñotsazunian. Eta  
oben lañian auñkituten bazara, bilduñtu ta  
ikaratu zaitez, galbide aundia daukazu-

lako, bakalderi ori baletor (Luc. 10, 9). Eta ludiko gauzetara geyegi iratzita bazagoz, bidebako zalekeri ori kenduten alegindu zaitez. ¿Zelan, ba, izan leike korta ala txabola bat az (ludia donokiaren aldean ainbeste izatera elduten bada) ain zaletua egotia, bizitoki ain kaskar ori ez izatearen, beste uruneko eri batera, etorkiz yagotzun bakalderi aundi bat artuteko, yoan gura ez izateraño? Ludi onetan ez edozelango yaun argi edo bazter askodun bat, bakaldun bikañenetariko bat bazintzake be, zeure baruan esan biar dozu Kristok inoana: *Ene bakalderia ezta ludi onetako.* Ez inoan eztago ludi onetan, ezta ludi onetako baño (Jo, 18, 36). Bizitoki au ta bestia bere bakalderiari bardin bayagokozan be, eta bardin biyen bakalduna bazan-be; baña ludi onetako bakaldun izateari yaramonik ez eutsan egiten, eta oregaitik bere bakalderi au angoa zala, ta ez emengoa, inoan: ludiko bakalderitik ez ebazan Kristok bere atsegiñak ateraten, bai bariz goikotik (Ibid).

Olan egitera ekanduten bazara, zeure goiko Aitari biotz beroz esan ziñeikeo-

zuz, bai bizitzan ta bai eriotzaldian, itz edeñok: *Zure ala betoñkigu*. Bizi zarian aítian, Jaungoikoaren bakaldeñi ori zeuretzat etoñi daiten gura dozula, bestientzat elduten dan lez. Eriotzaldian, biotz beroz ondo-etoñia emonik, ain urian ikus-tean, iya bakaldeñi ori zuretzat eldu dalako.

*VI—atala*. Begira, oben lañia ta bizi zarian ludi kaskañ onen zalekeria zeugandik yauñtitera eldu ezpazara-be, eztozula oñegaitik uste izan bíañ, oñelako egoeren baten idoroten zarian bitañtean, *Aita gurea* itxi beañko dozunik; otoi ori zuretzak gauza-eza ala ez-egokia yatzula deritxazula-ta. Lenengo, otoi ori guztien izenean, ez zurean bakañik, egiten dozu: ta oñenbestez ez-egokitasunik eztago: on ori, ba, ezin zeuretzat eskatu zeinkela ezagututen badozu be, bestientzat eskatuten dautsazu: ta oñetan maitasun-egintza dagizu. Gero, otoi ori egiñaz, aoz beintzat otoi dagizu, ta olan maitasun-egintza ez-eze, baita azalekoa beintzat dan uskuñtz - egintza be: ta egintza au, lagun yainkotiañentzat eñaz ta biguna izan-añen,

yaunzale-eztiranientzat neketsu ta gogai-kaña da.

Emendik datoñ olako otoyā, aldioetan, eztala zuretzat gauza-eza ta onura-bakoa, Jaunari gogokoa yakon olako uskuñtzegintzaz, aozkoa bakañik izan-añen, bultzatu zeinkelako eskañ eragilea emon dagizun, egoera eñukañi oñetatik urten-da, añpegi onez zeuk be esateko, bestientzat ez-eze, zeuretzat be: *Zure ala betoñkigu.*

## VIII—GOGAÑTEA

Egin bedi zure gurea (naya) donokian lez,  
ludian be

1. *Eskari onetan zer eskatuten dogun. Semiak aitaren yarauntsia, beronen gurea egiñaz irabazi beañ dau; baita beragan aitaren erabagiak bete daitazan be gura izan beañ dau.—2. Gura bioetariko bakotza zertan dagon.—Donoki yarauntsia irabasteko kristañ-onoi-men guztiak beañ dira: ta guztiak Jainko-naya egiñaz beteten dira:—3. Lenengo ikuñpenean (esan-gurean) itzok aotan erabiltea zein zuzena dan.—*

4. *Baita bigarren ikurpenean-be, aitaren omenerako ta geure onerako.*—5. *Gura biyok gora aundikoak dira, ta osotasunik aundienaz egin bear dira.*—Zelan egin daroen donokitarak.

*I—atala.* (1) Begira, eskari onetan Jaungoikoaren bakalderia osoro etorri dakigun bidea dana eskatuten irakasten yakula. Donokian Jaunaren gura onespen-tsua ta ongilea gotzon (aingeru) eta deunetan oso betea agiri da; Jaungoikoak aurrez autetsi eutsen zorionera eldu ziran-da, eurakandik artu gura izan eban aintza artuten dau, ta, beraz, eurak Jaunaren bakalderi aintzatsua egin daroe. Eskatuten doguna, ba, auxe da: Jaungoikoaren gurea eurekan egitez beteta agiri dan lez, ludian be bidaztiak garianokan bere gura agintzale ta onularia egin daitela: Berak, bere laguntza altsu ta eskaez, bere onu osasuntsuak eta bere onespena gizonak edonon bete dagiyen, begiratu dagiala. Gotzon (aingeru) eta deunak atsegiñik

---

(1) Lenengo atalari aurrenengo txatala geitu yako.

aundienaz Jaungoikoari batzanduta dagoz: beraz, geu be Jaunaren gureari laster ta pozik batu gakiozala eskatuten dogu. Jaunaren esana pozik aundienaz dagien goztonak yaraipidetzat ipinten yakuz. Austin deunak diño: «Donokian dagozan goztonakan, Zeugaz guztiz batuta atsegindu daitezcan zure gurea (naya) dan lez, euren yakintza iñolako utsez lañotu barik, iñolako nekez euren zoriona galarazoten ez-tala; zeure deunetan be ludian olantxe egin bedi»:

Begira, ba, orain, edozein semek yarauntzia zuzenez gura dauala; baña itunben onen bitartez: berak aitari nozian bein egin bea dautsazan adigurietan uri ibili-ta galduten ezpadau, bai osterira irabazi aren gurapean edozetan dagoala. Augaitik goiko aitari bere ala datořkigula esan ondoren, otoi ořen bidez yarauntsia eskatu dogun - ezkerro, ezteritxazu zuzen-zuzena gero geitu dagiyogula: *Egin bedi zure naya*, onenbestez, gura dauan guttirako gertu agertuten gariala? Eztautso-gu esaten: Dagigun zeure gurea; olako esakeraz zoř yakun baño geyago geure

buruari ez ezarítearren. *Egin bedi* diñotsagu, olan esakera apalagoaz, alde batetik bere gura deuna egiteko, azke garianez, gure aldetik daukagun zolitasuna erakusten dogu, eta bestetik oretarako daukagun bere laguntzaren beara erabatera iragariten dogu.

Egia da, *Egin bedi zeure gurea* esatean, eztogula uleitu gura bere naya egin daigula bakarrik, baita geutzaz bere naya egin daitela be esan gura dogu.—Izan be, seme ona aitak aginduten dautsana ala gura dauana egiten beartua dago, ez bakarrik gauza berezietan, esaterako, etori daitela, doyala, yolasa amaitu dagiala eta abar, diñotsonian; baita beratzaz ta beragan aitak erabagiten dauana egin daiten be gura izan biar dau, esaterako alako azte-xera bialduten dauanian, alako jaunaren etxian otsein ipinten dauanian, ala inar-kun edo bizibide onetan, bestean baño, geyago darabilenian. Geure aitaganako gura dogula *Egin bedi* onen bidez emen agertuten doguna auxe da. Lenengo, bere naya egin dagigula; au da, bere aginduak, bere onuak eta bere gogargi baru-



rengo guztiak bete dagiguzala. (Ps. 19, 8-9). Bigarango, geutzaz bere naya egin daitela; au da, geure gauza onuratsu nai neketsu guztietan gurago dauan lez geutzaz erabagi dagiala. (Luc. 22, 42).

Baña ¿Jaungoikoa aitatzat artuten dozula deritxazu, eta gertua daukatzun yar-auntsia (etořkia) seme ona lez irabazten dozula, bere gura biyoi ain gitxi menperatuten zatxakozanian, bata egiten eztozula, ta bestiaz ondo etzatozala? (Mat. 7, 21).

*II—atala.* Begira, emen aitatu doguzan bietatik lenengoa *ikuřduna* edo ezagugaiduna deritxona dala, edo obeto esateko *ikuřtua* edo ezaguerazoa; beraz, eskatuten dauskuzan egintzai yagokoenez, ezta gura erabagia; agintze, onu ta beste ezau-gai bidez, au ala bestia egin geinken gogoko yakona agertuten dauskun opadun naya baño (Ps. 102, 7). Bigarənari gogo onezko gurea, edo *onespenduna* deritxo, gura oso erabagia da, ta onen bidez Jaunak guztaz onetara ala bestera, uts-barik, erabagi daroa, iñok gogoř-egin ez galerazoko dautsan bilduř barik (Isa. 46, 10). Gura bioetarik lenengoari, esakun zuzenez, men

dagiogula esan doya: bigarēnera, bariz, yañi oi gariala esaten da.

Augaitik, *egin bedi zure gurea* esatean, lenengo gutzaz egin daitela ulertuerazo gura dogunean, orduan menpetasun osoa emon dagiyogula eskatuten dautsogu; eta gutzaz edo geugan bigarēna egin daitela aitu gura dogunean, orduan bere nayaren eta geurearen bardintasun osoa eskiñi ta opalduten dautsagu. Ezpedi, bariz, esan, au elitzatekela eskaria izango, yasantasuna edo eroapena baño; Jaunak gure onerako erabakiz epaitua daukana, geure bidez, eta batez-be gurre otoi-bidez, egitea geyenetan erabagita dauko-ta, eta onixek dira emen bitarτεko ipiñi gura doguzanak, ondorengo ain ona egiztatu daiten. Bariz gura biak aituerazo gura doguzanian, orduan biak egin daroaguz, menpetasun osoa eskatuten eta kidetasun edo yasantasun osoa eskiñiten dautsagu.

¡Begira, ba, eskari zein goratua dan au! Deuntasun guztiaren batza edo laburgoa uretan ipiñita dala esan leite. Egia da, ba, donokia edo guretzako gertua da-

gon etorkia loítuteko, kristar-onoimen guztiak, txindi yakiña lez, euren aldietan erabiltea, bide beara dala: eroapena, buru-ukapena, otzantasuna, apaltasuna, garbitasuna, goimaitasuna, sendotasuna eta beste batzuk, dabilzan txindi-motak baño geyago ausaz. ¿Nok eztakus, ba, Jaungoikoari, bea doguzan baizen sañi, eurentariko bakotxa ta euren izenez eskatutea, gogaikari litxatekela? ¿Zer egin dau yakintza azkengea dan Jesus'ek? Guztiak bat bakaera laburagotu dauz, baña, ur ezko txindia lez, guztiak batera beste gauza dana, au da, Jainko-gurea betetean. Beraz, *egin bedi zure gurea* diñogunean, bat-bakara eskatuten dogula badirudi-be, au da Berak gura dauna egin daitela, baña benetan guztiz asko eskatuten dautsogu. ¿Eta zer besterik da Jaunaren gurea, onoimen guztiok, deunak egin eben lez, darabilguzan baño? (I. Thes. 4, 3). Emen Kristok gura izan dauana guk eskatu daigun, auxe da. ¡Eta au olan izanik, itzok, ain aldintsuak dirala yakinda, zuk beti aotan eztarabiltzuzala!

*III—atala.* Begira, itzok, lenengo ikuñ-

pen edo esan-gurean, aotan beti erabili dagizuzala zein zuzena dan; au da, Jaungoikoari bere gura deuna egiteko, laguntasuna eskatu dagiyogula (III. Reg. 8. 58). Zuzena da, Jaungoikoari bere naya egitetik dañaikon gorespenagaitik; eta zuzena nai ori egitetik guri yatoñkun onuragaitik.

Lenengo zuzen da Jaunari dañaikon omenagaitik: edozein gurasok semiakandik gura dauan aurenengo omena auxeda-ta, bere esana dagiela. (Luc. 6, 46). Oregaitik esan eban Kristok beratzaz, donokitik luñeratzearen elburu aüena, guzti-guztian bere Aitaren naya egitea zala. (Jo. 6, 38). ¿Zer izango litzateke, ostera, zu ain txarto gertuta bazengoz, zeure guraz edozein egintz on eñaz egin-añen, esaterako, gaxotegietara yoan, barau - egin, zeure aragia zigoñkatu ta abañ; gero, aginduten eutzuelako bakañik, gogo txañez egingo bazendu? Au, egiz, eleiteke zeure aita gorestea izango.

Bigañengo, zuzen da, geuri dañaignon aundiagaitik: edozein gurasok geyen maite dauan semia, bere esanekoa ta me-

nekoa da; berau besarkatuten eta laztanduten dau, beroni bestiai baño laguntza ta eskar aundiagoak egiten dautsoz. Bar-din egin daroa Jaungoikoak. (Act. 13, 22). Bariz, egun guztian ezetzak eta naigabiak aitari damotsezanai, etxoakoe ondo, beragaz beti mukei ibili beari dira-ta. ¿Eta orenbestez, Jaungoikoagaz gentzarik eztozula-ta, ari-tuko ete zara? Ezin besterik yazo leite, Berari yarki ezkerro (Job. 9, 4).

*IV—atala.* Begira, *Egin bedi zure gurea*, itzok, bigaren ikurpenez, beti aotan darabilguzan, zein zuzena dan: au da, Jaunaren gurea geugan eta geutzaz egin daiten gura izan dagigula (I. Reg. 3, 18). Au aitaturiko bultzagai biakaitik.

Lenengo, Jaungoikoari ortik daiaikon omenagaitik; geure buruak, ba, bere esku-etan osoro izteak eta guztietan gogo onez bere yaurbidepian yartziak Beraren, bere maitasunaren, bere alaren, bere erukitasunaren, bere ardura ta yakintzaren uste zein osoa daukagun argiro erakusten dau (Ps. 22, 1). Eta egin geinkion omenik aundiena auxe da. Ezin legikioe itxaztiak omen aundiagorik ontzi-buruari egin, en-


daitz edo lema eskuan daroanean, eurak oean artez te gentzaz lo egoteaz baño. Artega ta arduraz bere alboan yabilko-zanian, zegaitik alde batera baño bestera geyago okeertuten dauan yakin gurarik, irainduten eta asararazoten dabe. Baídin, ezin Jaungoikoari irain aundiagorik egin geinkeo, ludi onen zuzenbidean au ala bestia zegaitik egiten dauan esan dagigun beartu lez egin gura dogunian baño (Is. 58, 3). ¿Benetan goraldtu gura dogu? Geure baruan, baña biotz - biotzez, esan dagiogun: *Egin bedi zure gurea. Zure naya izatea naikoa yat.*

Bigarngo, zuzena da, geuri yatorkun onura aundiagaitik: Aitari, ba, seme yakingeak lez, zuzendu gagizan izten ezpa-dautsogu, txitean-pitean galtzeko zorian yarten gara. Mendirik - mendi aldenduta dabilen ardi gaxoa, ikaraz arnas-estuka doya. ¿Eta zergaitik? Adimenik eukiezarren, inok zuzendu dagian beart-izana ondo ikusten daualako. Artzainaren aztarna edo uratzak yaraituten dauzانيا, bildur barik eta arnasa beteaz doya. Beste ainbeste yazoten yaku. Ludi onetan zuzen eta

gentzaz ibili gura badogu, arditxu zintzo batzuk lez, Jaungoikoari zuzendu gagian itxi dagiogun. Biotzeko lañi ta estutasun guztiak onek bakañik kendu leikeguz (Jer. 17, 16).

*V—atala.* Begira, azaldu doguzan *ikuñdun* ala *onespendun* nai biak, Jaungoikoak geugan ala geutzaz gura dauana nai-izatea, egintz ain gora aundikoa dalako, al dan osotasun aundienaz beteten alegindu beañ dala. Oñegaitik agindu dau Kristok gure aitari *Egin bedi zure gurea*, aitaturiko edozein esan-guretan, diñotsagunian, beti ezañi dagiogula: *Donokian lez ludian be.* Benetan, Jaungoikoaren gurea ezin ludian izan leite donokian bai-zen onetsia ta guñtua, an maitasuna eza-gutzaren neufian da-ta. Oñaitiño be, itua toki ain goratu oñetan ipiñi beañ da, alegiñian elburura eldu gaitezcan (I. Cor. 12) 31). Auxe da donokian egiten dana ikus-tea. Donokian egiten da Jaungoikoaren gura *ikuñduna* deritxona ta baita *onespenduna* deritxona be.

*Ikuñduna* egin daroe batez-be *ainguruak*, Jaunaren geznari nekaitzak, neka-



tu-eziñak-lez, beti gertu ta egoak zabalik dagozala, Jainkoak bialduten dauzan to-kira egaz-egiteko.— *Onetsi egizue Jauna bere gotzon guztiak, indañez altsuak, bere itza dagizuenok, bere agintzen aot-sa entzuteko*, diño Dabid'ek (Ps. 102, 20). Gotzonak Jaungoikoaren esana laster eta zeatz egin ez-eze, baita elburu onetarako dira, bere esana egiteko. Jaungoikoaren gurea egin daroe, diño Belarmin zoriondunak, bere aginduen aot-sa entzuteaen, yatorizko eleak diñoanez. Izan-be, eztabe gotzonak euren onuragaitik Jaunaren esana egiten, beronen esana egiteaen baño.

*Onespendun* naya dana (irazakiaz Jaunak zerbait erabagita daukana) be, beti egin daroe donokian, ez bakarik gotzonak (aingeruak), baita beste zorioneko guztiak be. Baña ¿zelan egin daroe? Adimeneko bardintasun osoaz, Jaungoikoak gura dauana onentzat sendo-sendo daukiela, besterik uste ezin dabela. Eta gura amenaren bardintasun osoaz, sendo erabagita egonik axe onentzat gura izaten, besterik ezin gura izan dabela (Ps. 62, 9).



Auxe izan biar leiteke ludi onetan Jaunaren gurea egiteko eredua ta inarkuna!

Guk, bea-ba, Jaunaren gurea laster ta zeatz egin daroagu; baña, era batera, Beraren esana egitetik yato-kun onagaitik dagigu. Ori ezta, gotzonak lez, esana egitea. Bea-ba, Jaungoikoak gura dauana ontzat daroagu, baña era batera, al balitz, Jaungoikoak beste bat gura izan legiken, nai geunke. Ezta au donokian zorionekoak gura dabenez gu bardi-duntea. Eurak eztabe baka-rik gura Jaunak gura dauan guztia, o-rezaz ganera, Jaungoikoak euren aukeran eta eskuan itxiko baleu, eleukie Jaungoikoak gura dauana baño besterik gura izango. Emendik dator donokita-ren guramena Jaungoikoarenaz ain eralduta egotea, Jaunarena berbera baño eztirudiala (I. Cor. 6, 17).

Augaitik zorionekoak zorientasunean guztiak bardi-ñak izan-eza-ren, guztiak dagoz bardin pozik ta atsegin-aseak; Aita-ren seme onak lez, ez baka-rik eztabelako gura aitak betikotasunetik izentauriko eto-ria baño geyago ala gitxiagorik, baita, ordutik geyago izentau gura izan balitxa-

koen be, ezin gura izan legikielako. Ezin au emen ondo aitu geinke; ezin, ba, emen eskañak izatiaren zirkin guztiak osoro goitu ta menpetu dauz; baña donokian bai eskañaren garaitza osoaz uleértuko dogu. Zoriondunai yagokoenez, Jaungoikoak ezin dagike gura izan ebena baño besterik gura izan; eta bardin zorionekoak, Jaungoikoagaz gogo bañdiña dauke-ta, Jaungoikoak gura izana baño besterik, ezin gura izan legikie. Auxe da, ba, donokia ainbeste zorionez beteten dauana; esakun labur au *Egin bedi zure gurea*.

Emendik ateraten da, gaiztokitik noberearen gurea aterako balitz, gaiztokia aúr-erantzian gaiztokia izango eleiteken lez, bardin norbere gurea donokian saítuko balitz, donokia aúr-erantzian eleiteke donokia izango; eleiteke geyago an, orain guztien gurea Jainkoarena dalako dagon, atsedeen eta gentza osoa egongo-ta (Is. 62, 4). ¿Gura dozu yakin zegaitik zure biotza, atsedeen eta pozaren donoki txiki bat izan bialian, ainbeste bideñ lañiaren eta itxulaskaren gaiztoki egiñik dagoan?

Bertan noberaren gurea bakaldun dalako.  
(Os. 10, 6).

## IX — G O G A R T E A

Emoiguzu gaur geure eguneroko ogia

1. *Aitak, batez-be aberatsa bada ta seme beartsuak badaukaz, yakiak emon biar dautsez. — Kristok gogoaren eta gorputzaren yakiak eskatu dagioguzan gura dau.—2. Zeintzuk diran gogoarenak.—«Ogia» zegaitik deritxon, ta zegaitik «geuria» ta «egun orokoa». Zergaitik diñogun «gaur».—3. Gorputzare-nak zeintzuk diran; ta «ogia, geuria» ta «egunorokoa» zegaitik deritxon.—«Emoiguzu ta gaur» zegaitik esaten dan.—4. Aberatsak eta txiroak egin dai-kien utsa.*

*I—atala.* Begira, edozein aitak bere semiai, ondoreko edo yabegai egiteko, bea' dan menpetasuna eskatuten dautsen lez, ba'din bere semeok menpetasun ori e'az emon dagikeoen, egunoroko yakia emon bea' dautsela, batez-be aita guztiz aberatsa izanik, semiak ezer eztaukenian.

¿Gure goiko Aita baño aberatsagorik, zein aita idoro leite; ala geutariko bako-txa baño, zeintzuk seme eurenez txiroa-gorik, edo obeto esateko erukañiagorik eta beartsuagorik? Oregaitik Kristok, gu-re Aita aundiak bea' izango doguzan yaki barik ezkaituzala itxiko, ziñistu eragiteko, donokian bakañik osoro emongo yakuzan lenengo iru eskariak egindakoan, bes-teok eskatuteko bizkoñtuten gauz, ez Aita bere aldetik guri emoteko gertu eztagoa-lako, on guztia bere esku zabaletik ya-toñkula ezagutu dagigun baño.

Jakiak bitarikoak dira: gogoarenak eta gorputzarenak. Arek gogoaren bizia yanaritutun dabe; bestiok, gorputzarena. Ludiko aitak bere semiari bitzuok emon bía' dautsezan lez, al dauan geyen damo-tsela; gorputzaren aldetik yanaria ta zo-ñekoa, bizitegia ta biziteko bea' daben beste guztia; eta gogoaren aldetik ondo biziteko bea' daben guztia: bardin ta as-koz geyago egin bea' dau donokiko Ai-tak.—Emendik soñtu da *Emoiguzu gauñ geure egunoroko ogia* itzok gogoaren ya-naritzat batzuk aitu izatea, goizparlari ba-

tek emen *egunerokoa* diñoana, beste batek *goitikoa* deitzen daualako. Beste batzuk, ostera, gorputzarenak aitu dabez, batak goitikoa diñoana, beste batek egunorokoa deitzen daualako. Eta beste batzuk azkenez, ikuípen edo esangura bietan aritu dabez, itz berberak, gerkerako zustraira begiratuezkero, esangura biak, egunorokoa ta goitikoa, ikuíerazo legikezalako.

Onena da euroi yaíraitutea: ogi oíen bidez era bietako yanariak, gorputz eta gogoarenak uléituten dozuzala. Lenengo, Aita on batek biyoen ardurea euki biaí daualako; gero, seme on batek biyok eskatu biaí dauzalako. Eta azkenez, eskari onek daukazan itz guztiak biyoi baídin yagokoezalako. Jaungoikoari, guztia ondo uléitu dagizun, argia emon dagizula, eskatu egियोзу; astoak euren yanaria eskatuten daben lez, eskatu eztagियोзун.

*II—atala.* Begira itzok, lenengo, ikuípen bikañenian; au da, gogoaren yakitzat aituten dozuzala. Emen dakuskezu, onek ogiaren izenaz aituten dirala: auíenengo, guztioen bikañena *Eukaristi'*ko yanari deuna dalako, berau batez-be ogiaren

izenaz deituten dan - ezkerro (Jo. 6, 59): gero, ogiaren izenaz gogozko beste yaki guztiak be iragañi doyazalako: onek dira, Jainko-itza, otoyari lagun-dagioen atsegin-pozak, negañak, goyargiak, eta, batez-be, yanari indaíttsuak lez, Jaungoikoaren gurea egiteko ta atara yaítteko, alikatuten eta indaítuten gabezan eskañ yainkozkoaren emoitz laguntzaleak.

Indaít bide guztiak Jaungoikoari ogiaren izenaz baño eztautsoguz eskatuten; ez, baña, eurak oso bikañak eta gozoak ezti-ralako; eztoguzalako aintzat eskatu biañ baño, ezta dakañezan opari ta gozotasunakaitik be, gura izan biañ, gure biotza, ogiak egin daroanez, indaítuteko ta sendotuteko dauken kemen eta adoreagaitik baño. (Ps. 103, 15). Eta ona emen zelan Kristok auñenengo kendu-gura izan daukun, askok euren gogoa gozotasun eta atsegiñez alikatuteko dauken gurari lañegia.

Gero, beste itz au datoñ: *Geurea*. Eta ori bestien ogia, lapuñak lez, opa ta gura izan eztagigun, geuriaz asetu gaitezcan, au da, geure bizi-bideari yagokonaz. Zuk,

biañ-ba, bestiakan iñañtziz edo begiratu-  
ten dozuz arako otoi-emoitz goragokoa,  
goi-argiak, goi-ezagutzak, eta, biañ-ba,  
sentzu-galtzeak eta abañ; eta batez be,  
zeugan oañtuten eztozuzan yainko-eskañ-  
aren urgazpen añgañiak, dala zeure bizi-  
bideari etxagokozalako, dala Jaunak emon  
dagizuzan irabasten eztozulako. Au ezta  
zeure ogiaz naikotzea, bestiena be gura  
izatea baño.

Jaungoikoak zeure bizi-biderako ego-  
kiagotzat damotzunaz asetu zaitez. Etzai-  
tez iñoz Beratzaz espatu, bestiai urunez-  
ko ogia ta zuri birzaizkoa emoten dau-  
tzula iruditurik.

*Geure ogia* esanda, *egunorokoa* geitu  
egizu ez yakiak egunero añtutea beañ  
-beaña dalako, egunero gurariz beintzat  
añtu doyazalako baño. Olangoa da batez  
-be *Eukaristi'koa*, egunero edeñto añtu  
zeinke - ta, gogoz ta gurariz beñipein,  
Kristok ogetamairu urtean egin eban lez,  
bere ikasleai esan eutsonez: *Paska* edo  
*Igarats au zuekaz yateko gurari aundi*  
*-aundia euki dot.* (Luc. 22, 15). Au diño  
ta ez bestiak, bertan Ikuñton (sakramentu)

deun-deun au irasi (egin) ebalako, eta, egia dirudianez, bere gorputza aurrenengo artu eban Jaun ikurtondu onek bere bular yainkozkoan, abegi ona euki legian (Hebr. 2, 14). Eta ogi au *egunerokoaren* ordez *izapezganetiko*a deitu gura badozu, baidakizu ausaz zegaitik olan deritxon, geugan idoroten dan zati lenen eta gorena, geure gogoa, alikatuteko dalako.

*Emoiguzu* dator gero: itz onen bidez eskatu doya ez emoitza ta eskaezkoa dana, zuzentasunez lez ta zor dana baño; Aita ain onari yakiak uste zein aundiaz eskatu biar dautsazuzan aitu dagizun. Egiz olantxe esan doya beti yakiai yagokenian, batez be Aita ain aberatsagaz itz-egitean. Baña gomutau zaitez etzariala oregaitik alpekerian egon biar. Egia da aita aberatsak semiai, eurenez eztaukeria, gogoz emoten dautsela; baña ez alpekerian dagozarian, etxearen onerako ezer egin barik. ¿Eta Jaungoikoak egunoro alikatu zagizala *Eukaristi*-yanariaz, eta gogo-atsegin eta pozak eta poz-negarak eta laguntzea ugari ta berarizkoak emon dagizuzala, eta gero zuk bere otsein-



tzan ezer ez dagizula, zuzen ete deritxazu? Benetan, eztatoz ondo gauza biok: yatekoa eskatu ta nekatu gura ez (II Thes. 3, 10).

Azkenez, *gauř* geituten da: au da, *egun onetarako*, laburitu dagizun zeugan, gerokoan oldozten egoteko daukazun ardua lařegia. Sařitan adoria galduten dozu ta gogo-bizitzari gura zeunken azkořtasunaz eztaragoyozu, lenengotan ain gozo egin daroen gozotasun eta pozkariak geldituko diran bilduręz. Ez egikezu olan egin. Gauřko egun onetan bakařik oldoztu egikezu; ořegaitik Kristok erakutsi dausku emen *gauř* esaten. Biyařkoa biyař oldoztuko dozu. Baņa ĩbiyař biziko ete zarian nok bayeztuten dautzu? (Mat. 6, 34)

*III.—atala.* Begira oraņařte gogařtu doguzan itzak gorputzaren yakiai eřaz yagokoezala. Lenengo *ogia* deritxo, gozotasunak gogoan be ezpadira bilatu biař, zeinbat gitxiago egun gitxi bařu ařen yanari izango dan aragian. Egia da, ogiaren izenaz, iberkeraz eztala ogia bakařik airtuten, yanaritzat airtuten dan guztia baņo (Exod. 2, 20), eta batez be bizitzan irau-

teko zelanbait beara dan guztia (Eccli. 34, 26). Baña guztiori ogiaren izenaz eskatuten da, beara dan baño ogi geyago yan ez taroagun lez (gitxi dira ogia salokeriz yaten dabena), bardin Jaungoikoari eskatuten dautsoguzan ludiko ondasunak, ez neuribarik, bearentzat naiko diran neurian bakarik erabili bea doguzala iragar teko (Eccli. 31, 19).

Bigarengo *geuria* deritxo, aitatu dogun ogia be, ez togulako geuria baño eskatugura izan bira (Is. 4, 1), zoritxarez inoren ogia gura dabena ludian asko diran ezkerero. Askoren artean banakatu-aren gitxituten ez tan gogoaren ogian be au egin bea ezpada; zeinbat gitxiago ain uria ta mugatua dan gorputzarenean egin bea ko dan!

Irugarengo, *egunorokoa* deritxo uleitu erazoteko eztauala inok egin bira arako aberats ase-ezina ostu-ezaen, zer yan eztauken sendi askorentzat naikoa dana batu-arte, artega dabilzala (Baruch. 3, 18). Au ezta yakiak gura izatea, irabazkiak eta mozkiak gura izatea da.

Orezaz ganera, gorputzaren yanariak

ulerítuerazoten dauskuzan ogi au, zegaitik *egunorokoa ez-eze gai-goitikoa* be deritxon yakin gura badozu, zeure Aita aundiari yakiak eskatuteko bultzatu bear zaituan elburua zein izan bear dan ikasi dagizun da ori. Eztautsozuz eskatu biar geure berengo zatia dan gorputza iraun-erazoteko bakañik, yaki onen bidez yanaritu ta sendoturiko zure gorputz oñek, gorengo zatiari lagun egin dagion baño; *gai-goitikoak* emen orixe esan gura dau-ta.

Laugaréngo, ogi onetzaz esaten da *emoiguzu*, ta ez *eskañez egizu*; gorputzeko onura onexek be, yakiak lez bakañik eta gorputzak gogoari lagun egiteko indaña euki dagiyan eskatuten badira, uste-on osoaz eskatu biar diralako. ¿Zelan bildur izan zeintez, semeari lez zor yatzuzan yaki zuzenak Jaungoikoak ukatuko ete dautzuzan, abereai eurai be emoten badautsez? (Ps. 146,9). ¡O zein aundia dan dagiozun iraña, Beragan usterik eztozulako, bide okeñetatik bila zabiltzanian! Naikoa da irabazten arduratu zaitezala, alpeñik egon gura eztauan seme bat lez

bizi zariala. Osterantxean berein bide badaukaz Jaunak zu orniduteko.

Azkenik, *gauř* esan doya, ta ori gorputzeko yakiei yagokoenez be bai; lenengo yakintzat emoten da, Jaungoikoari egunero eskatuko dautsazuzala, seme onak egin daroen lez, eurak euren eskuz apaletik ala azpiretik ařtuten eztabela, euren gurasoai eskatu bařo. Bigařengo, biyařko egunaren leya ta ardura lařegi barik eskatu dagiozun: olantxe, ba, egin daroe aitatu doguzan semiak. Onek egun batean besterako be eskatuko baleuskiyoe, eske leyoakezan egun guztietan beti bařdin eta aita maitatsu idoroko daben usterik eztaukela, agertuko leukie. Jaungoikoak bere eřiari ez eutsan *mana* egun batean besterako emon, gauř gauřko ta biyař biyařko bařo; eta ořaitiřo be, beřogeı urtean ez eutsan egun batean be uts-egin.

*IV—atala.* Begira, ain goreskaři dan eskari onetan era bitako notiřak edo lagunak kalte ařtuteko zorian bařdin dagozala, bide bařdiřnetik izan ez-ařen: aberatsak eta txiroak. Aberatsa bazara, uts-egin zeinke otoi au *Emoiguzu gauř eguneroko*

*ogia* egunero osteratu bea'rik eztaukazula begitandurik. Zuk, ba, etxia ondo orniduta daukazu, egun askotarako ez-eze, baita iya gizalditarako (Luc. 12, 19); zuk upeltegiak eta garautegiak beterik badaukazuz ¿zein bea'-izan daukazu, txiroak lez, Jaungoikoari esateko gau'riko *ogia* emon dagizula, *ogi* au, nai gogoaren yanaritzat nai gorputzaren yakitzat a'rtu, guztiaz aberats zagoz-ta? Baña ¿zure gogalben ori guztiz oke' lebilkela ez ete dozu ezagututen? Askok badaukazu, asko galdu zeinke, ta ori beingo baten; eta daukozun guztia edozein egunetan e'raz galdu zeinken lez, ba'rdin egunero eskatu bea' dautsazu yagon dagizala, zeure bizikai eratsurako naikoa dan beste beintzat. Eztozu, ba'riz, o'regaitik esakerea aldatu bea', aberatsa lez, di'nozula: *Yagon egi-guzu, emoiguzu'*ren orde; Jaungoikoak, ba, daukazu guztia, galdu eztagizun yagoten dautzun une guztietan, emoten dautzu. Beraz, edozein aldetik begiratuta, egia da, guztiz aberatsa izan-a'ren, txiro ta bea'itsua lez, Jaungoikoaren a'urean egunero a'urkeztu bea'ra daukazula, zeure

yanaritzat bear dozun ogia eskatuteko.

Baiz, txiroa bazara, beste uts baten yausteko zorian zagoz, egunerako bear dozun ogia irabasteko lan-egiten ez arduratutea; Jaunari eskatu baño: eskatuaz bakañik, benetan emongo dautzula-ta. Ori zorakeri aundia litzake, alan egingo bazeunke. Eztago, semeai yaten emotean, euren alpeñkeria biztu gura dauan gura-zorik; gura dauana da, ez alpeñkerian bizi aitezan, lan egiteko indañak euki dagitezan baño.—Nik lan egiten badot, ba, esango dozu, egunoroko ogia irabazteko, ¿Jaungoikoari zetarako eskatu biar dautsat? Eskatuko ezpazeunskiyo, zeure lanak on gitxi egingo leuskizulako. Zeure solo ta bazteretara bota legikez Jaunak une batean guztia zuzituteko lain inñetazi ta ari ta euri, ta zure neke ta lan guztiak galduak litxakez, eta beraz, lan-egin-añen, etzenduke zer yan eukiko. Jaungoikoari *Emoiguzu gauñ geure egunoroko ogia diñotsazunian, edozein ikuñpenian dala, nai gogoaren nai gorputzaren yanaritzat, eztozu zeure burua atera gura izan biar olan diñon agindu orokañe-*

tik: *Zeure ogia zeure bekokiko izerdiaz yango dozu* (Gen. 3,19). Jaungoikoari bakarik eskatu bear dautsazu zure izerdia onurakoia izan daitela, bere bidez biziteko bear dozuna irabazi dagizun: etzeunke, ba, ezer aterako zugatzak ipini ta ureztatuaz, Jaungoikoak guzti ori bere onespena goitik bialduko ezpaleuskio (I. Cor, 3, 7).

Ikustozu, ba, nai txiro nai aberatsa izan, bardin eta esakera bardiñez, esan bear dautsazuzala itzok: *Emoiguzu gauñ geure egunoroko ogia*; euren indañez, bear dozuzan yanariak emoten yatzuz-ta.

## X — G O G A R T E A

Eta azketsi (parkatu) eiguzuz geure zoñak (eta abar).

1.—*Aita ain onak semiakandik eleuke atsekaberik artu biar, baña izate yausian ezta eñaz. Jaunaren onegiñak eta gure eskar txarñ batera dabilz. Emen erakusten yaku azkespena yadesteko bidia. Seme erudun garbaituak lez Aitari itz*

*-egiten dautsagu.—2. Zor̄dun noz garian Jaungoikoagaz ta zein bidez. Zer egin biar̄ dan zor̄aren aldetik ta zer oben-nekiarenetik. Zein aundia dan obenaren zor̄a.—3. Eskari au antustea ta ustegekeria kendutera datoř. Eztogu geugan ustea ipiñi biar̄, obendiak gara-ta; baña bear̄ dan lez eskatu ezkerro, azkespena yadetsiko dogu.—4. Obendiak, egoera txar̄etik urteten geřtuteko eskařaz, zor̄ak edo obenak azketsi dagiozala eskatu legikeo.*

*I—atala.* Begira, berez ta, yarauntsi aberatsa ta berau artuaño bizi al izateko yanari egoki ta aldiorokoak semiai emoteko daukan ardura aundiagaitik gorespen osoa zor̄ yakon aitari, bere seme guztiak (naigaberik txikiena be iñoz emon barik) begiruna erabatez yagon legioen zor̄ izango litxakeola. Baña au, giza-izate yausian, geyenetan beintzat eziña da. Ořegaitik Kristok, guk goiko Aitari, maitatuten eta guřtuten ondo beařtuak egon-ařen, naigabe aztunak, zoro batzuk lez, emongo geuntsazala, ondo ekialako,



egunoroko ogia eskatuten dan auñeko eskariaz, zoren azkespena eskatuten dan oraingoa *eta* alkarñiaz batu gura izan dau, Jaungoikoak egiten dauskuzan onurata eskar zeinbatu-eziñak *eta* gure ordezeko eskar-txañ zeinbatu-eziñak erabartera dabilzala aituerazoteko.

Oñaitiño be, etzaite gogauldu, Kristo, zoritxañeko *eta* ori itxi-ta, beriala ain ardua aundiko azkespena loñtuteko bidea erakusten asten da-ta, yadetsiko dogun baitintasun ez - uskoñaz, baldin biotzeko zintzotasun guztiaz eskatuten badautsagu. ¿Osterantzean, eskabidea erakusteak zer emongo leuskigu, eskatuañen yadetsiko ezpageunke? Begitandu zaite, ba, orañarte Aita goikoaz, seme erubakoak lez, yañdun gariala, arako *Zure izena donetsi bedi* eskari gañtsuaz eskatu dogun bere izen aundiaren ondoan, lenengo, bidezko dan lez, agindu dauskun etoñkia edo yarauntsia eskatu dautsagunian, esanaz: *Zure ala betoñkigu* ta abañ; *eta* gero bañuko ta ateko yades - bideak, esanaz: *Emoiguzu gañ geure eguneroko ogia*. Orain asten gara, seme erudun gañbai-

tuak lez, Beragaz yarduten. Edozein aita dauka semien ardurea, ez bakarrik osasunaz dagozarian, baita gaxorik dagozarian be. Ara geyago, benetako aita baten pozik aundiena, bidekatuta eta galdutzat eukazan semiak bañero artutea izan bial da. Olantxe agertu eban Goizparako (Ebanjelioko) Aita ospatsu arek, yaikun aundiagoa egin eban, ba, seme ondatzailearen itzulpenean, seme zintzoak eukan menpetasunean baño. Beraz, uzte aundia euki egizu, *Azketsi eiguzuz geure zoñak* Jaungoikoari diñotsazunian, itzok Aitari diñotsazuzala, ondo gomutaurik.

*II—atata.* Begira norbaiti egiz zoñdun gatxakozala bere eskubidetikoa dan ezer kenduten ala ukatuten dautsagunian. Bañā, Jaungoikoak, gure aita danez, gugan daukan eskubidea ¿zein da? Edozein unetan, seme onak lez, bere naya geuria baño lenago egin daigula. Eta beraz, onetan uts-dagigun bakotxian, Jaungoikoari zoñdun aundiak geratuten gatxakoz; au da, eñuaren zoñdun eta erabatera oben-nekearen zoñdun, egindako obenaren neñiz. Zoñ aundiak, ba, azketsi dagizuzala Jaun-

goikoari eskatuten dautsazu *Azketsi eigu-  
guzuz geure zoñak* diñotsazun bakotxian.  
Eztautsozu eñua bakañik azketsi dagizula  
eskatuten, ezta oben-nekea bakañik azke-  
tsi dagizula be; aita ona lez biyok azketsi  
dagizuzala baño: lenengo, bai, eñua, bene-  
tan garbaituten danaren guraririk aundie-  
na orixe dalako; gero bañiz oben-nekea.

Egia da ezin zeinkiola Jaunari zoñ aun-  
diak azketsi daizuzala eskatu, oi dan bi-  
dez baño. Oñretazkero, eñuaren zoñari ya-  
gokonez, bere azkespena loñtu gura ba-  
dozu, eurenez, yadesteko indaña bai,  
baña, ikuñtonak lez, emoteko eztauken  
itzokaz, beañ-beaña yatzu zeure biotzean  
benetako garbaya soñtu dagizula. Oben-  
-nekeari yagokonez, bañiz, Jaungoikoari  
ordain egokia emon biañ dautsazu, egiñi-  
ko obena ludian bere ordekoari autoñtu-  
ten dautsazula, ta emoten yatzun oben-  
-nekie beteten dozula. ¿Onenbestez asko  
eskatuten yatzula ete deritzazu? Eztakizu  
zelango zoñak diran onek.

Egin dozun eñurik txikienaren zoña ain  
aundia da-ta, Goiko deun guztiak eta  
Jaungoikoaren laztanenak diran izaki gar-

bienak egoki ta osorik ordaindu gura baleukie, donokitik yatsita zeure ordez opari ospatsuak eskeñirik, baruak egiñik, euren buruak zigořkaturik, zeure alde eskatu baño besterik egiten eztabela, eleukioe guzti ořekaz betiko egunetan ordain egokia Jaungoikoari emongo. Eta ¿zegaitik ori? Jaungoikoak obenik txikiena, izaki uts guztien adiguri guztiak batera maitte dauzan baño, geyago gořotatzen daualako. Ezta gauza aundia etxe baten seme guztiak batutea aita gořesten eta agurřtzen. Zoř dabena egiten dabe, ta beti beař baño gitxiago. Baña, batek irainduten badau, beař ebanez oso bestera dagi, ta eztago onetan bardinketarik (Is. 64,6).

Bařiz, oben-nekia zoř zein aundia dan ondo eztaki Sulezean ointxe ordaintzen dagoanak, ala Garbitokian azkenengo izpiraño ordainduko dauanak baño. ¿Eta askotzat eukiko ete dozu, zořok azketsi dagizuzan, Jaungoikoak eskatuten dautzuna, au da, biotz-biotzez garbaitu zaitezala oben-egin dozulako, ixilean baña zeatz yaupari bati autořtu dagiozuzala, eta zeure onerako emongo dautzun oben-nekia

bete dagizula? Jesukristori eskerik asko egiozuz Berak, zure ordez amaibako irabazi aldintsudun egintzaz ordainduta, zure zor guztien azkespena yadetsi al izan dautzulako. Oregaitik ezpalitz, izure erukañia, egintza on asko egin-añen!

Beraz, Jaungoikoari *Azketsi egiguzuz geure zorak* diñotsazunian, ondo gogoratu egikezu zer diñozun. Etzaite ezerez bat Jaungoikoari eskatuten dautsazunik begitandu. Egia da eskari onen bidez yadesten dozun azkespena, zuretzat neke gitxikoa dala. Baña jai zeinbat neke eroan bear izan eban Jesus Jainkoaren Semiak, gure onerako egin eban buru-eskañian! (I. Tim. 2,6).

*III—atala.* — Begira, Kristo'k eskari aundi au elburu bitara batez-be zuzendu dauala: gizonakandik amiltoki ikaragañi bi, antustea edo arokeria ta erabatera us-tegekeria kentzera; bata zuzenentzat da, bestia bañiz obendientzat. Ludi onetan batzuen azañkuntza euren Aita Jaungoikoari ezereen azkespenik eskatu bearik eztaukela uste izateraño elduten da (Luc. 15, 29). Beste batzuen bilduñ ta koldañ-

keria, bañiz, azkespena yadesteko ustea galduteraño elduten da (Gen. 4, 13). Begira, ba, Kristo'k «*Aita Gure*»ko otoi onetan bitzuoï osagaya ipiñi dautsela.

Otoi au aurenengo Bialduentzat egin zan, eta eurakan ziñistedun guzti-guztientzat. Eta egunero esateko egin zan, egunorokoa oregaitik deritxo - ta; eta agirian eta bakañian eta ludiko edozein zokondotan esateko. Eztau, ba, iñok norberagan uste geyegia ipiñi biañ, danik deunena izan - añen, Jaungoikoari esan biañ dautso, bestientzako ez-eze, baita bereztzako be (Batzañ nagusi askok irakatsi daben lez), azketsi eiguzuz gure obenak edo zoñak. Miren Neskutzak bakañik au esan legikean, ez beragaitik, bestiakaitik baño. Eta beragaitik esan baleikean, orizan, Kristo'k egin eban lez, berak be egin ebalako, gizadi osoaren zoñ guztiok maitasunez beretzakotzat euki ebazalako. ¿Nork ludian berak ez bestek, zoñdun piño aundi oretatik burua aldendu legikean? *Obenik arean eztaukagula bagiño, atzipetuten gara, ta eztago geugan egirik.* (I. Joan. 1, 8). Ez bakañik *apaltasunik*

eztago, ezta *egirik be*, Austin deunak oartuten dauan lez. Jazo leite, beaŕ-ba, otoi au diñozun une atan, eŕurik txikienik barik egotia, azkespen osoren bat yadetsi izan dozulako, bere bidez eŕuaren eta oben-nekearen zoŕ guztia azkesten yatzula. Baña ¿nok ori egiztatu leikezu, gotzonen batek, goitik yatzi - ta, ezpadiñotzu? Beraz, aldi oŕetan be eskari ori baŕdin egin beaŕ dozu, zoŕaren yakitun izanaŕen, azkespenarena etzara-ta. *Azketsitako obenaren bilduŕ barik etzaitez egon* (Eccli. 5, 5).

*Aita gurea* diñon iñok noberagan geyegi usfe izan biaŕ eztauan lez, baŕdin eztau iñok uste-ona galdu biaŕ, biotz-biotzez badiño, ta ez aoz bakaŕik, txori batzuk iñoz esaten ikasi daben lez. ¿Zelan, ba, Kristo'k guztiai aginduko eutsen, Jaungoikoari beti era baŕdiñez esan legiyoela: *Azketsi eiguzuz geure zoŕak*, Jaungoikoak azketsiko eztauzan zoŕ ain izugaŕi ta laŕegiak auŕkitu al baleitez, otoi au biotzeko gaŕbai ta samintasunik aundienaz esan-aŕen? Guztiz bestera. ¿Eske zagoz? Jadetsiko dozula egitzat euki-

zu. *Zoř guztia azketsi dautzut, eskatu daustazulako* (Mat. 18, 32).

Eta onenbestez, ziñauslien guzur bi, guztiz bařagařiak, suntzitzen dira. Bata Jobiniano'rena: onek, ugutz-eskařak gizona oben-egin-ezinkoř-biurtuten ebala, iñoan. Bestia, ostera, Nobato'rena: onek ugutz-ostian oben egiten ebanak, eskařa ezin bařiro artu legikela, iñoan. Guztia guzur utsa da. Ugutzatuai (batiatuai) agindu dautse Kristo'k egunero esan dagiela: *Azketsi eiguzuz geure zořak*. Beraz, ugutz-ostean be oben-egin leikie, ta ugutz-ostean azkespena yadetsi legikie.

*IV—atala.* Begira, zalantzaren bat emen etoři leikizula, eta auxe da: Oneratu gura eztauan obendi batek be eskari au egin ete legiken, Batzař nagusiak *Azketsi eiguzuz geure zořak* itzok bakotxak ez bakařik bestientzat, baita norberentzat be esan biař dauzala irakasten dabe-ta. Baña itanduten dautzut olako obendi ořek aitaturiko itzak esatian zelango gogoa berartian daukan. ¿Beařba, Jaungoikoak nai eřuaren nai oben-nekearen zořak azketsi dagiozala, bizikera txařean irauteko.



gogo setatsua eukiañen? Bere gogoa ori balitz, donauskoña baxen lotsabako eskaria egingo leuke, eta beraz ¿nok eztaki eskari ori itxi beaño leukela, ori Kristo' ren asmuaren auñezko otoyá izango leitekkelako: bere asmua Jaungoikoari eñuen azkespena eskatutea bai, baña azkatasun- ez oben egiten itxi legigun etzan-da?

Baña obendi oñek bere gogoa deungakerian gogoñtua eukiañen, ezpadautso Jaungoikoari eskatuten zoñak azketsi dagiozala, ez ordainduteko erabagita dagon zoñdunaren egoera atan eta bai bakañik eskatuten badeutso egoera ain txañetik urteten gertuteko laguntasuna, orduan otoi ori egin leike ez bakañik oben barik, baita onura aundiaz be: ori ezta, ba, egoera atan eziña dan oingo azkespena eskatutea, alezkoa dan geroko azkespena baño. Oñegaitik, ba, *Aita gurea* esatian, obenditzaña izan-añen, egunen baten obendia ez izateko gogo sendoa euki bíañ dozu. ¿Au, bañiz, gogo-deunga edo diabru bat giza-aragian izatera eldu ezpazara, ezin egin leikena ete deritxazu? Auxe be egin gura ezpadozu, zeure buruari ezafi

egiozu arako Esakunetako esan ikaragarria: *Lagia ez entzutiaren belarriak al-denduten dauzanen otoya gofotogarria izango da* (Prov. 28,9). Eztiño *Lagia entzuten eztauna*, ori legia beteten eztaben obendi guztiena da-ta; diñoana da: *belarriak al-denduten dauzana, ez entzutearen*: ori, irantsugeak lez, beteteko gogoia etori eztakiyoen, belarriak itxiten dabezan deunge setatsuen da.

## X — G O G A R T E A

Geuk geure zoñdunai azkesten  
dautsegun lez

1. *Aitak guri azkesteko, anayai azketsi biar dautsegu. Au baldintasun eta arautzat ipiñi dausku. Baña ezta osotasun-araua, lain-ekoa baño.*—2. *LEZ itz ori zuzen ipiñita dago. Len be baldintasun eta lain - arau ori Kristok ipiñi eban; baña emen zirikatzat eta gomutagaritzat dagoz.*—3. *AITA GUREAN ezta itz ori itxi biar. Ori esatian, ezin badozu biotza bigundu bestiai azkesteko, aldatu-gurea beintzat eukizu.*—4. *Baldintasun*

*ori azkespenerako beaña da, baña bera bakañik oretarako naikoa ezta; bezte aginduak be bete biar dira.*

*I—atala.*—Begira, seme askodun etxe-ko gurasoak bere seme guztiak alkañen artean gentzaz bizi daitezcan baño ezetan ardura geyago ipiñi beañ ete dauan. *Begira zein ona ta atsegingaña dan anayak batera bizitia* (Ps. 132,1). *Ona lagungañi dalako, atsegingaña pozkañi dalako.* Osterantzean, len bertan egoan gentzagaitik donoki bat zirudian etxea, beingoan gentza galduta, donoki bat zana bereala gaiztoki aldaturik idoroten da. Oregaitik goiko gure Aitak, beste eskari guztiak, ain aundiak izan-añen, baldintasun barik berari agertutea ontzat eroanik, geure eruen azkEspena eskatuten dautsagun onetan bakañik, bestera egin dau. AzkEspen au eskatu dagiyogun gura izan-añen, baña itunben onegaz gura dau: geuk be geure anayai emon dagiyoegula.

*Lez ataltxu au eztautsagu Beragandik itxaroten dogun azkEspenaren arautzat ipinten. Olan balitz igure erukañiak! As-*

koz aundiagoak dira Berak azkesten dauskuzan zoñak, guk geure geideai azkesten dautseguzan eta azketsi geinkioezanak baño. Guk, geyenez, eun amañeko (txindi) azkesten dautseguz, Goizpañeko (Evanjelioko) irudiki edeñak diñoan lez; Berak, bañiz, geuri anei txindi azta (*mila talentu*); bañdinkuntza guztiak goituten dauzala. Azkespen-ereari begiratuten badautso-gu, Jaungoikoak zoñak bazterbako maitasunez azkesten dauskuz; guk, bañiz, geure geideari maitasun uñiz: Jaungoikoak bereala, guk ostera nekez; Jaungoikoak atsegiñez, guk, bañiz, musinka; Jaungoikoak ain biotzez, gure obenak itxaso zakonera, iñoz ganera urtengo eztiran lez, yaurtiten dauzala; guk bestera, ain epel eta azaletik, beti uraren ganian dagozala esan geinkela; ain nekez euren gomutia galdu daroagu.

Eztautsagu, ba, *lez* ori arautzat ekañten, baldintasuntzat baño. Eta ez gero beteteko baldintasuntzat; beterikotzat edo orduantxe beteten dantzat baño. Eztogu, ba, esan bial: *Azketsi eiguzuz geure zoñak, geuk azketsiko dautseguzan lez, geuk*

*azkesten dautseguzan lez* baño. Eztagi-  
gun atzipelariak lez egin: onek, itunbena  
bete baño lenago, eskatuten dabena emo-  
ten bayake, gero edo eztabe beteten, edo  
gustiz astiro dabiltz eginbea' ori beteten.

Baña *lez* ataltxu ori baldintasun eta  
arautzat a'rtu gura badozu, Aba batzuk  
aituten dabela dirudianez, etzara begitan-  
du bia' Jaungoikoari osotasun - arautzat  
ipinten dautzazula, lain - arautzak baño.  
Ezta osotasun - araua: ¿nor gara, ba, gu,  
lu'eko a' zanta'ok, Jaungoikoari, bere  
egikunak osotasunez egiteko, neu'iak  
emon gura izateko? Beragandik neu'io'k  
a'rtu bea' doguz, eztautsoguz emon bia'  
(Mat. 5,48). Lain-araua da: geuk gei-  
deari azkesten dautsagun maitasunaren  
neu'ian, Jaungoikoak be azketsiko daus-  
ku. Guk egiten ezpadogu zearo bea'rtuak  
gagozana baño besterik, au da, ira'nak  
azketsi; olantxe ba'din egingo dausku  
Jaungoikoak. Guk o'rezaz ostian onegin  
berarizko ta ugariz ordainduten badautse-  
gu, olantxe Jaungoikoak be egingo daus-  
ku (Mat. 7,2). Begira,ba, *lez* zelango itza  
dan; itz-atal egiz txikia, baña ain mamin-

tsua, ta berau egosteko ta ausnaítuteko egun osoa naikoa elitzake.

*II—atala.*—Begira, *lez* ataltxu au emen zuzen-zuzen ipiñita ete dagoan ezpairik eztagoala. Baña, naikoa dala dirudi aítuzat emotea itunben ori ain argiro esan-ezañen. Edo azkespena Jaungoikoagandik yadesteko baldintasun beañ-beañtzat aítuten da: eta baldintasun ori Kristo'k naikoa ipiñi eban, esan ebaniñan: *Otoi-egitean, azketsi egizue, ezertan iraundu bazaituez, zeuen Goiko Aitak be zeuen obenak azketsi dagizuezan* (Marc. 11,25); edo lain-eko arautzat aítuten da: eta esan-gura onetan be naikoa aginduta dago arako bere beste itzoetan: *Zeuek epaituten dozuen lez, epaituko zaituez* (Mat. 7,2). ¿Zetarako gauza da, ba, Kristo'k gura izatia ataltxu au beti bañiro argi ta garbi ipiñi daiten, iñoz be geure bizi-tzaldian *Aita gurea* ezin esan geinkela, geuk be azkesten dogula, Jaungoikoari argi ta garbi ta zeatz agertu barik? ¿Zetarako ete dan? Askotarako. *Aita gurean*, ba, Jaunari geure zoñak azketsi dagiguza-la eskatuten dautsagunean ¿geure zoñdu

nai azkesteko erabagita gagoz ala ez? Erabagita bagagoz, *geuk azkesten dautseguzan lez* beriala geitutea, zirikagaritzat yaku biotz-biotzez eta osoro azketsi dagigun: *lez* ataltxu ori, ba, lain-eko arautzat aurkeztuten yaku, eta geuk azkesten dogun neuriz Jaungoikoak azketsiko dauskula, gomutarazoten dausku. Bariz, orduan azkesteko erabagita ezpagoz, *geuk azkesten doguzan lez* beriala ezañtiak, geure baruan sartueragiten gaituz, Jaungoikoak geuri azkesteko baldintasun beañtzat aurkeztuten yaku-ta, eta gomutaratuten dausku, baldintasun ori bete-ezik, alpeñikoa ez-eze, zorakeria be badala eskaña itxarotia.

Orezaz-ostian, esaidazu ¿zelango lotsia izango da zuretzat, *Aita gurea* egunero agirian eta ixilean esatian, oartuten badozu egin daroazula ain bayezka Jaungoikoari diñotsazunez bestera? Bakaldunari daroakozun eskabide baten, guzuean artu zaituala, batez be egia estalduten dauan guzuean, ikusten badozu, guztiz lotsaturik geratuten zara, ta gizon onaren izpirik badozu, lurpian estaldu gura izango zen-

duke. Eta, oraitiño be, ezpai barik esango dautsazu ainbeste bideŕ Jaunari azketsi daizula, zeuk be zeure geideari azkesten dautsazula - ta, bultzagai au egiz guzuŕ utsa izanik? Ondo legokizu, *Aita gurean* elduten zarianean itz oetara: *geuk geure zoŕdunai azkesten dautseguzan lez go-kaizto (diabru) guztiak zeure aldean dea-daŕez legokezala: «Guzuŕa, guzuŕa, ezta olan: ondo dakigu ainbeste ilabetetan ur-liari ta sandiari ta berendiari aguŕik eztautsozula egiten, ainbat gitxiago egiazko gentzaren ezaugaŕiak diran adeyaren eta maitasunaren egintzak darabiltzuzala. ¿Eta zu Jaungoikoari azkesten dozula esaten azaŕtuten zara?*

*III—atala.*—Begira, beaŕba zuk, agi-raka ain zuzenetatik iges-egiteko, esango dozula, *Aita gurea* esatean, agirian gu-zuŕtitzat agertu-eragiten zaituezan itz go-gaikoyok izteko bidea aŕtuko dozula. ¿Zu-re asmu ori baŕiya dala uste ete dozu? Kasiano (Coll. 9, c, 22) irakuŕi egizu, eta ikusiko dozu orixe egin eroyela lekaideak baño aztiak, euren otoikeran, geyago zirudien batzuk. Ez bekizu jaŕen! arei yaŕ-



aituterik iñoz gogora etoñi. ¿Itz-dagiozun Goiko Aita, *Aitagurean* izten dozun utsu-nea ez ikusteraño aztuta edo oarkabe da-goala uste ete dozu? Ixilik izten dozuna ta zegaitik izten dozun Berak ondo daki. Ezegidazu, bañiz, esan, Jaungoiko ain itzaltsuari guzuñik ez ezatearen olan dagi-zula, Jaungoikoari zoñ yakon itzaltasunak bere aurrean guzuñik ez esatera (azketsi barik azkesten dozula esanaz) zirikatuten bazaitu, ¿zegaitik, ba, etzaituz bere esana egitera zirikatuten, azkesteko? Ezta ori itzaltasuna, zeure buruaren lotsia da, egoera txara ikusten dozularik, oñtik urte-teko biotzik eztaukazulako.

Egizu, ba, neure esana. Esaizuz aitatur-iko itzak, eta osorik esaikezuz, beañ dan lez; eta esatian, zeure argaltasun aundia dala-ta, zeure biotza aldatu ezin badozu, beñepein bigundu ta aldatu gura izan egi-zu. Olan, orain azkesten ezpadozu-be, beintzat azkesteko asmua badaukazu. Eta, beraz, itzok «*geuk geure zoñdunai azkes-ten dautseguzan lez*» diñozuzanian, ezto-zu guzuñik esango; ez bakañik guztien izenian diñozuzalako (baña ori asko balitz

Deun guztiak eleukie ain gogor itz-egin-go, esan eta beteten eztabezanen auzez-ka), baita be, orain bestiak lez azkestera eldu ez-añen, oretarako bidean aurkituten zarialako.

Txañena litzake olako guraririk be ez eukitea, ta eukiteko alegiñik ez egitea. Eta orduan ¿zer gura dozu esan dagizudan? ¿Biar-ba, *Aita gurea* eztagizula esan, aitaturiko itzak itxirik, erdibitu beañ ezta-la-ta? ¡Ez orelakorik! Diñotzudana da, orduan *Aitagurea* esatean, apaltasunez agertu dagiozula, zuk kristañ guztien izenian baño ezin egoki esan zeinkela; zuk, zarianez ta zeure izenian zeure zoñen azkespena ezin eskatu zeinkion - ezkerro: zeure geideari azkespena ukatuten ain gogortua zagozalako.

*IV—atala.*—Begira, Jaungoikoak geuri azkesteko, geideai azkestea, baldintasun beaña izan-añen, baña eztala oretarako naikoa, batzuk uleñtu ebenez. Geideari emon daroakozun azkespenaz batera, iñañkun loyak izten ezpadozuz, kendu zeuntsan izen-ona nai ogasuna biurtuten ezpadautsazu, ta Jaunaren beste agindu

guztiak beteten ezpadozuz, egia da eztautzuzala zoñak azketsiko, zuk irañak zoñdunai azketsi-añen. Bayezko aginduen eta ezezkoen artean Idazti Deunean alde au dago: bayezkoa, esaterako: «*Ziñesten dauana ta uguztuten dana, gaizkatuko da: ezezkoa: Ziñesten eztauana, betiko galduko da* (Marc. 16,16). Ezezkoak muga-barik aituten dira eta, beraz, egia da betiko galduteko ez ziñestutea asko dala; baña bayezkoak beti uleñtuten dira muga onegaz: *bestetan utsik ezpada*. Begira, beraz, geure burua gaizkatuteko, ziñispena ta ugutza bakañik asko eztirala, ziñausleak gura leukien lez; ugutz-ostian, daukan ziñistearen arauz bizi izatea beaña dala.

Gure gai onetan be bañdin yazoten da. Zuk zoñdunai euren irañak azkesten ezpadautsezuz, Jaunak zeuriak eztautzuzala azketsiko gauza argia da; esakun ezezkoaren baldintasuna auxe da-ta, Kristoren esakun au, bañiz, olangoa da: *Gizonai euren obenak azkesten ezpadautsezuez, zuen Aitak be zeuenak eztautzuez azketsiko* (Mat. 6,15). Eta, beraz, muga barik

aituten da. Baña guk azketsi-añen, ori ezta asko Jaungoikoak guri azkesteko, bayezko esakunaren baldintasuna orixe da-ta; oñen ondoan aurretik Kristo'k ipiñiriko alangoxea da: *Gizonai euren obenak azkesten badautsezuez, zuei be zeuen goiko Aitak zeuen deungakeriak azketsiko dautzuez.* Eta, beraz, esandako mugaz aituten da, au da, Jaunak aginduten dauan beste guztia bete daitela. Izan zaitela garbia, zintzoa, neurizkoa, ekandu onetakoa; osterantzean eztago ezpairik, zoriona irabasteko, irañak azkestea naikoa ezta.

Oraitño be, eztogu uste izan bea' Kristo'k egizko aginduak baño ospatsuak ge-yago dirudienak egiten dauzala, ainbeste bide' ta eratan, azkespena yadesteko bidea, geure geideari azkestea dala diñoan. Geideari azkespena emotia, ba, Jaungoikoagandik yadesteko laingo egin-tza, berez, izan ez-añen, baña, Jaunari ain gogokoa berez yakolako, sa'itan gizonen biotzak aldatutera Jauna bultzatuten dau, a'riga'izko eran be, Joan Gualbertagan yazo zan lez, ga'rbaitu ta biu'rtu erazoteko

ta Jaungoikoagandik azkespena yadeste-ko biar dan beste guztia éraz bete eragiteko. Bañiz, ez azkestiagaitik, iñoz eldu da Jauna ziñopa (martiri) izateko uréan egoana Beragandik yaurtiteraño, zoritxañeko Saprizio'gan yazo zanez.

Begira zein ardura aundia euki biar dozun alde onetan zeure Goiko Añar atsegiña emoteko. Berak Aita ona lez, bere etxian gentza batezbe ikusi gura dau. ¡Ai! beti asañez ta eztabaidaka ta buñuka dabilzanen érukañiak! Ezpegie onik aitagandik itxaron; seme gentzatsu ta onak gorestutea zuzen dan bestean, zaratatsu asañekoyak beratu ta zigoñkatzea beaña da. (I. Cor. 14, 33).

## XII—GOGAÑTEA

Ta ezkaizuz itxi ziltzaldian (tentaziñuan)  
yausten

1. *Éruen garbaya badozu, bañiro Jauna iraindu zeinken yausbidietatik yagon zaizala eskatu egiozu.—Ziltzaldiak izango dira, baña goituak izango gein-tekezala dakianetatik yagon gaizala,*

*yausten itxi barik.—2. Ziltza kaltekoak bitarikoak dira barutikoak eta atetikoak. Euren lagun goteungia diabrua be badabil. Iru areriyoetatik yagoteko zeure aldetik alegiña eginda, Jaunaren laguntza beara yatzu. Ernai egon eta otoi egin.—3. ¡Ai! zeure guraz oñak ziltzasarean sartuten bozuz.—Ez egizuz ziltzagileak axatu. Bizibide bearez, agintzaz nai goimaitasunez sartu bazara, otoi-egin ez yausteko.*

*I—atala.—*Begira, garbaya ure ontzat donokian artu baño lenago, erabagi-arian aztertu bea dala. Eta beraz, gure Aitari egindako irañen garbaya agertu gura badautsagu, ori inoz geyago ez irainduteko egin dogun erabagia bene-benetan agertuten dautsogula izango da; egizko agerbidea orixe da-ta (Eccli. 35, 3). Ori, bariz, ezelan be ezin geinke obeto egin, Bera bariro iraindutera eroan giñeizan guztitik aldendu gaizala, eskatuten dautsoegula baño. Bada, gu geurez, oben-bide barietan sartzera ez yoan bageintekez-be, arako «*Deungakeri guztitik yagongo naz* (Ps.

17, 24) iñoana lez; baña eurak geure bila ez etoítia ezin geinke egin.

Oraitño be, etzaitez begitandu, emen Jaungoikoari diñotsagunian *Eta ezkaizuz itxi ziltzaldian...*», ezelan-be ziltzatu ez gaitezala eskatuten dautsogula. Lenengo, ori ezin izan leitekkelako, gure bizitza guda-tokia danezkero (Job. 7, 1). Bigaíengo, onuratsua elitzakelako, ziltzaldiak, eroaten dakianari, ainbeste on dakazkiozan-ezkero (Jac. 1,2). Irugaíengo, ori egokia elitzakelako; burestuna gura izatea, guda guztitik alde egiñik, bidezkoa ezti-rudian-ezkero (Job. 3, 21).

Bakaírik eskatuten dautsagu, ba, ziltzaldian yausiko garean eran ezkaitezala ziltzatu, txoriak, oreñak eta basauntzak eta alango abereak sarietan yausten diran lez, eurretan arapatuta geldituten dirianean. Beraz, Jaunari eskatuten dautsaguna da yagon gaizala, ez edozein ziltzatik, yausiko gintzakezala Berak dakianetatik baño, nai atsegiñaren gozoak erakaírita, artagaraun bategaitik sarietan arapetan izten diran txoritxuak yazoten yaken lez, nai nekiak eratzita, oreñai, basauntzai ta bes-

te abere basatiai yazoten yaken lez, eiztariak yazañi ta estuturik, besterik eziñean, oñen lakirioetan yausten diranian. Au ateraten da Jaunari emen itz-dagiogun eratik, diñogunean: *Ezkaizuz itxi ziltzan yausten.*—Onuratsuak yakuzan beste ziltzetan, ezkara yausten, zutunik gagoz, sareganean lez geratuten gara. Eta, beraz, ezin esan leite Jaunak euretan yausten izten gauzanik. Kaltekoñak yakuzanetan, oñetan bai yausten izten gaituz, ez Berak yausteko bultzakarik egiten dauskulako, yausten izten gauzalako baño. Izkuntza yaungoañean Jaungoikoaz be olantxe itze gin daroagu, giza-izkuntzan lez.

Jaungoikoak gure biotza gogoñtuten dauala esan daroagu, arako une atan laguntza eragilea emoten ezpadausku, gogoñtuta geratuko gariala añez ikusirik, emoten eztauskunean, eta gogoñtu gaitetzan izten dauanean (Is. 63, 17). Gure begiak itzututen dauskuzala esan doya, itsutu gaitetzan izten dauanean; gure belañiak itxiten dauzala, geuk itxi daiguzan, izten dauanian. Baita bere aginduetatik alde eragin dauskula esan doya, geuk alde



egin daigun izten dauanian (Ibid.)—Bar-  
din, emen, Jaungoikoak ziltzan yausi era-  
zoten gaituzala esan doya, bertan yausten  
izten gauzania (Ps. 65, 11).

Auxe, ba, izan bedi zure asmua Jaun-  
goikoari itzok diñotsazuzanian: *Ezkaizuz  
itxi ziltzaldian yausten*. Berak bere amai-  
bako yakintzaz goñtuta geldituko zintza-  
tekezala dakian ziltzan ez zagizala iñoz  
itxi. Beraz emen, zuzen eta garbi itz-egi-  
ten dogula, Jaunari gauza bi eskatuten  
dautsaguz, biak azkenez batean sartuten  
dirala. Lenengo, ziltzaldian ez yaustea,  
au da, tokirik ziltzari ez emotea; ta ori da  
oben-egitetik yagon gaizala. Bigarengo,  
yausiko ta toki emongo geunskiola añez  
dakian ziltzarik eztakigula etoñi: au da  
geure argaltasuna apaltasunez autoñtutea,  
ta baita ez yausteko daukagun gurari aun-  
dia be.

*II—atala.* — Begira ziltza kaltekoñak  
era bitakoak dirala. Batzuk barutikoak,  
eta beste batzuk atetikoak. Lenengoak  
geugan dagoan berezko leratik yayoten  
dira: bigarenak atetik eta geugandik-at  
dagozan gayetatik yatoñkuz. Lenengoak

aragitik datozala esan doya: beronek bañu-ko zirika-bidez bitara garoaz: gogoak berez gura dauan onetik aldendutera, ta txarkerira zirikatutera. Bigañenak ludiya-gandik yatoñkuzala esan doya; beronek be, aragiyak lez, egin daroalako; au da, onetik alde-eragin eta deungakerira zirikatatu. Baña eztau, aragiak lez, era batera bakañik egiten. Aragiak, ba, leunkeri bidez bakañik egin daroa, Dalila'k Sanson' egaz egiten eban lez. Leunkeriz, bere onikusgai guztiak eskeñirik, eta yañkiz, irañak, espetxeak, nekeak eta oñaze ikaragañiak betaurian ipiñirik.

Egia da, ziltzagile kaltekoñ biok eleitekezala ain altsuak izango, gaiztokitik (sulezetik) laguntasun indañtsuak beti ezpaletoñkioez. Eta olan, gu ziltzatuteko, ludia, aragia ta gokaiztoa, irurok alkañtuten dira: eta gokaiztoak era bietako ziltzetan, nai bañutikoetan, nai atetikoetan, lagun egiten dau, aragia zirikatorik beti diñotsala Dalilari filistindañen bidez iñotsana gogoari berein leunkeri egin dagiozala, goituteko ta bayetzera erakañteko. Eta atetikoetan, ludiari geituaz batzuetan bere

atzipena, beste batzuetan bere asareá, aldi eratione neuriz onen kaltez sumindu eraginik, Saul David'en kaltez suminduerazo eban lez (I. Reg. 16. 14). Beraz, gokaiztoak berez ezer ezin dagike.

Augaitik, zeure bañuan esakun auxe yosi beañ dozu, gokaiztoak aragi ta ludiaren bidez baño kalterik ezin egin legikizun-ezkero, zure aurrengo ardurea aragiagandik zeure burua yagotea izan bedi; au zeugandik une baten be aldenduten eztan bañutiko ziltzagilea da-ta; ez bakañik zaukaz, Dalila'k Sanson lez, besartian oratuta, baita zeure erayen bañu-bañuan sartuta be bai-dago. Bigarengo, ludiagandik zeure burua zaindu beañ dozu, berak alde guztietatik artuta zaukaz-ta: edozein aldera itzuliten zariala, bildur zakioz, David'eri yazoten yakon lez, Saul'ek uri ta baso, etxe ta arzuolo, toki guztietan yarkirik. Irugarengo, gokaiztoagandik zeure burua yagon beañ dozu; onek zu azpiratuteko indar gitxi dauko, zu aragiagandik ondo yagoten bazara, Sanson'ek Dalilagandik egin beañ eban lez; eta ludiagan-

dik ondo yagoten bazara, Dabid'ek Saul' gandik egin eban lez.

Baña ez eikezu uzte izan, zuk iru arerio gogor' oetatik zeure burua yagoten alegin asko egin-añen, alpe'ekoa izango dala Jaunari beti esatia: *Eta ezkaizuz itxi ziltzaldian yausten.*—Bada, ardura aundia ipiñi-añen zeure aldetik zeure burua aldeztuten, oindiño Jaunaren laguntasunaren bea' aundia daukazu. ¡Ain sañiak eta gar'aitsuak dira zuk au'ez ikusi ezin zeinkezala une bakotxian eto'ri leikizuzan ziltzak! *Ernai egon eta otoi egizue*, diño Kristo'k, *ziltzaldian yausi etzaitzen* (Marc. 14, 38). Ezta naikoa ernai egotea, otoi egin bia' da, lapu'ekaz egiten dan lez: eurakandik ondo baka'rik aldeztuten da, ernai egon eta ausokoen laguntasun-bia, deada' dagiana: ¡lapu'ak, lapu'ak!

*III—atala.*—Begira zorakeri zein aundia litzateken zuria, iru ziltzagile malmutzok ziltza-sarean a'apatuteko eraso dagizuen itxaron barik, zu zeure oñez bertan sartutera baziñoakez. *Jausiko ete da egastia lakirioan eiztari barik?* (Amos. 3, 5)

iñoan Amos iragarleak, yazo ezin leiten gauza bat lez. Auxe da, ba, yazoten dana, ziltzaldia itxaron barik, zeure oñez ziltzaren bila zoazan bakotxian: au da, bearik eztozula Jaungoikoa irainduteko obenbide lañian yarten zarianean. Jakin bear dozu, ba, aldi oetan alpeñik Jaunari eskatuten dautsazula, ez zagizala itxi ziltzaldian yausten. Jaungoikoari iri-egitea lez da, ziltzaldian ez zagizala itxi yausten eskatutea, zeure guraz dei-egitera zoazanean.

Otoi au, ondo oartu badaizu, ezta zuzenduten geu geure guraz, geure yolaserako ta ikus-gureaz sartuten garean sarrietatik Jaungoikoak yagon gaizan; geuk gura eztogula, eta auñez ikusi ezin dogula, geure arerioak ipinten dauskuezanetatik yagon gaizan baño. Olakoak ziran Dabid' eri ipiñi eutsiezan sareak, iñoanian: *Eriotz sareak auñez ipiñi eustiezan* (Ps. 17, 6). Osterantxian, ba, yakiña da, Sanson lez, nobere guraz sarietan sartzera doyana, euretan lotuta geratuten dala. (Job. 18, 9). ¿Nok eukiko leuke txoritxuen erukia zareak ezagututeko adiñik ba-

leukie, eurretatik iges ez-egitean? Eruki gatxakoez, ain pozik sarietara doazanian, nora doyanan eztakien egaztitxuak diralako (Prov. 7, 29). ¿Nor erukituten da ulabio-abia axatutera doyanaz? ¿Nor, sugea axatutera doyanaz? ¿Nor, abere-piztiak zirikatzena doyanaz? Inor bez. Zuk, ba, bardin egin daroazu, zeurez ziltzagileak zirikatzena zoazanian. ¡Eta gero, erasoten ba'zaitue, Jaungoikoa eruki dakizun gura izango dozu ta Berak yagon zagizan.

¿Bakizu otoi au noz egin bear dautsazun Jaunari entzungo dautzulako uste osoaz, oben-bidea zeure bila etori ez-aien, eta bai bere bila yoan? Olako bidean sartu edo sartzen zarianean, zeure langintzak beartuta, nai agintza beteteko ta goi-maitasunez; Judit'eri yazo yakon lez, Olofernes deungien bila onen etzauntzara yoan zanian; ta Jaungoikoari uste osoaz eskatu leikeon gizon ori ta oren leunkeriak ezesteko, ta obenean ez yausteko indara (Judit. 9, 14). Bera etxoyan bere eria ainbeste gatxetik yagoteko gura ta maitasunez baño. Bana, aldi-oetan izan-ezik, zeure guraz ziltzabilta bazoaz ¿zelan gura deutzazu Jaunari

eskatu euretatik yagon zagizan? *Galtzoria maite dauana, bertan galduko da* (Eccli. 3, 27). Galtzoria maite dauala ezta esaten, bertan asmo onez sartuten danak, ori onura barik dagianak baño. Onura barik, ba, zeure sarea dan ziltzaren bila bazoaz, bere bilaldean pozez yostatzen bazabilz, ez egiozu Jaunari yagon zagizala eskatu, ori alatzak (mirariak) ezkatutea litzateke-ta, zeuk zeure yostaketak azkatasunez atsedeteko. Elitzake ori Jaunari ziltzaldian ez zagizala itxi yausten eskatutea, ta bai Jauna bera zirikatutea. (Mat. 4. 7).

### XIII—GOGARTEA

Baña gatxetik yagon gaizuz.

Amen olantxe

1.—*Aureko eskari bietan be gatxetik jagon gaizala eskatu dautsagu: emen gaitz guztitik.—Oben eta oben-nekiaz ganera ludiko bestietatik. Azkenengo iru eskariak lenengo irurari erantzuten dautse. Edo lengo guztien laburpena lez da azkenengo au.*

2. *Eskari au bizitz-onetan berez edo erabagiz edo zoritxarez yatorkuzan gatxetara aldatu ezkerro, Jaunak gu yagoteko daukazan erak.—Ezta gatxa ontzat eta ona gaiztzat artu bear.—Zein dan emengo gatxetatik ateraten dan onik aundiena.*

3. *Zergaitik Amen itzaz amaituten dan, eta zer esan gura dauan.*

4. *Amen itza yakingeai be ondo yatorke.*

*I—atala.* — Begira azkenengo eskari bietan Goiko geure Aitari gatxetik yagon gaizala otoi egin baño besterik eztozula egin. Oregaitik azaltzaleak biyai, azkenengo oneri lez, azke-otoyak deritxoez; otoi utsak eta azke-otoyak alde aux dauke: otoyak onen bat yadesteko zuzenduten dirala, ta azke-otoyak gatxen batetik yagoteko. Geure zorak azketsi legiguzala esan geuntsanian, ¿zer besterik zan ori lenagoko obenetatik eta euren bigdez irabaziriko nekietatik yagon gengizala baño? Ziltzaldian ez giñazala itxi yausten esan geuntsanian, ¿zer besterik egin



genduan bañiro beste oben batzuk egitetik eta euren bidez irabaziko geunkezan nekietatik yagon giñazala eskatu baño? Oin askoz geyago eskatuten dautsagu, gaitz guztitik yagon gaizala eskatutea lez data. Onetarako oartu beañ da, obenen eta zigoñkadatza eurai yagokoezan neke-gatxez ostian, aldikiak deritxoen beste gaitz asko be bai-dirala; eta bizitz-onetan guztiak eroan beañ dabezan sasi ta lañak lez dirala, naiz-ta euren eruetasun eta zuzentasunagaitik luñ garbia lez izan. Oin aunetatik be yagon gaizala azkenengo eskari onetan eskatuten dautsagu. Gatxok, egiz, sasilañen antzekoak dira, bai minduten gabezalako ta bai zeinbatu ezin ala diralako; batzuk soñtzezkoak dira, gaxotasunak eta yakingetasunak diran lez; beste batzuk erabagizkoak, bakotxak daroaguzan yazarpenak, matxiñadak, eri-gudak eta abañ, eta beste batzuk, bañiz, zorizkoak, esan oi danez, etxe-ereteak, ibaiuriyolak, ogasun-galduteak, ekatxak, luñikarak, goseteak, izuñiak eta abañ. Guztioetatik yagon gura gauz gure Aita onak, txapañ ain txañak, bere aintzarako diran

egite onen igalia emoten galerazoteko eran gure biotzeko luía beteta ito eztagien. Baña, geyenetan geure otoi ta eskarien bidez yagon gura gauz (II-Paral 7, 14), ta oíregaitik Doibatz Amak (Eliz Amak) urteko egun guztietarako ainbeste otoi ta eskabide ipiñi dauz.

Beraz, itz gitxitan, azkenengo iru eskariak beste auñenengo iru eskariai erantzuten dautse, eurretan geuretzako ona zan gustia Jaunari eskatuten geuntzan-ezkero. Geure zoñak azketsi daiguzala Jaunari eskatutean, geure yarauntsi ta goiko zorionari uñen yañkiten yakonetik yagon gaizala eskatuten dautsagu: onek, bañiz, obenak eta eurakaitik zoñ yakuzan nekiak dira. Eta, beraz, *Azketsi eiguzuz geure zoñak* diñoan eskari onek *Zure ala (bakalderia)* *betoñkigu* diñoanari erantzuten dautso. Ezkaizala itxi ziltzaldian yausten eskatutean, Jaunaren gura deuna egiten eta geugan egin daiten uñen galazoten daskunetik yagon gaizala eskatuten dautsagu: olangoak dira, yausiko gintezala, erasoten Berak itxi-ezkero, ikusten dauan ziltzak.

Eta, beraz, *Ezkaizuz itxi ziltzaldian yausten* diñoan eskari aunek *Zure gurea egin bedi* diñoanari erantzuten dautso. Azkenez, gaitz guztitik yagon gaizala eskatutean, egunoioko nai gogoaren nai gorputzaren yanaria ornitzea galera zoten dauskunetik yagon gaizala, au da, giza-bizitzako ainbeste zoritxařetatik, eskatuten dautsagu. Eta, beraz, *Baña gatxetik yagon gaizuz* eskari au, *Eguneroko geure ogia iguzu gauř* diñoanari yagoko.

Baldin esan gura ezpadozu azkengo eskari au auřeragoko beste guztien labuřpena dala. Baldin dalarik Jaunari Gatxetik yagon gaizala esatia nai beste eskarietan eskaturiko on guztiak emon dagiguzala; eztagiala bařiz, ondo irabazita daukaguzan gatxetan yausi gaitezak laketu. Emendik ateraten da gauza zuzena dala *Gatxetik yagon gaizuz* diñotsagun guztian, apaltasun aundiagaz otoi au egin dagiozula, zeure burua ez aunen ala beste gatxaren zořdun, baita gaitz guztien zořdun be eřagututen dozula.

*II—atala.*—Begira, eskari au zuzenenak ludi onetan eroan beařian auřkituten

diran soítzezko nai erabagizko nai zorizko gaxetara mugatu gura izan-ezkero (azalpenik onena dirudi-ta), eztozula uste izan beaí Jaunak euretatik yagon giñeizala olako gaxok eztakiguzala yazo egiñaz bakaírik, Lot eíugea uri deungai bialduri-ko suzko ondamenetik yagon eban lez, auíez andik urten-erazota (Gen. 19, 29). Olako yagokerea, yagokera osoa gaitz guztitik, negaíezko eíi onetan ezin yade-tsi geinke. *Baña gaxetik yagon gaiuz* esatian ori gura bazendu; ori, itz gitxitan, donokira bereala eroan zagizala eskatutea da: antxe ez goserik, ez egaíirik, ez lorik ez beste gaxik, ez bakaírik erabagizko edo zorizkorik, ezta soítze-utsezkorik be, ezta eroan biaí (Rom. 8, 21). Gura badozu, ba, eskatu olako gaxetatik zaindu zagizala, Jaungoikoak nekien bidez zori-ona irabazi daigun ipiñi gauzan bizitz eíukaíi oneri yagokonez, eztautsozu eskatu biaí edozelango gaxetatik azke egotia; eskatu egiozu zaindu zagizala bere ardura yakintsuári gogokoagoa yakonez. ¿Uste ete dozu eztaukala Jaunak gu gaxetik yagoteko beste biderik, gitxien yagokun

ori baño? Bai beintzat, beste iru ori baño goragoak daukaz.

Lenengoa da, gatxa ostaz oartu ta oso eñaz eroateko bestian pozez bigundu ta arinduaz. Jakob'gaz olantxe egin eban, bere anayaren asaretik iges yoyanian, bidean ainbeste bideñ agertuten yakola eskeintza edeñez indartu ta pozarazten eballa, donokia zabalik erakusteraño.

Bigañena, bañiz, gaitz ori beste onakaz bañdinduteraño nastuaz. Olantxe egin eban Daniel'gaz, buztañpetasun samintsuan euken bakaldunen auñean eskaña aurkitu legiala egiñik.

Irugañena da, daroagun gatxa on aundiagoan aldatuaz. Olantxe egin eban Joseba'gaz, saldua izatea bere zorionik aundiena izan zan-ezkero.

Emen, ba, Jaunari diñotsazunian. *Gatxetik yagon gaizuz*, eztozu gura izan biañ Jaunari (olan esan daigun) eskuak lotutea, olako edo alako gatxa eztagizula bialdu eskatuaz, zer obeto yagotzun ezta-kizu-ta (Job. 36, 24), bakañik eskatu beañ dautsazu bere gorespen aundiagorako dala dakianez yagon zaizala. Oñenbestez

gaitz aretik guztiz yagon gura bazaituz, zuri ezelan be bialdu barik, betiko onetsi bedi (Eccli. 51, 4). Olan egin gura ezpadau, yagon zagizala, zuzenago deritxon lez (Ps. 30, 2). Gaitz ořetan poztu ziñeikez, osta-ostaz oarřtuko dozun bestian, Jakob'gaz egin eban lez. Eta au da gatxari bere samintasuna kendutea (II. Cor. 7, 4).—Beste ainbeste onegiñez barřdindu leikizu, astuerazoten edo ezetsi-erazoten dautzula, ezer ezpailitz, Daniel'gaz egin ebanez. Au barřiz, gatxari samintasuna ez-eze, baita kaltea be kendutea da. Eta gaitz ori on aundiagora biurtu legikizu, Jose'gaz egin eban-lez: auxe da Jainko-yakintzaren erabidea: samintasuna poz aundiagoan eta kaltia onegin aundiagoan biurtuten dauala (Gen. 50, 20).

Oarřtu, ba, emen zelan Jaungoikoari itze-egin bearř dautsazun. Etxako esan biarř: *Naigabetik yagon nagizu, gatxetik yagon nagizu* baño; naigabia askotan ez eukitia baño aundiagoa dan onian biurřtuten da: eta au olan izanik, etxagotzu ondo, zuk gura etzeunken neke ořetik yagon zagizala eskatutea; bakařik yagotzu

gatxetik zaindu zagizala eskatutea (Ps. 120, 7). Osterantxian, ona txarizat eta txara ontzat aritu daroenetariko bat izateko zorian zagoz (Isai. 5, 20). Orezaz ostian, bizitz onetako gatxetatik ateraten dan onik aundiena, eurak gentzaz eroaten yakiteko ekandua aritutea dala gomutau eikezu. (Roman. 5, 3). Beraz Jaungoikoak, daroazuzan gatxetan, on ori emoten badautzu, eztozu besterik eskatu bira. Orenbestez bakaik gaitz guztitik yagon zauzala esan daiteke.

*III—atala.*—Begira, *Aita-gure-ko* otoryan Aita betikoari eskari ain goratuak egiten yakozan ezkerro, amaitu bea litzatekela, dirudianez, Doibatzan (Elizan) ain oitua dan onako azkenaz: *Jesukristo zeure Seme ta geure Jauna'gaitik* eta abar; eta ez *Amen* utsaz; onek, ba, ezin emon legio bestiak emongo leuskiyon indara, Jesukristo'ren irabazien gomutia bitartekotzat ipinten yakola, otoy Jaungoikoari gogokoagoa egiteko. Bana, otoi au bere aoz esan eban Jesukristo berberak bestera agindu eban. *Amen* utsaz amaitu zaitela agindu eban. Etzaita aritu. Lenengo,

Berberak abots beteaz Bialduakaz batera sañi esaten eban-da, (Irakasle askok diñoanez), etzirudian egoki bere burua bitartekotzat ipiñi legiala, Aita laztanari eskatuten eutsana ez bakañik bestientzat, baita beretzat be bazan eta: ez beretzat aintzat lez, bere yañaitzaleakaz egin eban gogo-gorputzaren buru zanez baño. Bigaño, Aitak otoi onetan bere Semiaren itzak, ikuñak, esakerak eta abañ, ezagututen dauzalako, eta etzan beaña auñean ipinten dautsaguzan eskarietan bere Semea gomutarazotea, Seme oñen aginduz eta Berak irakatsitako itz eta esakera bidez zan-ezkero.

Baña, *Amen* itzaz otoi au amaitu zeiten ¿zegaitik gura izan ete eban Kristo'k? Ona ba, etzan au be erabagi eñukitsuz baño izan. *Amen* itz au ebeñtaña da, baña esan-guraz bete-betea ta ezta iñoz laterara aldatu, lateraz esan-gura guztiak azaldu leikezan itzik eztagoalako. Baña itz gitxitan esatearen, bera diñogunian, auñetik ipinten danian, bayeztuteko indaña dauko: oñegaitik Kristo'k esan eroyan *Amen*, *nik diratzuet*: au bañiz ezta



zin-egitea, ozteak uste dauan lez, sendo bayeztutea baño. Ipinten danian, ez aur-etik, atzenian baño, ikuñ edo esangura bi daukaz: lenengoa egin dana bayeztu, onetsi ta ontzat emon; bestea, oñezaz ganera, alantxe yazo daiten gurari bizia agertu. Oregaitik, antxiña irakurten ziranean Jaungoikoaren agintz-auslien kaltez esandako dongeskiak edo gaitzespenak, batera batzanduta egoan eñiak erantzun bear eutsan: *Amen*. Eta Jaunaren agintzak yagoten ebazanai aginduriko onesp-enak irakurten ziranean be, *Amen* erantzun bear eban. Gaitzespenai *amen* erantzuten yakenian, guztiak batera bayeztutea ta ontzat artzea zan. Eta onesp-enai *amen* erantzutean, oñezaz ganera olantxe yazo zeiten gurari bizia agertuten eben (Ps. 105. 48). Oregaitik Dabid'ek, *Donetsi bedi Israel'go Jaungoiko Jauna gizaldien gizaldi guztietan esan-da-gero geituten dau: Eta eñi guztiak erantzungo dau. Olan izan bedi, alan izan bedi, au da, amen, amen*, eberkeraz irakurten danez; eta esanikoa olantxe yazo daiten gurari bizia agertutea da.—Olakoxe gur-

aria iragañi gura izan eban Kiprian go-  
tzain deunak, abots betean bere kaltez  
yakinerazoten zan eriotz - epaya, Kristo  
guñtuten ebalako, entzutean, berak ez  
eban besterik egin abots betian *amen*  
erantzun baño. ¡Ai zein aldintsua izan zan  
*Amen* ori!

*Aita gurearen* azkenian *Amen* diñogu-  
nian, ba, ¿zer esan gura dau? Alantxe  
izan daitela, alantxe yazo daitela, esan  
gura dogu (Ps. 19, 7). Eta beraz, ama-  
yerako itz-onek gure gogoa batuerazo-  
teko indaia dauko; Jaungoikoari egin  
dautsaguzan eskarien baten, bea-ba, adi-  
kuna bestalderatua bageunkan, amayera  
onetan zuzendu dagigun: au eskari bako-  
txari ezañita lez aituten da-ta, baña ain-  
beste bider ez ezateañen, azkenian ipinten  
dogu, guztiak bayeztuteko ikuñtzat eta  
izenbetzat lez. Eta au olan izanik ¿zegai-  
tik ain aldintsua dan itzaz ain yaramon  
gitxi egin daroazu?

*IV—atala.* Begira. *Amen* itz onek ya-  
kingeai be on aundia dakarkioela. Egia  
izan-añen, ba, elitekela kristañetan iñor  
egon biar *Aitagureko* eskari guztietan es-

katuten dana ondo elekien añako yakin-gerik, baña eztakienak guztiz asko dira. Olango edozeñek, ba, naskiro beintzat yakiñezkero, dakian lez, Doibatzak Jaunari eskatuten dautsana guztiz zuzena dala, *amen* itzaren bidez bere asmoa, bera baño goragoko ta yakintsuagoko burudunenakaz alkañtu daroa. Ta ori ziñiste biziaz egiñik, Jaungoikoagandik an eskatuten dana, yakintsuak baño ez gitxiago añtuten dau. Olantxe nekazari batek bakaldunagandik yadesten dau, egikari batek egiñiko gomutagañi baten eroaten dautsana, berak aitu-ezañen esakun aretako bakotxak diñoana: antxe eskatuten dautsana emon dagion daukan gurari bizia agertuaz bakañik.

Oregaitik Paul deunak ez eban gura txadonetan (elizetan) agiriko otoyak, guztiak beñipein, guztiak aituten ez eben izkuntzan egin zeitezana, onenbestez yakingeak euren ordezeko txadon-gizonak *amen* uste beteaz ta ziñiste biziaz erantzuten azkañtu legiazan (I, Cor. 14, 16). Osterantxian, eztozu uste izan beañ Doibatz-otoyak, zuk aituezañen, gauz-ezak

izango yatzuzanik. Naikoa da ziñiste biziz ta biotz-biotzez zeure gogoa Doibatz-otseñakaz alkaítu dagizula eurakaz *amen* esanaz.

Eztira gauz-ezak izango eurakaz Jauna igituteko: zuk yakin-ezañen, ba, daroakozuzan bitxi ta txingi ta ari-edeñen aldin eta saneuría, txingi ta ari-edeñak ezagututen dakiezanak lez, baña Jaunak ondo ezagututen dauz, ta, beraz, bañdin eskartuten eta onesten dauz, bere gorespenak zer diñoen eztakien umeakandik be ontzat aítu daroazan lez (Ps. 8, 3). Eta gokaiztoak (diabruak) uxatuteko ta iges-erazoteko be onak izango yatzuz: iran-sugeak uxatuteko liluratzalien itzak indaí bañdiña dauken lez, itz arek zer esan gura daben liluratzaleak aitu-ezañen, liluratzekak eskatuten dauan asmoz esan-ekero.

#### XIV — GOGARTEA

Aita gurea zelan esan biaí dan, eta bere gogartetik zelango onurak atera leitezana

1.—*Otoi-egiteak ikuí edo esangura bi*

*daukaz: bat estuagoa, au da, aŕenka eskatu; bestia zabalagoa, au da, gogaŕtu, otoya euki esan daroaguna. ¿Zein agindu eutsen Kristok bere ikasleai egiteko?—Irutariko lagunak Jaunaren bidetan: asibaŕiak, auŕerakoyak eta oso onak.*

2.—*Asibaŕiak Aita gure-ko eskariak zelan esan beaŕ dabezan.*

3.—*Auŕerakoyak, ostera, zelan...*

4.—*Zelan, baŕiz, oso onak.*

*I—atala.*—*Begira, Jainkozko otoi onen onura eztauala galduten, yakingeak lez, amen esanaz naikotzen danak egia izan-aŕen, baña beste on aundiago bat ateraten dauala ondo aituten dauanak, eta miñagaz bakaŕik, oi danez, esan ez-eze, baita bere eskari bakotxian adimenaren gogartez geldikunak be egiten dauzanak, loretan geldituta egoten diran erliak lez, eta gogaŕtu ta ausnaŕtu ta oneraspenaren ezko-tasun asko euretatik ateraten aleginduten danak. Baña otoi-egin itzak ikuŕ edo esan-gura bi daukazan-ezkero, bata estuagoa, aŕenka eskatu (Mat. 5. 44), eta beste bat*

zabalagoa, *gogañtu* eta *guk otoyá euki* deritxogu (Mat. 14, 23); zuzen da ziñes-tutea Kristo'k bere ikasliai esan eutsenian: *Olantxe otoi egingo dozue*, esan gura izan eutseia, ez bakarrik *olan eskatuko do-zue*, baita *olan eskaturik gogañtuko do-zue be*.

*Aita gure'*aren azalpen ugariagoaz, zein dan otoi ain Jainkozkoaren el-burua, zelangoa bere yatoñia ta irakasbi-dea, ez pilaan bakarrik, baita zati bako-txian, bein ikusi dozun-ezkero, guztiz eñaz izango yatzu zeure gogoa egunero bertan elikatutea (yanaritutea), eta bere eskariak beste ainbeste osagañi lez zeure gatxai ezañtea; edo beñipein beste ainbeste arin-gañi ta pozkañi izango yatzuz, beste ain-beste gezi lez darabilzuzala, gezi-ontzian batuta, bakotxa zeure besoko indañaren neuriz yaurtiten dozula.

Jaunaren bidean iru eratako lagunak dabilz: asten diranak edo asibañiak, auñera doazanak edo auñerakoyak, eta osotasun-era, deuntasunera, eldu direanak edo oso-onak. Asi-bañiak, obenetik ointsu urteni-koak, *Goyetan zagozan gure Aita* diñue-

nian, *Aita* itza lotsa aundiaz baña erabartera uste onaz esan bear dabe. Auferaturak, bañiz, uste onaz ta maitasunez. Osoonak, maitasunez eta aritasunez. Eta, era onetan, eskari guztietan bakotxa, bere gogoa geyago yanarituko dauan onura andik ateraten, alegindu beite. Olantxe egin daroe zelai baten bazkatzen inarduen aberiak, orduan bedaña yaten asten diranak, aziyagoak eta guztiz zendoak. ¿Zein mañatan ete zagoz? Edozeñetakoa zariala, bakotxak, aurkituten dan mañan, esandako inañkunean yagon bear dauan erea yakitea ondo yatoítzu.

*II—atala.*—Begira, asten diranen edo asibañien mañea geyago bayagotzu, ikusi bear dozula zein ekandu txarek geyen azpiratuten zauzan, eta, ori lasteren goituteko ta kentzeko, geyago lagunduten dauan eskariari zaletu zatxakioz.

Añokeriak azpiratuten bazauz, Jaunari sañi esayozu aintza ta gorespina bere ize-nari bakañik zoñ yakcia, ta ez zureari; eta beraz, bakañik *bere izena donetsi ta goretsi daitela*.

Zekenkenkeriak goituten bazauz, esayozu luditañak euren bakaldeña ipiñi daroen ogasun eta onen ardurarik eztozula gura, donokiko onak bakañik gura dozuzala, eta, beraz, *betorñigula bere ala, bere bakaldeña*.

Bekaizkeriak nekarazten bazauz, esayozu ori zugan yayoten dala, gizon baktxian Jainko-guramena, gentzaz bizi izateko, lagi gorena izan beañ dala aituten eztozulako: eta, beraz bere *gurea egin daitela, donokian lez ludian be*, eta berak goratu begi gura dauana, aberastu begi gura dauana, ta auñeratu begi deritxona: zuk, ezer zoñ etxatzun txiro eñukañi oñek Jaungoikoak ukañez emon gura dautzuna baño besterik eztozula gura.

Salokeriak edo yatunkeriak nekaltzen bazauz, ogi utsa be etxatzula zoñ esayozu, ainbeste bideñ sabela jainkotsat euki dozulako, yanarian beste asmorik guraria bete baño euki eztozun ezkerro; baña eskañez bakañik eskatuten dautsazula, eta, beraz gaurko zure eguneroko ogia emon daizula, ez zeure sabelaren jainko-aizuna auñerantzian naikotzeko, egiazko Jaun-



goikoaren otseña izateko indararak euki daizuzan baño.

Aspeñkoya bazara ta asañiak eroapena gogoñegia irudierazoten badautzu, Jaunari sañi esayozu *azketsi dagizuzala zeure zoñak, zeuk geidienak, urñkolagunenak, azkesten dozuzan lez*: eskari ta agerpide ori Jaunaren auñian sañi esanaz, goituko dozu zeure izakera minberakoñ ori.

Loikeriaren ekandu zañak bañiro yausi eragingo ete dautzun bilduñ aundia badozu, esayozu bañdin sañitan: *ez zagizala itxi ziltzaldian*; auxe da, ba, edozetariko eru guztitik azke gitxi egon doyazan ziltza.

Eta, azkenik, gogo-iñarkunak gitxi erabilita, ñagikeriak eta alpeñkeriak goituten bazauz, Jaunari sañi esayozu: gatxetik yagon zaizala: au da, gaitz guztien ituñburua deritxon alpeñkeritik yagon zaizala. Gaitz onetik guztiz urñin egoten alegindu beañ zara; ainbeste kalte dakañen gatxa da-ta.

*III—atala.*—Begira, auñeratuen maña obeto bayagotzu, zaleago ta gertuago zarean onoimenean begiak ipiñi beañ dozuzala, ta berari ekin; ez bestiak astuteko,

ondotzat eta eustazpitzat ipinteko baño, bestiak bertan úre, ari-eder ta altisteak lez, argi egin dagien: eun eder bat úre-ariztutzaleak artuten daben lez.

Zeugan zĩñiste bizia oartuten badozu, Jaungoikoak emoten dautzun zĩñismen argi ori zeugan egunero geitu ta bestiakan zabaldu daiten gura izan bear dozu, gustiak batera Jaungoikoaren gorespena bakarik bilatu dagiyen: *Zure izena donetsi bedi.*

Betiko zorionaren itxaropenak Jaungoikoaren asko egin eta jasateko indara emoten badautzu, eztozula gura ludi onetan sariztatu zagizan, beste bizitzan baño, esayozu: *Zure ala, zure bakalderia betorkigu.*

Jaungoikoaren maitasuna zure biotzaren yaube egin bada, eta bere jaube bakara izan daiten gura badozu, buru-maitakeriaren aztañenik be biziten izten eztozula, sari esayozu: *Egin bedi zure naya donokian lez, ludian be.*

Atsegin bayatzu zurtasunez ibiltea; onek eskatuten dau zure beartasun guztietan, nai gogokoetan nai gorputzekoetan, etzai-

tezala izan ez ardura gitxikoa oraingoaz, ez ardura la'egikoa gerokoaz; eta, beraz, sa'ri esaizu: *Emoiguzu gau' geure eguneroko ogia.*

Zuzentasuna guztiekaz ba'rdin egin daiten gura badozu, eta, askok lez, bestien etxian gogo' , ta zeurian e'rukiz, egin daiten gura ezpadozu, Jaungoikoari sa'ritan esayozu: *Azketsi eiguzuz geure zo'ak, guk geure zo'rdunai azkesten dautseguzan lez.*

Neu'ritasunak zeure gurari oke'ak ta, batez be, aragiaren biu'ritasunak gudakatzten zauzan loikeridunak eskuratu ta eutsin dagizan gura badozu, sa'ri esaizu: *Ezkaizuz itxi ziltza'dian yausten.*

Eroapen-zalia bazara, ta nekiak sendotasunaz eroan ez-eze, baita goimaitasunez euren bila be bazoaz, esayozu: *Gatxetik yagon zagizala;* ez gaitz iruditua dan gatxetik, esaterako, neke asko iragotia; gatxak daukan benetako gatxetik ba'ño; auda, asa'ez ala eroapen barik yasatea edo nekea iragotea.

*IV — atala.*—Begira, zeure-onez zerbait oso-onen ma'la oa'rgarian au'feratua bazi'ña, ezin izan leitela Onik aundiena,

Jaungoikoa, gogoratutean, Berarentzat al dan on guztia gura izateko opa gori gorian zure biotza ez ixiotutea. Baña, aundiena dan eta guztiak Beragan daukazan onari ¿zein on yagoko? Beraz, zure maitasuna zelan agertu ez-yakiñik, beñepein guztiak zeugaz batera maitatu dagien gura izango dozu; eta ainbeste lagun eskeřtxařekok, beragandik ařturiko eskařakaitik onesten eta goralduten gomutetan eztiran ezkerro, baso ta mendiai, itxasoai ta izaki zořgoř-enai be dei egingo dautsezu, bakotxak aren ordez goretsi dagiyela egunero, guztiak batera deadař egiñaz: *Donetsi bedi zure izena.*

Baña geyago goresten dozun neuriz, bere gorespenetan zein urř gelditu zarean geyago ezagutuko dozu. Eta ořtik zure gogoan lasteř yagoko da beař dan lez ezaututen eta goresten dan tokira yoateko gurari bizia: *Zure ala edo bakaldeřia betořkigu.*

Baña ¿zetarako da donokiaz zaletutea *azkatua izan nai dot* iñoana lez? Ezta oindiño aldia. Oindiño, Jauna guztiak irainduten daben toki onetan bizi beař zara,

ta ez igon guztiak beti goresten daben donokira. Eta, beraz, zure aringarri bakarra izango da Jaunari esatia: *Zure naya egin bedi.*

Egia da, onenbestez bizi al izango zariala, baña asko yasan (eroan) bearko dozula. Eta zure guramena, argizaria lez urtutean, Jaungoikoarenaz alkatu ta bat egin daiten, donokian zorionekoakaz yazoten dan lez, *Donokian lez ludian be,* ainbeste zorabio ta aultasun etoriko yazuz-ta, yanari ta indargariren bat Jaunari sarri eskatu bearean aurkituko zara. *Emoiguzu gauŕ geure eguneroko ogia.* Egia da zure yanaririk aundiena eztozula idoroko, Jaunak emongo dautzuzan maitasunaren baidurietan, otoyen gogargiz ta adibidez poztuerazoten zauzala; ezta beste asetu zeinkezan negarezko ogian be, (Ps. 79, 6), emoitza aldintsua izan-aren; ta bai bakarik ondiko mai donean yaten dan ogirik gorenean. Eta zorionekoak, donokiko bakalduna aurean dauken atsegintokian bizi diran lez, bardin zuk zeure atsegintokia eukiko dozu donokiko Bakalduna egiz ta notiña danez (iduripian

eta estalduta izan aŕen) beti dagon ondian. Eta etzara egunero aŕean eukiaz asetuko, egunero jaunaŕtzea biziro gurako dozu: ainbeste ontaŕte ta atsegin emongo dautzuz Bera artuko dozun bakotxian.

Baña onegin eta atsegiñok geituten diran neuŕiz, zuk Bera maitetu-beaŕa geituten da. Eta emen izango dira zure laŕitasunak eta estutasunak, zeure eginbeaŕ onetan egin dozuzan utsak gogoraturik. Orduan zure atsedeen bakaŕa izango da Jaunari esatia: *Azketsi eiguzuz gure zoŕak, guk geure zoŕdunai.....*—Eta, beaŕba, ezesten eta goŕotatzeko zauzan iñor ezpazeunke, uŕean euki gurako zeunke, Jaunaren irain barik izan-ezkero, beragaz egin al izateko, Jaungoikoak zeugaz ainbeste bideŕ zure lotsarako egin daroana, ona txar-ordez biurturik.

Eta eroangaŕiagoa izango litzateke zure miña, Jaungoikoa ain gitxi maite dozula, egiz bazenki oben laŕiz naigabetuten etzariala iñoz elduko. Baña ¿nok ori egiztau leikizu? Gogoaren aŕean yaŕiko yatzuz ainbeste goituteko izan diran Sataŕnas'en amaŕu ta malmuzkeriak; eta ¿zein

éraz dan zeu be egunen baten berak atzipetuta geratutea! ¿Eta nok daki ointxe be atzipetuta ete zaukan, Jaungoikoa benetan maite dozula ziñestuerezoten dautzula, maitatzen eztozularik? Emen izango da egiten dozun ezer, berez guztiz ona izan-añen, aintzat ez aítutea. Bañuko batutasuna, Jaunaren bañuko izkuntzak, gogañgiak, adibideak eta Jainkoagazko zure gogoaren batza berbera be, guztia egingo yatzu zalantzadun eta aítégatsu, eta begitanduko yatzu Jaunak biotzera itz-egiñaz, bizi zarian atzipe aundi ori ezagutu erazoteko, beti agiraka yagotzula, esanaz: *¿Eta gero maite nozula esango dozu?* Onenbestez, ain zauritua ta birindua geratuko zara-ta, uñean ustea galtzeraño makuñtuko zara, eta ekaitz ain gogoñ oñetan ondatu etzaitezala eskatu baño besterik ezingo dozu egin: *Eskaizuz itxi ziltzaldian jausten.*

Bañā emen agertuten da laster añnasa aítuten asten zarian argi eder bat, itxas-gizonak Telmo deunarena deritxon bestilagaz lez, eta zeure poz guztia ludi onetan Jaungoikoa'ren nekeak eroatea da.

Eta, beraz, bialdu dagizuzala Berak zoř  
yatzuzala uste dauan eta gura dauzan  
atsekabe, neke ta gurutzak, baita, zure-  
tzat astunenak diran, bařukoak be. Bakar-  
ik, ainbeste gatxen arıtean, yagon zagi-  
zala, bere maitasunez be bizitz onetan gu-  
ra izan ezin leiten gatxetik, erıuaren bidez  
Beragandik, unetxu baten be, aldenduta  
egotea. *Baña gatxetik yagon gaizuz.*  
Eta uste-on orıetan, zeure biotzak arınasa  
arıtuko dau, ta zorionaren kayan bertan  
bai-zengoz, esan biar izango dozu: *Amen.*

A. M. D. G.





# Bilabidia

---

Irakurleari.	5
I. Gogartea. Aozko otoyá ondo egiteko erea.	7
II. Aita gurea gan-ganetik begiratuta	15
III. Aita.	26
IV. Gurea.	36
V. Donokian zagozana.	45
VI. Donetsi bedi zure izena.	55
VII. Zure ala (ereñua) betorkigu.	66
VIII. Egin bedi zure gurea (naya) donokian lez ludian be.	81
IX. Emoiguzu gaur geure egunoroko ogia.	95
X. Eta azketsi (parkatu) eiguzuz geure zoñak.	107
XI. Geuk geure zordunai azkesten dautsegun lez.	118
XII. Ta'ezkaizuz itxi ziltzaldian (tentaziñuan) yausten.	129
XIII. Baña gatxetik yagon gaizuz. Amen	139
XIV. Aita gurea zelan esan biar dan eta bere gogartetik zelango onurak atera leikezan.	152

---





